

H.G. Wells

Gizon ikusezina

euskaratzailea: Miren Arratibel

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Miren Arratibel.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1997

Jatorrizkoaren data: 1897

H.G. Wells euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=258>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1578>

HITZAURREA

Herbert George Wells, eleberrigile, kazetari eta soziologoa, Bromleyn jaio zen 1866an eta Londresen hil 1946an. Jatorri apalekoa izaki, oso gazterik hasi behar izan zuen lanean eta gaztaro latza izan zuen Wellsek. Baina sekula ez zituen alde batera utzi irakurketa eta kultura. Zenbait zientzia alorretako oinarriak ikasi zituen gau-eskoletan eta Londresko Zientzietako Eskola Normalean ikasketak egiteko beka bat lortu zuen. Ikasketa haiei zegokien titulurik lortu ez bazuen ere, beka hari esker bildu ahal izan zuen gerora bere eleberrien inspirazio iturri izan zituen esperientziak.

Literatura alorreko aukera handia, aurretik zenbait saio eta artikulua idatzia bazen ere, 1894an izan zuen: izan ere, idatzia zuen kontakizun labur batekin eleberri bat osatzeko eskaria jaso zuen urte hartan. *The Chronic Argonauts* zen kontakizunaren izenburua, eta etorkizunera eginiko bidaia baten kronika egiten du; 1895ean eman zuen argitara eleberria, *The Time Machine*

izenaz. Eleberri hark ospe handia eman zion, eta aurrerantzean ospe horrek ez zuen mugarik eza-gutu. 1895ean bertan eman zuen argitara *The Wonderful Visit*; hurrengo urtean *The Island of Dr. Moureau*; 1897an, berriz, *The Invisible Man* (*Gizon Ikusezina*); 1898an *The War of the World*; eta 1901ean *The First Men in the Moon*. XIX. mende bukaerako eleberri horiek kutsu fantastiko eta apokaliptikoa dute; XX.aren hasierakoak, berriz, utopian oinarrituak dira oro har: *Mankind in the Mankind* (1903), *A modern utopia* (1905) etab. Aurrerago eleberri soziologikoak, politikoak eta autobiografikoak ere idatzi zituen: *Experiment in autobiography* (1934) eta *Mind at the End of The Tether* (1945), etab.

Ospe hark, ordea, ez zuen gizarte arazoekiko beti erakutsi izan zuen ardura baztertzeraren. Fabian Societyko kide izan zen, eta sozialismoa zabaltzeko ahaleginak egin zituen. Indibidualtasuna eta kolektibotasuna biak ere kontuan hartuko zituen sozialismo bat aldarrikatzen zuen, sozialismo humanitarioa. Bi mundu gerren arteko garaian, berriz, kontzientzia unibertsal bat sustatzeko mezua luzatu zuen, gizadiaren

arazoak eztabaidatu, aztertu eta konponduko ziren itxaropenaz, betiere.

Wellsek jenero asko landu zituen (eleberria, kontakizun laburra, saiakera, etab.) baina eleberrri zientifikoek eman zioten ospe gehien. Jules Verne idazlearekin batera, zientzia fikzioaren aitzindaritzat hartua da. Etorkizun hurbil zein urrunean kokatu zituen zientzifikzioko bere eleberriak, eta garapenak, aurreramendu zientifikoteknikoek eta gizarte gatazkek gizadiarentzat izan ditzaketen ondorioak (kaltegarriak nagusiki) azpimarratu zituen; ez ordea jendea beldurtzeko asmoz, bere garaiko gizakia arrisku horietaz ohartarazteko baizik.

Wellsen obretatik eskuartean duzun hau esan genezake dela ospe gehien eman ziona: *Gizon Ikusezina*, 1897an argitaratua. Hizkuntza askotara itzulia izan da eta zinemara ere eraman da. Zientzia fikzioko jeneroan obrarik garrantzitsuenetako bat da; Frankensteinekin batera gizarte garaikidearen mito bihurtu den pertsonaia bat du protagonista: Griffin.

Griffin da, beraz, eleberriko pertsonaia nagusia, eta bere burua ikusezin bihurtzea lortu ondo-

ren ikusezintasun hori dela eta gertatzen zaizkion pasadizoek osatzen dute liburua-ren haria. Irrigarriak dira batzuk, eta oso trajikoak, berriz, besteak. Horregatik, zientzia fikzioko jeneroan obra aipagarrienetakoa den arren, eta eleberria-ren abiapuntua errealitate zientifiko jakin batean oinarritua eta logikaz betea bada ere, giza adimena eta apeta nagusitzen dira gerora, eta horrela, trajikomedia gisa ere defini daiteke argumentua.

Wellsek eleberri honetan, bere gainerako obra gehientsuenetan bezala, bere ideiak azaltzen ditu argumentuan txertatzen diren pertsonaien diskurtsu ideologikoen bidez: zientziaren baloreez (arriskuez) duen iritzia jartzen du agerian, eta batzuetan, baita gizarte bat gobernatzeko bideaz duena ere. Hain zuzen ere, ideiak eta gaia izan ohi dira Wellsen lanetan gehien nabarmentzen diren alderdiak, eta ez hainbeste forma edo hizkuntza. Oro har, hizkuntza apala darabil, baina umorez eta indarrez betea, hainbesteraino, non irakurleak begiez ikusi ezin den hura ikusten duela dirudien.

1.

GIZON MISTERIOTSUA IRITSI ZENEOA

Ezezaguna otsail hasierako egun hotz-min batean iritsi zen, urteko azken elurtearekin batera, neguko haize zorrotzari eta elur maluta handiei aurre eginez; oinez abiatu bide zen Bramblehursteko tren geltokitik, mendi lepoaren bestaldetik. Maleta beltz txiki bat zekarren eskularru lodi batek estaltzen zion eskutik zintzilik. Gorputza estalirik zuen burutik oinetara, eta bere fieltrozko kapeluaren hegala itzal egiten zion aurpegi guztian, sudur punta distiratsuan izan ezik; sorbaldetan eta bularraldean elurra pilatu zitzaion, eta fardelaren gainaldea ere zuritua zen. Coach and Horses ostatuan sartu zen balantzaka, bizi baino hilago, eta lurrera bota zuen maletatxo.

— Sutondoa! —egin zuen oihu Jainkoaren izenean! Gela bat eta sutondoa.

Oinei lurraren kontra eragin, tabernako mostradore ondoan elurra astindu, eta Hall andrea-

ren atzetik abiatu zen ostatuko egongelara, ostatu prezioaz tratu egitera. Beste gora-beherarik gabe, ordainketa-epeak erabaki eta mahai gainean soberano pare bat utzirik, ostatu hartu zuen.

Hall andreak sua piztu eta ezezaguna bakarrik utzi zuen, jateko zerbait prestatzen zion bitartean. Ipingen neguan ostatu hartuko zuen bezero bat izatea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, ez horixe, bezeroa «ordaintzaile eutsia» ez bazen bereziki; eta etxekoandrea, horren jakitun baitzen, prest zegoen halako zorionak merezi zuen esker ona adierazteko. Urdaia prestatu eta Millie, bere laguntzaile motela, mesprezuzko esaldi ondo hautatu batzuen laguntzaz lanean hasteko zirikatuta, mahai-oihala, platerak eta edalontzia egongelara eraman eta mahaia prestatzen hasi zen *èclat* handiz. Sua bizia zen, eta bisitariak kapelua eta berokia soinean zituela ikustean asko harritu zen; bizkarrez zegoen, leihotik begira, elurra atarira nola jausten zen begira. Eskuak, eskularruez estaliak, bizkarrean gurutzaturik zituen, eta bere pentsakizunetan murgilduta zegoela zirudien. Sorbalda gainetan

gelditzen zitzaion elur erdi gesaldua alfonbrara erortzen ari zela ohartu zen Hall andrea.

— Eramango al dizkizut sukaldera kapelua eta berokia —esan zuen ondo-ondo lehortzera, jauna?

— Ez —erantzun zion bururik jiratu gabe.

Erantzuna ongi entzun ez zuelakoan, berriz galdetzera zihoan etxekoandrea. Eta ezezagunak burua jiratu eta sorbalda gainetik begiratu zion.

— Nahiago ditut soinean —esan zuen zorrotz.

Hori esan zionean betaurreko urdin handiak, alboetan ere kristala zutenak, eta berokiaren lepotik gora aurpegia erabat estaltzen zion bizarra zuela konturatu zen andrea.

— Ondo da, jauna —esan zuen Nahi duzun bezala. Segituan berotuko da gela.

Ez zion erantzun, eta burua leiho aldera itzuli zuen atzera. Hall andreak, han elkarrizketarako giro ez zela oharturik, gainerako tresna guztiak *staccatoz* mahai gainean utzi eta bizkor irten zen gelatik. Berriro sartu zenean zutik zen oraindik bisitaria, harrizko gizon bat bailitzan,

bizkarra makurtuta, berokiaren lepoa jasorik eta bere kapeluaren hegala bustia aurrera okertua, aurpegia eta belarriak erabat estaltzen zizkiola. Hall andreak arrautzak eta urdaia arrandiaz mahai gainean utzi, eta, esan ez baina oihu egin zuen:

— Pronto duzu bazkaria, jauna.

— Mila esker —erantzun zion, baina ez zen mugitu atea itxi zion arte. Atea itxi zenean orpoen gainean biratu eta mahaira inguratu zen gosez.

Etxekoandreak, mostradore atzetik sukaldera zihoala, hots bat entzun zuen, behin eta berriro errepikatzen zena: kris, kris, kris, koilarak platera jotzean egiten zuen hotsa zen.

— Eeene! Neska malapartatu hau! —esan zuen Hara, erabat ahaztuta nengoen! Makala baino makalagoa da!

Eta ziapea berak bukatzen zuen bitartean Millieri errieta egin zion, arinago ibil zedin. Berak prestatu zituen arrautzak eta urdaia, berak jarri zuen mahaia eta egin zituen egin beharreko guztiak, eta Milliek, bitartean (a ze laguntzailea!), ziapearekin ere berandutzea, horixe baizik ez

zuen lortu. Eta bezero berria zuten, bolada batez ostatuan edukiko zutena, gainera! Ziape-ontzia bete, eta te-erretilu beltz eta urre-kolore batean txukun-txukun jarririk, egongelara eraman zuen.

Atea jo eta bizkor sartu zen. Bisitariak mugimendu laster bat egin zuela ohartu zen etxeko-andrea, baina mahai atzean ezkutatu zen gauza zuri bat ikusteko denbora eman zion. Lurretik zerbait jaso zuela iruditu zitzaion. Etxekoandrea ziape-ontzia mahai gainean utzi eta ezezagunak kapelua eta berokia sutondoko aulki batean jarri zituela ohartu zen; haren bota bustiek tximinia aurreko altzairuzko burdinsarea herdoilduko zuten. Aulkia zegoen tokira hurbildu zen bizkor.

— Orain eraman ditzaket lehortzera, ez? — galdetu zion, ezezkorik onartuko ez zukeen doinuaz.

— Utz ezazu kapelua —erantzun zion bisitariak, ahots itoaz. Hall andrea atzera jiratu zenean bisitariak burua jaso zuela eta berari begira eserita zegoela konturatu zen.

Une batez begira gelditu zitzaion harridurak erabat mututurik.

Ezezagunak oihal zuri bat zuen eskuan, berak ekarritako eskuzapi bat, eta aurpegiaren behealdean harekin estalita zeukan, ahoa eta masailak erabat ezkutaturik gelditzen zitzaizkiola. Horregatik zen itoa haren ahotsa. Hall andrea, ordea, ez zen horregatik aztoratu, gizonaren buruaren itxuragatik baizik. Betaurreko ilunek estaltzen ez zioten buruaren partea benda zuri batez estalia zuen, eta beste benda bat zeukan belarrien inguruan; aurpegi osoa zuen ezkutatua, sudurra izan ezik; izan ere, sudurrak ostatura iritsi zenean bezain argi, gorri eta distiratsu zirauen. Soinean belusezko jaka marroi-arre bat zeraman, eta gorantz igota zeukan haren lihozko lepo beltz luzea. Ilea beltz sarria zuen; benda azpietatik eta tarteetatik ileak irteten zitzaizkion ahal zuten bezala, isats eta adar modura, eta itxura ezin fantastikoagoa ematen zion horrek ezezagunari. Buru bendatu hura ez zen Hall andreak imajinatu bezalakoa, inondik ere, eta harri eta zur gelditu zen hura ikustean.

Gizonak ez zuen eskuzapia utzi; eskularruaz estalitako eskuaz eutsita zeukan, etxekoandreak

ikusi ahal izan zuenez, eta bere betaurreko misteriotsu urdinen atzetik begiratzzen zion.

— Utz ezazu kapelua —esan zion, ahots argiaz oraingoan, zapi zuriaren atzetik.

Hasierako harridura gairiditurik, bere onera etorri zen Hall andrea. Sutondoko aulkian utzi zuen berriro kapelua.

— Jauna, nik ez nekien —hasi zen zera... — eta isildu egin zen kezkatu.

— Mila esker —esan zion gizonak lehor, eta emakumeari, ateari eta, berriro ere, emakumeari begiratu zien hurrenez hurren.

— Arropa hau berehala lehortzeko aginduko dut, jauna —esan, eta arropa hartuta gelatik atera zen.

Irten aurretik azken begiratu egin zien benda zuriz estalitako buruari eta betaurreko urdinei, baina orduan ere aurpegi aurrean jarrita zeukan gizonak zapia. Etxekoandreari gorputza dardaratu zitzaion atea ixtean, eta harridurazko eta ustekabezko keinuak agertu zitzaizkion aurpegian.

— Nik ez nuen sekula... —esan zuen ahape-tik Tira!

Txintik atera gabe joan zen sukaldera; iritsi zenean, Millieri zer arraiotan ari zen galdetzeko ere asaldatuegi zeukan burua.

Bisitaria eseri eta andrea noiz urrunduko zain gelditu zen. Eskuzapia aho paretik kendu eta bazkaltzen jarraitu aurretik, leihora begiratu zuen. Koilarakada bat hartu, berriro ere mesfidantzaz leiho aldera begiratu, eta beste koilarakada bat hartu zuen; gero, altxatu eta, eskuza pia aho parean zuela, gelaren beste aldera joan eta pertsiana jaitsi zuen leihoaren behealdeko beira estaltzen zuen muselina zuriraino. Erdi ilunbetan gelditu zen gela. Mahaira itzuli zen, lasaiago antzean, eta bazkaltzen jarraitu zuen.

— Istripu bat, edo operazio bat, edo halakoren bat izango zuen gizajoak —zioen Hall andreak A ze sustoa hartu dudan benda haiek ikustean!

Sutara ikatza bota, arropa esekitzeko zaldia zabaldu eta bidaiariaren berokia eseki zuen.

— Eta horiek antiojoak! Benetako gizon bat baino, urpekari horietako bat edo ematen du eta!

Lepokoa arropa esekitzeko zaldiaren bazter batean jarri zuen.

— Eta denbora guztian zapi hori ahoan! Zapipetikan hitz eginez!... Ahoan ere zauriren bat izango du; halakoren bat.

Zerbait gogora datorkionaren gisara atzera jiratu zen bat-batean.

— Jainkoarren! —esan zuen, gaia aldatuz Ez al dun oraindikan bukatu, Millie?

Ezezagunari istripuren batean ahoa zauritu edo itxuragabetu zitzaiolako ustea baieztatu ahal izan zuen Hall andreak mahaia jasotzera sartu zenean; ezezaguna pipa erretzen ari zen, eta andrea gelan egon zen denboran pipa ahoan sartzeko ere ez zuen aurpegiaren behealdea estaltzen zion sedazko zapia aho paretik kendu. Eta ez zegoen pipa erretzen ari zela ahaztuta; izan ere, tabakoa pixkanaka nola erretzen zen begira zegoela ondo ikusi zuen Hall andreak. Bazter batean eserita zegoen, bizkarra leihoaren kontra; lehen baino goxoago hitz egiten zuen, bapo jan eta edan, eta barrenak ondo berotu ondoren. Suaren islak ordu arte izan ez zuten

bizitasun gorrixka bat ematen zien betaurreko handiei.

— Fardel batzuk ditut —esan zuen Bramblehursteko geltokian.

Bere ekipaia ekartzera inor bidal ote zezakeen galdetu zion andreari. Eta bere buru bendaz betea okertu zuen Hall andrearen azalpenen zain gelditzen zela adierazteko bezala.

— Bihar! —esan zion Ezin izango al ditut lehenago eskuratu? —haserretu egin zen emakumeak «ez» erantzun zionean. Seguru al zegoen emakumea? Inork ez al zuen gurdirik bere fardelen bila joateko?

Atsegin handiz erantzun eta elkarrizketa has-teko bidea hartu zuen Hall andreak.

— Mazeleko bidea izugarri aldapatsua da, jauna —esan zion gurdiarenari erantzunez, eta berehala jarraitu zuen, gizonaren isiluneaz baliaturik Orain dela urtebete edo zalgurdi bat amildu zen maldan behera. Bidaiari bat eta gurdizaina hil ziren. Izan ere, horrelako ezbeharrak, jauna, ustekabean gertatzen dira, ezta?

Baina bisitaria ez zen erraz lasaitzen diren horietakoa, antza.

— Hala da, bai —esan zuen aho-estalkiaren eta betaurreko beldurgarrien atzetik, andreari begirik kendu gabe.

— Eta gero denbora puska bat behar izaten da haietatik sendatzeko, ezta, jauna?... Begira nire ahizparen Tomena ere; eskuan igitaia zera-mala soroan plaust! erori, eta ebakia egin zuen besoan. Jaungoikoak gorde nazala! Hiru hilabetez eduki zuen besoa loturik, jauna. Ez duzu sine-tsiko, baina hala da. Harrezkero ikaragarritzko bildurra diet igitaiei, jauna.

— Noski, noski —erantzun zion bisitariak.

— Operazio bat edo egin beharko ote zitzaion bildurrez ere ibili ginen; hain zegoen gaizki, jauna!

Bisitariak barre algara bat egin zuen, zakur zaunkaren gisako algara bat; ahoan zerbait hozkatu eta hiltzen ari zela zirudien.

— Bai? —esan zuen.

— Bai, jauna. Ez zen txantxetako gauza izan, ez, mutikoa zaindu behar izan zutenentzat, niretzat adibidez; jakina, nire ahizpak bazuen nahiko lan txikienekin. Bendak jarri eta kendu behar

zitzaizkion. Beraz, atrebentzia handia ez bada, esan nahi nizuke ni prest nagoela...

— Ekarriko al dizkidazu pospolu batzuk? — esan zion bisitariak, zabar Pipa itzali zait.

Hall andrea isildu egin zen. Lotsagabe jokatu zuen gizonak, emakumeak hura guztia kontatu ziolarik ere. Ahozabalik eta haserre begiratu zion Hall andreak, baina gizonak utzitako bi soberanoak etorri zitzaizkion gogora, eta txintik atera gabe pospoluen bila joan zen.

— Eskerrik asko —esan zion, lehor, andreak pospoluak mahai gainean utzi zizkionean. Bizkarrira jiratuta leihotik begira jarri zen berriro. Lur jota zegoen. Zalantzarik gabe, atsekabetu egiten zuen ebakuntzez eta bendez hitz egiteak. Hall andrea, itxura batean proposamena atrebentzia handia iruditu baitzitzaion ezezagunari, ez zen inolako eskaintzarik egitera ausartu. Oso haserre zegoen bisitariak gutxietsi zuelako, eta Milliek arratsalde beroa igaroko zuen haren erruz.

Lurak arte gelditu zen bisitaria egongelan, etxekoandreaki gelan sartzeko inolako aitzakiarik eman gabe. Denbora gehiena geldirik eman zuen; eserita egon bide zen gela gero eta iluna-

go hartan, sutondoan pipa erretzen, edo erdi lotan, agian.

Behin edo bitan ikatza nola astintzen zuen entzun zen, eta gelan atzera eta aurrera ere ibili zen bost minutuz edo. Bakarrik hizketan edo zebilela zirudien. Azkenik, aulkiak karraska egin zuen, norbait gainean eseri balitz bezala.

2.

TEDDY HENFREYREN LEHEN IRUDIPENAK

Lauretan, ordurako nahiko ilun zegoela, Hall andrea bisitariari terik nahi zuen galdetzera sartu ez sartu zegoela, Teddy Henfrey erloju-konpontzailea sartu zen tabernan.

— Ene, Hall andrea! —esan zuen Ez da, ez, bota ziztrin hauekin kalean ibiltzeko giro! —mara-mara ari zuen elurra.

Hall andreak baietz, arrazoia zuela esan zion, eta Teddyk laneko poltsa aldean zekarrela ohar-turik, ideia bikaina bururatu zitzaion.

— Hemen zaudenez, Teddy —esan zuen—eskertuko nizuke egongelako erreloju zaharrari begiratu bat ematea. Ibili, ondo dabil, behar denean jotzen ditu orduak; baina orduen orratza seietan dago kieto.

Andrea egongelako atera hurbildu, atea jo eta sartu zen.

Atea zabaltzean bisitaria sutondoko aulkian eserita zegoela ikusi zuen; lozorroan bide zen,

bere buru bendatua alde batera okertua baitzuen. Sugarraren isla gorriak ematen zuena — ezezagunari begiak bi tren seinale bailiran argitzen zizkion, baina aurpegia itzalean uzten zion eta atetik sartzen zen arratseko argiaren distira ahula ziren gelako argi bakarrak. Gela gorri zegoen, ilun, nahastuta, andrearentzat; begiak tabernako argitasunera egokiturik zituen artean eta itsututa bezala zegoen. Gizonak aho izugarri handia zuela iruditu zitzaion hasieran: ikaragarriko ahoa, aurpegiaren behealdea osorik hartzen ziona. Momentuko irudipena izan zen: buru zuriz estalia, betaurreko izugarriak eta zulo handi bat haien azpian. Horretan, ezezagunak mugitu, aulkian erosoago jarri, eta eskua luzatu zuen. Hall andreak erabat zabaldu zuen atea, gelan argi gehiago sar zedin; gizona hobeto ikusi ahal izan zuen, lehenago eskuzapiak bezala, oraingoan lepokoak aurpegia estaltzen ziola. Gelako itzalek nahastu zutela pentsatu zuen andreak.

— Axola al zaizu, zera, gizon honek errelojua konpontzea, jauna? —galdetu zion hasieran izandako ustekabetik bere onera itzulirik.

— Erlojua konpontzea? —erantzun zion erdi lotan eta eskupetik mintzatuz Ongi da —esan zuen gero, erabat iratzarririk.

Hall andrea lanpara baten bila joan zen, eta ezezaguna altxatu eta nagiak ateratzen hasi zen. Horretan gela argitu zen; Teddy Henfrey jauna gelan sartu zen eta gizon bendatuarekin topo egin zuen. Guztiz asaldatu zela aitortu zuen gero Henfreyk.

— Arratsalde on, jauna —esan zion ezezagunak, geroago Henfrey jaunak esan zuenez betaurreko ilunen atzetik maltzur begiratzen ziola, zomorro batek bezala.

— Ez dizut enbarazu egingo gero? —esan zuen Henfrey jaunak.

— Ez, ez noski —erantzun zion ezezagunak Baina nik uste nuen —esan zuen Hall andrea zegoen aldera jiraturik gela hau niretzat, nik bakarrik erabiltzeko izango nuela.

— Eta nik uste nuen —esan zuen Hall andreak nahiago izango zenuela errelojua... — «konponduta ikusi» esatera zihoan.

— Jakina —esan zion jakina. Baina, ahal balitz, bakarrik eta lasai egon nahi nuke. Dena

dela, poz handia emango dit erlojua konponduta ikusteak —esan zuen, Henfrey alde egin ez egin zebilela ikusirik.

— Poz handia benetan.

Henfrey barkatzeko eskatu eta alde egiteko-tan zen, baina entzun berri zuen horrek lasaitu egin zuen. Ezezagunak suari bizkar eman eta eskuak bizkarrean gurutzatu zituen.

— Hemendik gutxira —esan zuen erloju-kon-pontzaileak bere lana amaitzean, tea hartu nahi nuke. Baina ez erloju-konpontzaileak alde egin arte.

Hall andrea gelatik irtetera zihoan —ez zuen elkarrizketan sartzeko ahaleginik batere egin, ezezagunak Henfreyren aurrean gutxietsiko zue-lako beldur baina bisitariak Bramblehursteko far-delak lehenbailehen ekartzeko ahaleginak egin zitzala eskatu zion. Andreak, berriz, kontatua ziola postariari gertatutakoa, eta hurrengo eguna arte ezin izango zituela trasteak eskuratu.

— Ziur al zaude ezin direla lehenago ekarri? Andreak, lehor, ziur zegoela erantzun zion.

— Zenbait azalpen eman nahi nizekizueke, iri-tsi naizenean hotzak eta leher eginda nengoela-

ko eman ez dizkizuedanak —jarraitu zuen Zientzia ikerlaria nauzue.

— Bai ote? —esan zion harriturik Hall andreak.

— Neure fardeletan tramankuluak eta tresnak ditut.

— Oso baliagarriak, noski, jauna —esan zuen Hall andreak.

— Eta, ulertuko duzuenez, nire ikerketekin jarraitzeko irrikitan nago.

— Horixe, jauna.

— Ipingera etorri banaiz —esan zuen indarrez bakarrik egotearren etorri naiz. Ez nuke neure lanean inolako eragozpenik nahi. Eta lanarenaz gainera, istripu bat dela eta...

— Banengoen, ba, ni! —esan zuen Hall andreak bere golkorako.

— ...atsedena behar dut. Begiak hain ahul eta minbera izaten ditut sarritan, ezen ilunbetan igaro behar izaten ditudan orduak eta orduak. Neure burua ezkutatu behar izaten dut, baina, batzuetan, tarteka besterik ez. Orain, adibidez, ez. Halakoetan, gertaera soilenak ere, gelan inor

sartzeak adibidez, guztiz atsekabetzen nau; baina hau guztia ulertuko duzuelakoan nago.

— Bai, noski, jauna —esan zion Hall andreak. Eta, bide batez, zera galdetu nahi nizuke... atrebentzia handia ez bada....

— Nire aldetik, hori da guztia —esan zuen ezezagunak, elkarrizketa bukatzeko har zezakeen jarrera aproposena harturik. Beste baterako gorde behar izan zituen bere galderak eta berriketarako gogoia Hall andreak.

Andreak gelatik alde egin ostean, ezezaguna sutondoan gelditu zen, atsekabeturik, itxura batean, Henfreyk gerora erloju-dendan esan zuenez. Henfrey jaunak erlojua hartu eta lantresnak atera zituen; ahal bezain mantso, patxadatsu eta modu onean lan egiten saiatu zen. Lanpara alboan zuela ari zen lanean eta haren pantaila berdeak distira ematen zien bere eskuei, erlojuaren egiturari eta erloju-gurpilari, baina gelako gainerako gauza guztiak ilunbean zeuden. Gora begiratzean begiak lausotzen zitzaizkion argiaren eraginez. Gizon jakin-nahia zen, eta, hartara, erlojuaren pieza guztiak atera zituen —nahiz eta erlojua konpontzeko ez zuen

hura guztia egin beharrik horrela denbora gehiago igaro eta ezezagunarekin hitz egiterik izango zuelako esperantzaz. Ezezagunak hantxe segitzen zuen ordea, isil-isilik eta geldi. Haren geldotasunak dantzan jarri zizkion nerbioak Henfreyri. Gelan beste inor ez balego bezala sentitzen zen, baina gora begiratzean, han ikusten zituen buru bendatua, gris eta ilun; lente urdin izugarriak, zurrun, eta distira berde batzuk haien aurrean. Liluragarria iruditzen zitzaion hura guztia Henfreyri, eta minutu batez bata besteari begira gelditu ziren. Azkenik, Henfreyk behera begiratu zuen berriro. Egoera ez-erosoa zen, benetan! Zerbait esan nahi zukeen. Urte sasoi hartarako eguraldi hotzegia egiten zuela esan zezakeen. Gora begiratu zuen, lehenengo tiroa botatzeko punteria zorrotz bezala.

— Hau eguraldia... —hasi zen.

— Zergatik ez duzu lehenbailehen bukatzen eta alde egiten? —esan zion haserreak hartuta gizirudi zurrunak Egin behar duzun gauza bakarra orduaren orratza ardatzean sartzea da. Gainerako guztia alfer lana da.

— Noski, jauna, minutu bat besterik ez da. Konturatu gabe berandutu naiz.

Eta, hala, Henfrey jaunak bukatu eta alde egin zuen. Sutan irten zen ostatutik ordea.

— Ergel malapartatua! —esan zion Henfreyk bere buruari, elur gesalduan herrian behera nekez zihoala Ze demontre! Denbora beharko diat, ba, errelojua konpontzeko, ala?

Eta ondoren:

— Inork ezin hau begiratu, ezta? Nazkante hori!

Eta jarraian:

— Ez, ezetz ematen dik! Polizia hire bila balebil ere ezin estaliago eta bendatuago ibili.

Glessoneko kantoian Hall jauna ikusi zuen. Ezezaguna ostatz zegoen Coach and Horsesko etxekoandrearekin ezkondu berria zen Hall jauna. Ipingetik Sidderbridgeko bidegurutzerainoko ibilbidea egiten zuen inork hala eskatzen zionean, eta handik bueltan zetorren, hain zuzen; bistakoa zen «atsedenalditxo» egina zuela Sidderbridgen, orga nola zekarren ikusirik.

— Ze berri, Teddy? —galdetu zion haren albotik pasatzean.

— Morroi xelebrea etorri zaik etxera —erantzun zion Teddyk.

Hall, adiskide, gelditu egin zen.

— Zer diok? —galdetu zion.

— Bezero misteriotso bat ailegatu duk Coach and Horsesera esan zuen Teddyk Alajaina!

Eta bezero xelebre haren deskribapen ahal bezain zehatzena egin zion.

— Mozorro bat zirudik, ezta? Nirean ostatu hartzen duen gizonari aurpegia sikiera ikusi nahi niokek —esan zuen Henfreyk Baina emakumeak hain dituk sineskorrak ezezagunekin! Hirean gela bat hartu eta ez dik izenik ere eman, Hall.

— Bai ote? —esan zuen Hallek, egoera aztertzen nahiko lanekin.

— Halaxe duk, bai —erantzun zion Teddyk Aste betekoa ordaindu dik; astea bukatu artean behintzat ezin bidali, hi! Eta ekipaia ugari ekarriko omen dik bihar, hori esan dik. Ez ahal dituk harriz betetako maletak izango, Hall!

Eta Hastingsko izebaren istorioa kontatu zion Halli, nola maleta hutsik zeraman ezezagun batek engainatu zuen. Hall erabat asaldatzea lortu zuen azkenean.

— Hots, hots, polita! —esan zion Hallek manduari Goazeman zer arraio gertatzen ote den ikustera!

Teddyk, berriz, aurrera jarraitu zuen, gogo arindurik.

Hallek «zer arraio gertatzen ote den ikustera» esan bai, baina etxean sartu orduko emaztea demandan hasi zitzaion, denbora asko pasa zuela eta Sidderbridgen, eta zakar eta lehor erantzun zien Hallen galdera epelei. Teddyk Hallen gogoan pizturiko susmoek, ordea, indar hartu zuten.

— Zer dakizue, ba, zuek, emakumeek! — esan zuen Hallek, ezezagunaren izakeraz ahal bezain laster zerbait jakitera erabakita.

Eta ezezaguna oheratu bezain laster, bederatzireta erdiak inguruan, egongelan sartu zen Hall, oldarkor; emaztearen altzariak miatu zituen, ezezagunak etxe hartan eskurik ez zuela erakutsi nahian bezala, eta arretaz eta gutxiespen keinuaz aztertu zuen hark ordaindutako diru kopurua agertzen zen kontu-orri bat. Biharamunean ezezagunaren ekipaia iristean hura ondo aztertzeke agindu zion emazteari lotarakoan.

— Zu zeure zeretara, Hall —esan zion emazteak eta ni neureetara.

Halli gauza guztietan kontra egiteko joera zuen emazteak, bistakoa baitzen hura ez zela ezezagun arrunta eta Hall andrea bera ere ez baitzen oso ziur gauzak zuzen ote zeuden. Ametsetan esnatu zen gauaren erdian, arbi erraldoien gisako buru zuri handiekin ametsetan, amaierarik gabeko lepoen gainean dilindan zeuden eta begi beltz sakonak zituzten buruekin ametsetan. Baina emakume zuhurra zen; beldurri eutsi zion, eta loak hartu zuen berriro.

3.

MILA ETA BAT BOTILA

Horra, bada, otsailak hogeita bederatzi zituela, elurra urtzen hasia zenean, ezezagun bitxi bat nola iritsi zen infinitutik Ipingeko herrira. Haren ekipaia biharamunean iritsi zen, gesalaren gainetik. Ekipaia handia zen benetan. Baziren bi kutxa handi, edozein bidaiarik izan zitzakeen modukoak, baina haiez gainera baziren kutxa bat liburuz betea —liburu handi mardulak; hizkuntza ulergaitz batean idatzitako zenbait eskuizkribu, besteren artean eta dozena bat edo dozenatik gora saski, kaxa eta kutxatila, lastoz bildutako tresnekin, beirazko botilekin edo. Halli, behintzat, hala iruditu zitzaion, jakin-minez lastoa ukitu zuenean. Ezezaguna, bere kapelu, beroki, eskularru eta lepokoan bildurik, irrikaz irten zen Fearensideren orga iristean; bien bitartean Hall, ezezagunari berriketa-hitz bat edo bi esanda, prest zegoen fardelak barrura sartzen laguntzeko. Ezezaguna kalera irten zenean ez

zen ohartu Fearensideren zakurra han zela, *dilettante* izpirituz Hallen oinak usnartzen.

— Sar itzazue kaxa horiek barrura —esan zuen Nahikoa itxaron dut eta!

Eta atariko mailak jaitsi, orgaren atzealdera joan eta eskuak luzatu zituen, saski txikiena hartzeko bezala.

Fearensideren zakurra larritu eta amorru biziz intzirika hasi zen ezezaguna begiz jo orduko. Ezezagunak maila guztiak jaitsi zituenean zakurrak haren gainera jauzi egin eta eskua harrapatu zion.

— Arraioa! —esan zuen atzera eginez Hallek, ez zen-eta zakurren oso lagun.

— Etzan hor! —oihu egin eta zigorra hartu zuen Fearensidek.

Zakurraren hortzak gizonaren eskuan nola sartu ziren ikusi zuten eta ostikada bat entzun zen; konturatu ziren ondoren zakurrak albora jauzi egin eta ezezagunari hankan kosk egiten ziola; galtzetako oihala nola urratzen zion entzun zuten gero. Fearensideren zigorrak zakurra jo zuen, eta zakurra orgaren gurpil azpian gorde zen, izu-uluak eginez. Minutu eskas bateko

gauza izan zen hura guztia. Inork ez zuen hitz egin; garrasi egin zuten guztiek. Ezezagunak zehar-begirada bat bota zien eskularru zarrata-tuari eta hankari, zauria sendatzera balihoa bezala, baina atzera jiratu, zurubia ziztu bizian igo eta ostatuan sartu zen. Pasiloa zalapartaka igarota, alfonbrarik gabeko zurubian gora, bere gelara igotzen entzun zuten.

— Astakirten alaena! —egin zuen oihu Fea-rensidek, zigorra hartuta orgatik jauzi eginez; zakurra gurpilaren beste aldetik begira zuen Hator hona...! Hobe izango duk esana betetzea! Hall aho bete hortz gelditu zen.

— Kosk egin zio! —esan zuen Hobe diat zer duen ikustera joatea.

Ezezagunaren atzetik lasterka irten zen. Pasiloan Hall andrearekin topo egin zuen.

— Zamariaren txakurrak —esan zion kosk egin diola.

Zuzenean gora igo, eta ezezagunaren gelako atean zirrikitu ikusita, atea bultzatu eta deitu gabe sartu zen, gizon bihozbera baitzen.

Pertsiana jaitsita zegoen; ilunbean zen gela. Etxeko nagusiak oso gauza bitxia ikusi uste izan

zuen; eskurik gabeko besoa zirudien zerbait, bere alboan higitzen; hiru orban zuri handi; eta amaigabeko aurpegi bat, biola lore baten gisakoa. Gero ukabilkada indartsu bat eman zioten bularrean, atzera eginarazi ziona, eta atea haren muturren aurrean itxi eta giltzatu zen. Hain azkar gertatu zen guztia, ezen ezin izan baitzuen ezer ere garbi ikusi. Itzal lausoen dantza bat, kolpea, astindua. Han gelditu zen, zurubiko tranpaltxo ilunean, ikusitako hura guztia zer arraio ote zen bere buruari galdezka.

Handik pare bat minutura Coach and Horses ostatu aurrera bildu zen taldetxoarengana joan zen. Han zen Fearenside, gertaturiko guztia bigarren aldiz kontatzen; han zen Hall andrea, Fearensideri kontu eske, haren zakurrak bere bezeroei zertan koska eginik ez zuela eta; han zen Huxter, kaleaz bestaldeko dendaria, jakin-minez; eta han zen Sandy Wadgers errementaria, giroa lasaitu nahian. Emakumeak eta haurrak ere hurbildu ziren ate aurrera, eta guztiak ari ziren lelokeriak esaten: «Niri ez lidake koskegingo, ez horixe!»; «Horrelako txakurrik eduki-

tzeko eskubiderik ez dago!»; «Zergatik egin dio kosk, ordea?». Eta horrela guztiak.

Hall mailadian zegoen, jendeari begira, zer esaten zuten entzuten eta bigarren solairuko gertakari harrigarriak sinetsi ezinik. Bere hiztegi laburrean ez zuen hitzik aurkitzen une hartako sentipenak aditzera emateko.

— Ez omen du laguntzarik behar —bota zuen emaztearen galderen erantzun Hobe izango dugu fardelak barrura sartzea.

— Zauria garbitzea komeni da —esan zuen Huxter jaunak handituta badu behintzat.

— Txakurra nirea balitz, tiro emango nioke, horixe emango niokeela! —zioen taldeko emakume batek.

Horretan zakurra intzirika hasi zen berriro.

— Bizkor! —egin zuen oihu ahots haserre batek ataurretik: ezezaguna zen, berokiaren lepoa jasorik, kapeluaren hegala kopeta estaltzen ziola Zenbat eta lehenago sartu nire fardelak, orduan eta erosoago sentituko naiz.

Ezezagunak galtzak eta eskularruak aldatu zituela ohartu zen ikusle anonimo bat.

— Zauririk bai, jauna? —galdetu zion Fearen-sidek Asko sentitzen dut txakurrarena.

— Ez, ez da ezer —erantzun zion ezezagunak ez dit azala urratu. Baina sar itzazue fardel horiek, bizkor.

Eta, geroago Hallek esan zuenez, ezezagunak birao egin zuen bere golkorako.

Eskatu bezala lehenengo saskia egongelara eramanez orduko, ezezaguna saski gainera makurtu eta trasteak ateratzen hasi zen, grina biziz, Hall andrearen alfonbra lastoz beteta utziko zuela kontuan hartu gabe lasto guztia lurrean barreiatuz. Saskitik botilak ateratzen hasi zen: hautsez beteriko botilatxo mozkoteak; likido zuriz zein kolorekoez beteriko botila txiki luzaxkak; botila urdin ildaskatuak, *Pozoia* etiketa zutenak; botila gorputz-lodi eta lepo-estuak; beira berdezko botila handiak; beira zurizko botila handiak; beirazko tapoiak zituzten botilak, eta beira esmerilatuzkoak; kortxo finak zituzten botilak; botila tapoidunak; zurezko tapoiak zituzten botilak; ardo botilak; olio eta ozpin botilak. Ilaran ezarri zituen denak arasan, tximinia gainean, leiho azpiko mahaian, lurrean, apalategian...

bazter guztietan. Bramblehursteko botikan ere ez zen hainbeste botila izango. Hura zen, hura, ikuskizuna! Botilez beteriko saski bat bestearen atzetik, eta haiek hustu zirenerako lastoz beterik mahaia. Botila haiez gainera saskietatik atera ziren gauza bakarrak saio-hodi batzuk eta kontu handiz bildutako balantza bat ziren.

Saskiak hustu ondoren, ezezaguna leihora hurbildu eta lanean hasi zen, ezeri erreparatu gabe: ez han-hemen sakabanaturiko lastoari, ez tximinia erdi itzaliari, ez pasilo erdian utzitako liburu-kaxari, ezta gelara igo zizkioten kutxei eta gainerako fardelei ere.

Hall andreak jatena eramanean zionean buru-belarri lanean ari zen ezezaguna, botiletatik saio-hodietara tantak isurtzen; ez zen andrea sartu zela konturatu, harik eta hark lurreko lasto gehiena bildu eta, lurra nola zegoen ikusirik, erretilua indar handiz mahaian utzi zion arte. Ezezagunak burua apur bat jiratu, baina lehen-gora itzuli zuen berehala. Andrea betaurrekoak erantzita zituela ohartu zen; aldean zituen, mahai gainean. Haren betzuloak inoiz baino sakonagoak iruditu zitzaizkion. Ezezagunak

berriro betaurrekoak jantzi, burua atzera jiratu eta aurpegira begiratu zion. Andrea demandan hastear zen lurreko lastoagatik, baina ezezagunak aurea hartu zion.

— Eskertuko nizuke sartu aurretik atea jotzea —esan zion beti erabili ohi zuen haserre biziko ahots bitxiaz.

— Jo dut, baina...

— Joko zenuen. Baina nire ikerlanetan..., luzagabe eta ezinbestean burutu behar ditudan ikerlan hauetan, eragozpenik txikiena ere, atearen kirrinka bera... Zera eskatu nahi nizuke...

— Noski, jauna. Atea kixketaz itxi dezakezu, hala nahi baduzu eta nahi duzun guztietan.

— Ideia ona da —erantzun zion ezezagunak.

— Eta lastoa... faborez...

— Zaude lasai. Lastoak eragozpenik sortzen badizu jar ezazu nire kontuan.

Eta madarikazio moduko hitz batzuk esan zituen andreari begira.

Itxura bitxia, beldurgarria zuen han erdian zutik ezezagunak, esku batean botila bat eta bestean saio-hodi bat zuela. Etxekoandrea larritu egin zen; emakume kementsua zen, ordea.

— Ondo da. Zenbat iruditzen zaizu, orduan...

— Txelin bat. Jar ezazu txelin bat. Nahikoa izango al da horrekin?

— Nahikoa —esan zuen Hall andreak, eta mahai-oihala zabaldu zuen Zu konforme bazau-de, noski...

Ezezaguna atzera jiratu eta andreari bizkar eman ez eseri zen.

Atea giltzaturik zuela jardun zuen lanean arratsalde osoan eta, Hall andreak esan zuenez, isilik aritu zen ia denbora guztian. Halako batean, ordea, zarata bat entzun zen, botilek elkar jotzean egiten dutena bezalakoa, norbaitek mahaian kolpea jo eta botilak lurrera bota eta hautsi balitu bezala. Gero urrats arin batzuk entzun ziren gelaren alde batetik bestera. «Zerbait gertatu zelakoan edo», Hall andrea ate alborara hurbildu eta entzuten gelditu zen, atea jotze-ara ausartu gabe.

— Ezin dut jarraitu! —entzun zion ezezagunari Ezin dut jarraitu! Hirurehun mila! Laurehun mila! Izugarritzko pila! Eta nik amua irentsi! Bizitza osoa eman nezake honela...! Pazientzia, pazientzia, arren...! Inozo eta gezurti alaena!

Zapata hiltzedun batzuen hotsa entzun zen tabernako harlauzetan. Hall andreak bakarrikzeta entzuteari utzi behar izan zion, ez pozik, ordea. Ate ondora itzuli zenean isilik zegoen gela: aulkiaren karraskak eta, tarteka, botilen beiraren kraskak soilik entzuten ziren. Bukatua zen bakarrikzeta: lanean ari zen ezezaguna.

Tea eraman zionean beira puska batzuk ikusi zituen gelaren bazter batean, ispilu ahurraren azpian, eta urre koloreko orban bat, arduragabe garbitua. Hura ere gogorazi egin zion bezeroari.

— Jar ezazu nire kontuan —esan zuen zabar ezezagunak Baina, Jainkoaren izenean, ez ieza-dazu trabarik egin. Kalteren bat egingo banu, jar ezazu kontuan.

Eta aurrean zuen koadernoko zerrenda bat aztertzen hasi zen.

— Gauza bat esango diat —esan zuen Fearnsidek ahapeka. Arratsa zen, eta lping Hangerko garagardotegi txikian ziren.

— Zer? —galdetu zion Teddy Henfreyk.

— Esaten ari haizen morroi hori, nire txakurak kosk egin diona... Ba, nik uste diat gizon hori beltza dela. Zangoak behintzat beltzak ditik.

Haren galtzen eta eskularruen azpian zer zegoan ikusi nian. Eta arrosa koloreko zerbait ikusi behar nian, ezta? Ba, ez. Beltza zuan den-dena. Nire kapelua bezain beltza, horratx!

— Alajaina! —esan zuen Henfreyk Hori duk gauza harrigarria. Sudurra arrosa kolorekoa dik ba, pintatua zirudik eta!

— Egia duk —Fearensdidek Ikusita zeukeat. Badakik nik zer uste dudan? Gizon hori kolore askotakoa dela, Teddy. Beltza toki batzuetan, eta zuria beste batzuetan... Eta horretaz lotsatuta dagoela. Mulatoa edo izango duk, baina koloreak zatika agertuko zaizkiok, nahastuta agertzeko orde. Horrelako kontuak entzun izan ditiat. Zaldi batzuei ere berdin gertatzen zaiek, badakik.

4.

CUSS JAUNAREN ETA EZEZAGUNAREN ARTEKO SOLASALDIA

Zehatz-mehatz kontatu dut ezezaguna Ipin-gera iritsi zeneko pasarte, haren etorrerak herrian sortu zuen harridura uler dezan irakur-leak. Baina bi gertaera xelegebre alde batera utzi-rik, jaialdia ospatu zen eguna arte ez zen ezer nabarmenik gertatu ezezagunaren egonaldian. Etxeko gora-beherak zirela eta, hainbat istilu izan zituen Hall andrearekin; baina apirilaren bukaera arte, diru falta nabaritzen hasi zitzaion arte, ezezagunak dirua emanez isilarazi zuen etxekoandrea. Hall jauna ez zegoen ezezaguna-rekin gustura eta, hari buruz ezer esatera ausar-tzen zenean, begi-bistatik lehenbailehen kendu nahi zuela esaten zuen. Dena dela, Hallek ondo agerian uzten zuen ezezagunak gogaitu egiten zuela, hark sortzen zion atsekabea arrandiaz ezkutatzeko egiten zituen ahalegin eskerga

haiekin eta ezezagunaren albotik ahal bezain pronto alde eginez.

— Egon uda ailegatu arte —esaten zion zuhur Hall andreak artixtak etortzen hasi arte. Orduan ikusiko dugu. Bera nazkante xamarra dela, bai; baina, garaiz ordaindutako kontua garaiz ordaindutako kontua da. Zuk nahi duzuna esango duzu baina...

Ezezaguna ez zen mezatara joaten, eta igande eta astegunen artean ez zuen inongo bereizketarik egiten, ezta janzkeran ere. Nahierara lan egiten zuen, Hall andreak zioenez. Batzuetan goiz jaitsi eta lanean aritzen zen etengabe. Beste batzuetan, berriz, berandu jaiki eta gelan atzera eta aurrera ibiltzen zen, bere buruarekin ordu luzeetan hizketan eta erretzen, edo sutondoko eserlekuan lo-kuluxkak egiten. Herriaz haraindiko ezerekin harremanik ez zuen. Eta izaera, beti bezala, aldakorra zuen; oro har, tentsio lazgarri baten mendean bizi den gizon baten moduan portatzen zen, eta behin edo bitan trasteak zartatu, hautsi edo bota izan zituen, nerbioak lehertuta. Denik eta haserre bizienak hartuta bizi zelaematen zuen. Bakarrik hitz egiteko gero

eta ohitura handiagoa hartu zuen, baina Hall andreak arretaz entzuten bazion ere, ez zien tankerarik hartzen haren hitzei.

Egunez gutxitan irteten zen; iluntzetan irteten zenean, burutik oinetara estalirik irteten zen beti, hotz egin ala bero egin, eta bide bakartietan edo zuhaitz eta ezponden itzaletan ibiltzen zen. Haren betaurreko handiek eta kapelua-ren hegaltetik ikusten zen mamu-aurpegi bendatuak, ilunpetik irteten zirenean, larridura sortu ohi zieten etxerako bidean zihoazen langileei. Teddy Henfrey bera, Scarlet Coatetik bederatzi eta erdietan balantzaka irten zen gau batean, ikaratu egin zen tabernako atea zabaldu eta taberna barnetik zetorren argitan ezezagunaren kuia itxurako burua (kapelua eskuan baitzerman) ikusi zuenean. Mamuekin amets egin ohi zuten harekin topo egiten zuten haurrek. Ezin esan ezezagunak haurrei zien gorrotoa haurrek hari ziotena baino handiagoa zenik, edo alderantziz; baina izan, nabarmena zen elkarrenganako ezinikusia.

Itxura horrekin ez da harritzekoa lping beزالako herri batean guztien ahotan ibiltzea. Haren

zereginari buruzko iritzia desberdinak zeuden. Hall andreak oso sentibera zirudien gai honi zegokionean: hartaz galdegiten ziotenean bisitaria «ikertzaile esperimentalak» zela erantzuten zuen, silabak kontu handiz ebakiz, tranpa batean eroriko ote zen beldurrez bezala. Ikertzaile esperimentalak izatea zer zen galdetzen ziotenean, berriz, larderiaz erantzuten zuen jende ikasiak ondo asko zekiela zer zen hori, eta ezezagunak «aurkikuntzak egiten» zituela esaten zuen ondoren. Istripu bat izan zuela zioen andreak, eta horregatik galdu zuela aurpegiko eta eskuetako kolorea, eta gizonak, hain sentibera izaki, ez zuela inor konturatzerik nahi.

Andrea aurrean ez zegoenean ordea, justiziatik ihesi zebilen hiltzaile bat zela zioten gehienek, poliziak ez harrapatzeko mozorrotuta ibiltzen zela. Ideia hau Teddy Henfreyri otu zitzaion. Dena dela, otsailaren erditik edo amaieratik ez zen izan hilketa esanguratsuren berririk. Gould jaunak, Eskola Nazionalako irakasle laguntzailerak, asmatuiko teoriaren arabera, mozorrotuta zebilen anarkista bat zen kanpotarra, eta leherkariak prestatzen aritzen zen. Denbora gelditzen

zitzaion tarteetan kasu hura ikertzeko ardura hartu zuen Gould jaunak. Ikerketa horiek ezezagunarekin topo egiten zuenean hari adi-adi begiratzera edo hura inoiz ikusi ez zuen jendeari galderak egitera mugatzen ziren. Ez zuen sekula ezer aurkitu.

Beste batzuen iritzia Fearenside jaunaren teorian oinarritua zen; ezezagunak gorputz orbanduna edo antzeko zerbait zuela onartzen zuten haiek. Silas Durganek, adibidez, honela zioen: «bere burua ferian erakutsiko balu berehalaxe aberastuko litzateke»; eta teologoarena eginez, dohain bakarreko gizonarekin alderatzen zuen ezezaguna. Beste batzuek ezezaguna ero inozo bat zela esanez argitu nahi zuten gaia. Teoria honen abantaila zen edozein gertakari bitxi azaltzeko erabil zitekeela.

Talde nagusi horien artean baziren zalantzak zituztenak eta baita teoria bakoitzetik zerbait hartzen zutenak ere. Sussex aldean ez dira oso sineskoiak, eta apirilaren hasierako gertakariak jazo arte ez zuten pentsatu beren herrian naturaz gaindiko zerbait gertatzen ari zenik. Eta

orduan ere, herriko atsoen ipuinak zirela esaten zuten.

Ipingeko biztanle gehienak ordea, ezezagunaz pentsatzen zutena pentsatu, bat zetozen harekiko adeitasun ezean. Haren izaera sutsua hiriko intelektualentzat ulergarria izan bazitekeen ere, txundigarria zen Sussexko herritar patxadatsuentzat. Ezezagunak tarteka egin ohi zituen keinu urduri haiek; arratsetako bat-bateko barealdia, kantoi ezkutuetan agertzera eramaten zuena; jakin-minez galdetzen zionari ematen zizkion erantzun txar eta bidegabeak; ateak itxi, pertsianak jaitsi eta kandelak eta lanparak itzalita ilunbean egoteko zuen ohitura... Nork onartu hori guztia? Herrian pasatzen ikusten zutenean jendea alboratu egiten zen, eta haren paretik igaro ondoren gazte adar-jotzaillek berokiaren lepoak jaso, kapeluaren hegala jaitsi eta atzetik joaten zitzaizkion, haren taxu ezkutua antzeratuz. Garai hartan ospe handia hartu zuen *Mamu gizona* kantuak; Satchell andereñoak eskolako kontzertu-aretoan kantatu zuen behin (elizako kriseiluetarako dirua biltzeko kontzertuaren egunean hain zuzen), eta harrezkero

herriar bat edo bi elkartu eta ezezaguna haien albotik igarotzen zenean norbaitek kantu haren ahapaldi bat edo gehiago jotzen zituen txistuka, apal batzuetan, aho betean besteetan. Haurrek ere «Mamu gizona» garrasi egin eta lainezak hartuta korrika ihes egiten zuten.

Cuss medikua jakin-nahiez zebilen. Ezezagunaren bendek ikusmin profesionala piztu zioten, eta haren mila eta bat botilez esaten zenaren inbidiatan zegoen. Apirila eta maiatza ezezagunarekin mintzatzeko aitzakia bila igaro zituen; eta Mendekoste aldera joan zitzaion, azkenik, jakin-minak erre-erre eginda, herrian erizain bat hartzearren zabaldutako diru-bilketaren aitzakian. Harrituta gelditu zen Hall jaunak bezeroaren izenik ere ez zekiela ikustean.

— Eman zuen izena —esan zuen Hall andreak, gezur biribila esan ere baina ez nion ondo aditu.

Zerbait asmatu behar, eta horixe asmatu zuen, berari ere zentzugabea iruditzen baitzitzaion bezero baten izena ere ez jakitea.

Cussek egongelako atea jo, eta sartu zen.

Birao bat entzun zen barrutik.

— Barkatu horrela sartzea —esan zuen Cussek. Baina atea itxi zen eta Hall andreak ezin izan zuen elkarriketa entzun.

Ondorengo hamar minutuetan ahots-zurru-murruak entzun zituen. Gero harridurazko oihu bat, oin-hotsak, albo batera botatako aulki baten zarata, algara sor bat eta ate aldera zihoazen urrats bizkor batzuk. Cuss jauna agertu zen, aurpegia papera bezain zurbil eta besagainetik atzera begira. Atea irekita utzi zuen, eta Hall andreari begiratu ere egin gabe ezkaratza zeharkatu eta sarrerako mailak jaitsi zuen. Hall andreak haren pausoak espaloian nola urruntzen ziren entzun zuen. Eskuan zeraman Cussek kapelua. Etxekoandrea ate aurrean gelditu zen, egongelako ate zabalduari begira. Ezezaguna barrez ari zela eta haren urratsak aterantz zihoazela iruditu zitzaion. Andreak, ordea, ezin izan zion handik aurpegia ikusi. Gero egongelako atea kolpetik itxi eta dena isilik gelditu zen.

Herri guztia zeharkatu eta Bunting erretorea-renera joan zen Cuss.

— Erotuta al nago? —hasi zitzaion Cuss aztoratuta, haren langela apalean sartu orduko Erotuta nagoela iruditzen al zaizu?

— Zer gertatu da? —galdetu zion erretoreak, hurrengo sermoirako amoniten orriak prestatzen zituen bitartean.

— Ostatuko gizon hori...

— Bai?

— Emaidazu edateko zerbait —esan zion Cussek, eta eseri egin zen.

Jerez ardo merke apur bat hartuta —huraxe zen erretore zintzoak eskura zuen edari bakarra bere onera etorri zenean ezezagunarekin izandako solasaldia kontatzen hasi zen.

— Sartu naiz —esan zuen arnasestuka eta erizaina hartzeko diru-laguntza eskatu diot. Ate aurrean agertu naizenean patriketan sartu ditu eskuak; patxadan zegoen eserita. Hasperen egin du. Esan diot banuela zientziez ardura handia zuen aditzea. Halaxe dela esan dit. Hasperen egin du berriro. Denbora guztian jardun du hasperenka; izugarrizko katarroa harrapatu du, nonbait. Jakina, beti horrela estalita ibiltzen bada! Diru-bilketaren berri eman diot, begiak zabal-

zabal eginda. Botilak, kimikakoak, bazter guztietan. Balantza bat; saio-hodi batzuk, bakoitza bere euskarrian; eta mitxoleta usaina. Ea laguntzarik emango zigun. Pentsatuko zuela. Horretan, ikerketak egiten ari den galdetu diot zuzenez. Hala ari dela. «Ikerketa luzeak?» Haserretu egin zait. «Ikerketa tamalgarri luzeak» erantzun dit sutan. «Ene bada!» esan dut. Eta bere haserre guztia kanporatu du. Lehertzeko zorian egongo zen gizona, eta nire galderak leherrarazi du nonbait. Formula bat idazten ari omen zen, balio handiko formula bat; ez dit esan zertarako. «Botika-formula bat akaso?» «Zoaz pikutara. Zer arraiotara etorri zara?» Barkatzeko eskatu diot. Duintasunezko hasperen bat eta eztula. Aurrera jarraitu du kontakizunarekin. Formula irakurri zuela. Bost osagai. Papera utzi eta burua atzera jiratu omen zuen. Baina, orduan, haize-bolada bat sartu zen leihotik. Karraska bat, fris-fras bat. Gelako tximinia pizturik zuela ari zela lanean, hala esan du. Distira bat, eta han joan omen zen formula, suak hartuta tximinian gora. Papera tximinian gora desagertzera zihoa-la jauzi egin omen zuen harrapatzeko. Eta... ene!

Besoa patrikatik atera du kontatzen ari zena hobeto azaltzeko.

— Eta?

— Han ez zela eskurik, mauka hutsa baka-
rrik. Jaungoiko maitea! «Hori okerreria duena
gizajoak besoan!» pentsatu dut. «Artelazkizko
esku bat edo erabiliko du, eta orain kenduta edu-
kiko du, nonbait.» Baina oso gauza bitxia gerta-
tzen zela konturatu naiz. Zer demontrek eusten
zion maukari tente eta zabalik, barruan ezer ez
bazuen? Zeren han barruan ez zegoen ezer, zin
dagizut. Ezer ere ez, besondoraino behintzat, ez.
Ondo asko ikusi diot mauka barrua, ukalondorai-
no. Argi izpi bat sartzen zen oihalaren urratu
batetik. «Jaungoiko maitea!» esan dut. Bera isil-
du egin da. Bere betaurreko handiekin begiratu
du: niri lehenik, eta maukari gero.

— Eta?

— Hori da guztia. Ez du tutik esan; haserre
begiratu dit eta mauka patrikan sartu du atzera.
«Esaten ari nitzaizun bezala», esan du, «formula
erretzen ari zen...» «Nola demontre», galdetu
diot, «mugi dezakezu mauka huts hori?» «Mauka
hutsa?» «Bai,», erantzun diot, «mauka hutsa.»

«Mauka hutsa diozu? Mauka hutsa ikusi duzu?»
Eta zutitu egin da. Neu ere bai. Nigana hurbildu da poliki-poliki, nire ondoan geratu da. Hasperen maltzurra egin du. Ni geldi-geldirik geratu naiz, baina zaude ziur haren buru bendatua eta betaurreko handiak, horrela hurbiltzen ikusirik, edonor ikaratzeko modukoak direla. «Mauka hutsa dela diozu?», esan du berriro. «Hori da.», erantzun diot. Orduan, mauka patrikatik atera du, oso poliki, niri berriro erakusteko bezala. Oso-oso mantso atera du. Begiratu egin diot. Mende bat bezain luzea iruditut zait une hura. «Ikusten?», esan dut ahotsa zolituz, «Hor barruan ez dago ezer». Zerbait esan behar nuen. Bildurtzen hasia nintzen. Maukaren barrualdea garbi-garbi ikusten nuen. Orduan mauka nigana luzatu du, mantso-mantso, horrela, atorraren eskumuturra nire aurpegitik sei hatzera geratu den arte. Hori da bildurra mauka bat horrela hurbiltzen zaizula ikustean! Eta gero...

— Zer?

— Zerbaitek, hatz baten moduko zeraren batek, atximur egin dit sudurrean.

Bunting barrez hasi zen.

— Han ez zegoen ezer, ordea! —esan zuen Cussek, «han» hitza azpimarratuz Zuk barre egin, bai... Baina hain asaldatua nengoen... eskumuturrari jo, gorputza jiratu, gelatik irten eta han utzi dut...

Cuss isildu egin zen. Bistakoa zen haren ikara egiazkoa zela. Inguru guztira begiratu zuen izuak hartuta, eta erretoreak emandako jerez kaxkar bikain hartatik bigarren kopa hustu zuen.

— Eskumuturra jo diodanean —jarraitu zuen zera... besoa jotzen niola iruditu zait. Baina han ez zen besorik! Besoaren arrastorik ez!

Bunting jauna pentsatzen jarri zen. Mesfidantzaz begiratu zion Cussi.

— Istorio harrigarria —esan zuen zuhur. Zinez hunkituta zegoen Istorio harrigarria benetan —bota zuen epai bat bezala.

5. **ERRETORE-ETXKO LAPURRETA**

Erretore-etxeko lapurretaren xehetasunak erretoreari eta haren emazteari esker jakin ahal izan ditugu. Mendekoste ondoko ordu txikietan gertatu zen, Ipingen Klubaren ospakizunak egiten diren egunean, hain zuzen. Antza denez, Bunting andrea eguna argitu aurretik izaten den lasaialdian asaldaturik esnatu zen, logelako atea zabaltu eta atzera itxi zelako irudipenarekin. Ez zuen senarra berehala iratzarri, baina ohean eserita gelditu zen adi-adi. Oinutsik egindako urrats-hotsak entzun zituen, ttap, ttap, ttap, alboko gelatik irten eta pasiloan zehar zurubi-rantz zihoazela. Entzundakoaz jabetu zenean, Bunting apaiz jauna esnatu zuen ahal bezain apal. Erretoreak ez zuen argirik piztu; baina jantzi zituen betaurrekoak, emaztearen bata eta bainuko zapatilak, eta pasilora irten zen, zer ote zen entzutera. Lehenengo solairuko langelatik

zetozen zarata batzuk entzun zituen garbi-garbi, eta geroxeago doministiku handi bat.

Gelara itzuli, hartu eskura zuen arma bakarra —tximiniako bertzuna eta zurubiko mailak jaitsi zituen, ahal zuen bezain isilik. Bunting andrea haren atzetik irten zen tranpalera.

Goizeko laurak inguru izango ziren, eta gaueko iluntasun minena argitzen hasia zen ordura-ko. Ezkaratzean bazen halako argi distira bat, baina langelako ateaz bestalde dena beltz-beltz ikusten zen. Lasai zegoen dena, Bunting jaunaren urratsekin mailek ateratzen zuten kurrinka apala eta langelako zurrunbilo ahula izan ezik. Horretan, kolpe bat entzun zen; tiradera bat zabaldu zen, eta paper-hotsa antzeman zuten. Madarikazio bat entzun zen, pospolu bat piztu zen eta haren argi horiak langela argitu zuen. Bunting jauna ezkaratzean zegoen; atearen zirrikitutik idazmahaia eta tiradera irekia ikusi zituen, eta idazmahaiaren gainean kandela bat, piztuta. Baina ezin izan zuen lapurrik ikusi. Han gelditu zen ezkaratzean, zer egin ez zekiela. Bunting andrea, zurbil-zurbil eta oso urduri, erre-torearen atzetik jaitsi zen poliki-poliki. Gauza

bakar batek ematen zion Bunting jaunari aurrera egiteko kementa: lapurra herritarren bat zelako usteak.

Erretoreak eta emazteak txanpon-hotsa entzun zuten; lapurrak etxeko urre-hornidurak aurkitu zituela konturatu ziren. Bi libra eta hamar txelin guztira, soberano erdiko txanponetan. Hartaz jabeturik, zerbait egitera erabaki zen Bunting jauna. Tximiniako bertzunari gogor eutsi eta gelan sartu zen, Bunting andrea atzetik zihoakiola.

— Geldi hor! —oihu egin zuen zorrotz Bunting jaunak. Baina harri eta zur eginda isildu zen. Gela hutsik zegoen, itxura batean.

Hala ere, han barnean norbait mugitzen ari zela iruditzen zitzaion; ez zuten zalantzarik. Minutu erdiz edo han gelditu ziren, arnasestu batean. Gero Bunting andreak gelaren beste aldeko bionbo atzean begiratu zuen. Bunting jaunak, emazteak izan zuenaren tankerako bulkada bati jarraiki, idazmahaiaren azpia miatu zuen. Ondoren andreak leihoko mihiseak astindu zituen, eta erretoreak tximiniatik gora begiratu eta bertzuna astindu zuen. Bunting andreak

paperontzia miatu zuen gero, eta ikatz-ontzia ireki zuen Bunting jaunak. Hori egin ostean eten bat egin zuten; elkarri begira gelditu ziren, begiekin elkarri galdezka bezala.

— Esango nuke... —esan zuen Bunting jaunak Kandela! Nork piztu du?

— Tiradera! —esan zuen emazteak Dirurik ez dago!

Ate aldera joan zen azkar-azkar.

— Bai gauza harrigarriak!

Doministiku baten oihartzuna iritsi zitzaien pasilotik. Korrika irten ziren, baina danbateko batez itxi zen orduantxe sukaldeko atea.

— Ekarri kandela! —esan zuen Bunting jaunak, eta emaztearen aurretik abiatu zen. Kiske-tak nola ixten ziren entzun zuten biek.

Sukaldeko atea ireki zutenean atzeko atea irekitzen zela ikusi zuten arraskaren ertzetik. Egunsentiko argitasunean ateaz bestaldeko lora-tegiko itzalak ikusten ziren. Baina inor ez zela atetik irten esango zuen erretoreak. Atea zabaldu zen, baina danbada batez itxi zen berehala. Bunting andreak langelatik eramandako kande-

laren argia dardaratu zen. Minutu bat edo bi igaro ziren sukaldean sartzera erabaki aurretik.

Hura hutsik zegoen, ordea. Atzeko atea eta sukaldea itxi eta arraska eta sukal-ostea miatu zituzten. Eta satora jaitsi ziren azkenik. Baina bila eta bila aritu baziren ere, ez zuten arimarik aurkitu etxean.

Barregarri jantzita, etxeko lehenengo solairuan gertatutakoarekin erabat liluraturik eta ordurako sobera zuten kandela baten argitan aurkitu zituen egunaren lehen brintzak erretorea eta haren emaztea.

6.

ALTZARIAK EROTU ZIRENEKOA

Ondoko pasartea Mendekoste-igandeko lehen orduetan gertatu zen. Goiz hartan, Hall senar-emazteak ohetik jaiki eta isil-isilik sotora jaitsi ziren, Millie egunpasa bidali aurretik. Bien arteko kontua zen sotoan egiteko zutena; beren garagardoaren astuntasun espezifikoarekin zuen zerikusia. Sotoan sartu bezain laster, arkasats botila logelan ahaztu zitzaiola konturatu zen Hall andrea. Eta egiteko hartan andrea baitzen iaio eta jakitunena, Hall jauna igo zen, zintzo-zintzo, botilaren bila.

Tranpalera iritsi zenean harritu egin zen ezezagunaren gelako atea erdi irekita zegoela ikustean. Baina bere gelaraino jarraitu zuen. Emazteak agindutako tokian aurkitu zuen botila.

Botila hartuta behera zihoala ordean, sarrera-atoko kisketak ere irekita zeudela ohartu zen, atea maratilaz bakarrik zegoela itxita. Halako buru-argialdi batean, gora-behera hura ezezagunaren atekoarekin eta Teddy Henfreyren teorie-

kin lotu zuen. Hallek ondo gogoan zuen nola aurreko gauean berak kandela eutsi zuen Hall andreak kisketak ixten zituen bitartean; hartaz jabetuta, gelditu egin zen, ahozabalik. Eta botila artean eskuan zeramala, zurubian gora igo zen atzera. Ezezagunaren atea jo zuen. Inork ez zion erantzun. Berriro jo, atea bultzatu eta barrura sartu zen.

Berak espero bezala zegoen dena. Ohea eta gela hutsik. Baina harrigarriena zen —bera beza-lako adimen-labur batentzat ere harrigarria eserlekuan eta ohearen hanketan zeudela bezeroaren arropak, hari ikusi zizkioten arropa baka-rak, eta bendak. Hegal zabaleko kapelua ere han zen, ohe-adar batean ia iotasun handiz jarri-ta.

Hallek, gelan zegoela, emaztearen ahotsa entzun zuen soto barrenetik. Silabak janez eta azken hitzei galdera doinu garaia emanaz ari zitzaion, Sussex mendebaldeko nekazariak ezi-negona adierazteko erabiltzen duten doinuan alegia:

— George! Ze demontre, ez dakizu zein esaten dizudan ala?

Hori entzunda, Hall atzera jiratu eta korrika joan zen emaztearengana.

— Janny —esan zion sotoko zurubiko esku-deletik egia da Henfreyk esaten duena. Ez dago bere gelan, ez dago! Eta sarrera-ateko kixketak irikita daude.

Hasieran Hall andreak ez zuen tutik ulertu, baina senarrak zer zioen konturatu zenean, gela hutsa bere begiez ikustera joatea erabaki zuen. Hall aurretik abiatu zen, artean botila eskuetan zuela.

— Bera ez dago —esan zuen baina arropak bai. Zer demontre dabil hori arropak hemen lagata? Bai gauza xelebrea!

Geroago jakin zenez, sotoko zurubian gora zihoazela sarrerako atea zabaldu eta itxi zela uste izan zuten biek; baina atea itxita zegoela, han inor ez zebilela ikusi zuten biek, eta ez zioten elkarri ezer esan. Hall andreak aurrea hartu zion pasiloan senarrari, eta haren aurretik igo zen. Zurubian zeudenean norbaitek doministiku egin zuen. Hallek, emaztea baino sei bat maila beherago zegoenez, emaztearen doministikua entzun zuela pentsatu zuen. Andreari, berriz,

senarraren aurretik zihoanez, Hallek doministiku egin zuela iruditu zitzaion. Atea parez pare zabaldu eta han gelditu zen Hall andrea gela aztertzen.

— Hau da hau! —esan zuen.

Hasperen bat entzun zuen, edo hala iruditu zitzaion behintzat; burua atzera jiratu zuenean harrituta gelditu zen, Hall handik bi metrora baitzegoen, zurubi buruan. Baina berehala hurbildu zitzaion. Andreak, aurrerantz makurtuta, eskua burukoaren gainean jarri zuen, eta jantzien azpian gero.

— Hotzak —esan zuen Ordu bete edo gehiago da jeiki dela.

Horretan, oso gauza harrigarria gertatu zen: ohe-jantziak mugitzen hasi, mendixka moduko bat eratu eta ohearen hanka azpira erori ziren. Esku batek erditik oratu eta bazter batera jaurti balitu bezala egin zuten. Ezezagunaren kapeluak ohe-adarretik jauzi egin, airean zilipurdi biribil handi bat egin eta Hall andrea aurpegian jo zuen. Belakiak ere konketatik jauzi egin zuen, kapelua bezain bizkor; eta eserlekuak, berriz, galtzak eta jaka alde batera bota, ezezagunare-

naren tankerako algarra lehor bat egin, bere lau hankeztan Hall andrea apuntatu eta, punteria zorrozturekin edo, andrearen gainera jauzi egin zuen. Ostalaria, oihu egin, eta atzera jiratu zen, baina eserlekuaren hantxe bizkarrean jo zuten, poliki baina tinko, eta gelatik bidali zituen andrea eta Hall. Atea kolpe batez itxi eta giltzatu zen. Eserlekuak eta oheak garaipen-dantza moduko bat egin zuten; gero isiltasuna egin zen.

Hall andrea konortea erdi galduta gelditu zen senarraren besoetan, zurubiko tranpalean. Eginahalak eginda, azkenean, Hall jaunak eta Milliek —nagusiarren deialarrekin esnatu baitzen lortu zuten andrea lehenengo solairura jaistea, horrelako ezbeharretan erabili ohi zituzten erremedioak har zitzen.

— Ixpirituak, to! —esan zuen Hall andreak Ziur nago ixpirituak direla. Haien gaineko makinatxo bat gauza letuak ditut periodikoetan eta. Mahaiak eta aulkiak saltoka eta dantzari!

— Hartzazu beste tragoxka bat, Janny —esan zion Hallek Honek piztuko zaitu eta.

— Ez laga sartzen! —esan zuen Hall andreak Ez dadila gehiago sartu! Banengoen, ba, ni...

Jakina. Antiojoen atzean izkututzen dituen begi horiekin eta buru bendatu horrekin, eta igandetan mezetara joan gabe! Eta hainbeste botila! Inork behar al du, ba, horrenbeste botila! Altzariak sorgindu dizkit... Nire altzari xahar kuttunak! Hara, aulki horretantxe esertzen zen ama ni txikia nintzenean. Eta ez zait, ba, oldartu orain...! Begira, pentsatze hutsarekin...

— Hartzazu pixka bat gehiago, Janny —esan zion Hallek Nerbioak dantzan dituzu.

Eta Millie pareko espaloira bidali zuten, goizeko bostetako eguzki urre kolorearen argitan, Sandy Wadgers errementaria esnatzera.

Hallek goraintziak bidali eta etxeko altzariei zerbait gertatzen zitzaiela adierazi zion. Ea ostatura etorriko zen. Wadgers jauna jakituria handiko gizona zen, baliabide askokoa. Goitik behera aztertu zuen kasua.

— Sorginkeria bat edo izango dela egingo nuke —iritzi zion Sandy Wadgersek Ferrak behar izaten dira horrelako jendilajetik babesteko.

Oso kezkatuta iritsi zen ostatura. Goiko gelara eraman nahi izan zuten berehala, baina, antza zenez, hark ez zuen presa handirik. Nahiago izan

zuen gertatutakoaren kontakizuna pasiloan bertan entzun. Horretan, Huxterren laguntzailea agertu eta tabako-dendako pertsianak igotzen hasi zen. Hari ere deitu zioten, eztabaidan parte har zezan. Eta, jakina, handik gutxira Huxter jauna bera agertu zen. Anglosaxoniarrak gobernu parlamentarioak duten dohaina erakutsi zuten; hitz asko, baina erabaki sendorik ez.

— Lehen-lehenik entzun ditzagun xehetasunak —esan zuen Sandy Wadgers jaunak Ikus dezagun ondo egingo dugun itxita dagoen ate bat indarrez irekitzen. Izan ere, indarrez ireki gabe dagoen atea beti ireki daiteke indarrez; baina behin indarrez irekitako atea ezin daiteke gehiago indarrez ireki.

Horretan ari zirela goiko gelako atea ireki zen, berez ireki ere; txunditurik harantz begiratu zutenean ezezaguna ikusi zuten, zurubian behe-ra zetorrela; inoiz baino estaliago zegoen eta beira urdinezko begi handi haien begiradak inoiz baino gaiztoagoa ematen zuen. Zurrun eta oso poliki jaitsi zen, aurrera begira denbora guztian; pasilo guztia igaro ondoren gelditu egin zen.

— Begira horra! —esan zien.

Haren eskularruaren hatzak agindutako toki-
ra begiratu zuten denek; arkasats botila bat ikusi
zuten sotoko atearen ondoan. Bitartean ezeza-
guna egongelan sartu, atea amorru biziz itxi,
azkar eta indarrez, eta ahoa bete hortz utzi
zituen guztiak.

Atearen danbatekoaren azken oihartzunak
isildu ez ziren arte inork ez zuen ezer esan. Elka-
rri begira geratu ziren.

— Hara bestea! Horixe bakarrik behar
genuen! —esan zuen Wadgers jaunak, baina ez
zien konponbiderik eman.

— Nik, joan, eta kontuak eskatuko nizkioke
—esan zion Wadgersek Halli Eman dezala aurpe-
gia.

Etxekoandrearen senarrak denbora apur bat
behar izan zuen proposamen hura egokia zen ala
ez erabakitzeke. Azkenean, hatz-kozkorrez atea
jo, ireki, eta esan zuen:

— Barkatu...

— Zoaz pikutara! —erantzun zion ezezagu-
nak ahots ikaragarri batez Eta itxi atea irtetean.
Horrela amaitu zen elkarrizketa labur hura.

7.

EZEZAGUNAREN IKUSEZINTASUNA AGERIAN

Ezezaguna goizeko bost eta erdiak aldera Coach and Horses ostatuko egongela txikian sartu zen; han egon zen eguerdia arte, pertsianak jaitsita eta atea itxita. Hallekin gertatutakoaz gero, inor ez zen ausartu harengana hurbiltzera.

Denbora guztian baraurik egon zen. Txirrina hiru aldiz jo zuen, hirugarrenean luze eta haserre gainera, baina inork ez zion erantzun.

— Orain ikusiko dugu nork joan behar duen hemen pikutara! —esan zuen Hall andreak.

Erretore-etxean izandako lapurretari buruzko zurrumurruak iristen hasi zitzaizkien handik gutxira, eta pixkanaka atze-aurreak lotzen hasi ziren. Hall, Wadgersen laguntzarekin, Shuckleforth epaile jaunaren bila joan zen, aholku eske. Inor ez zen bigarren solairura igotzera ausartzen. Eta, beraz, inork ez zekien zertan ari zen ezezaguna. Noizean behin gelan atzera-aurrera

ibiltzen zen bizkor, eta bi aldiz entzun zituzten biraoak, paper zartatzea eta beira hautsiaren hotsa.

Kanpoan ikaraturik baina jakin-minak jota zegoen herritarren taldea gero eta handiagoa zen. Huxter andrea etorri zen; eta Mendekoste-igandez jaka beltzak eta *piqué* paperezko korbat-ak estreinatu zituzten zenbait gazte alai ere tal-dearekin bat egin eta galdera nahasiak egiten hasi ziren. Gazteen artean Archie Harker nabar-mendu zen batez ere, atarian sartu eta pertsia-na atzean zer zegoen zelatatzeke ahalegindu zelako. Ez zuen ezer ikusi, baina zerbait ikusi zuela uste izateko aitzakia eman zien besteei, eta hark egindako gauza bera egiten hasi ziren Ipingeko beste gazte batzuk.

Mendekoste-iganderik zoragarriena atera zuen; herriko kale nagusian baziren hamabi txosna edo gehiago, eta tiraleku bat; sutegi albo-ko zelaian hiru orga zeuden, hori-txokolate kolo-rekoak, eta sexu bietako gizaki ezezagun bitxi batzuk koko-jaurtiketarako txosna bat antola-tzen ari ziren. Gizonek jaka urdinak zeuzkaten jantzita, eta emakumeek mantal zuriak eta garai

hartan modan zeuden burukoak, luma astunez beteak. Woodyer, Purple Fawnekoa, eta Jagers zapataria, bigarren eskuko bizikleta zabarrak ere saltzen zituen, kalearen alde batetik bestera banderatxo nazionalak eta errege ikurrak (jubileua ospatzeko erabili izan zirenak) zintzilikatzen ari ziren...

Bitartean, ezezaguna ostatuan zen, egongelako ilunbe artifizialean, zirrikitu batetik eguzki-izpi bakarra sartzen zela. Harrezkero gose eta beldur izango zela uste dugu, baina han jarraitzen zuen bere estalki ez-eroso haietan ezkutatutik, bere betaurreko ilunen atzetik paperak arakatzen edo bere botila zikinak kraskarazten. Tarteka hitz gogorak esaten zizkien gazteei, zeren eta ikusi, ikusten ez bazituen ere, antze-man egiten zuen leihoaz bestaldetik nola zebilz-kion zelatan. Sutondoaren alboan hautsitako dozena bat botilaren beira puskak zeuden; klorina usain sarkor batek betetzen zuen airea. Orduan entzun zenari eta geroago gelan aurkitu-takoari esker jakin ahal izan dugu hau guztia.

Eguerdi aldera ezezagunak ustekabean egongelako atea ireki zuen eta tabernan ziren

hiru edo lau lagunei begira-begira gelditu zitzaien.

— Hall andrea! —esan zuen.

Eta Hall andreari deitzera joan zen norbait burumakur.

Berehala agertu zen Hall andrea, arnasestuka baina sutsu, halere. Hall kanpoan zen. Etxekoandrea egun hura noiz iritsiko irrikitan egon zen, eta erretilu txiki batean ordaindu gabeko gastuen kontua zuela agertu zen.

— Kontua nahiko duzu, noski —esan zion.

— Zergatik ez didazu gosaririk ekarri? Zergatik ez didazu bazkaririk ekarri, zergatik ez didazu erantzun txirrina jo dudanean? Airetik bizi naizela uste duzu, ala?

— Eta zuk zergatikan ez didazu kontua ordaindu? —esan zion Hall andreak Horixe da nik jakin nahi nukeena.

— Duela hiru egun esan nizun diru-igorpen bat iritsi zain nagoela.

— Eta nik duela bi egun esan nizun ez nintzela zain geratuko. Ez zara gosariaren zain egon zarelako kexu izango gero! Nire kontua bost

egunez zain egon bada, zu ere berdin-berdin egongo zara, ezta?

Ezezagunak birao labur baina gogorra bota zuen.

— Tira, tira! —entzun zen tabernatik.

— Eta bihotzetik eskertuko dizut hitz gorri horiek zure golkorako gordetzea —esan zion Hall andreak.

Ezezaguna zutik gelditu zen; urpekari hase-re baten antza zuen, sekula baino antz handiagoa. Hall andreak ezezagunari irabazi ziola iruditutuz zizaien tabernako guztiei. Eta hori erakutsi zuten ezezagunaren ondorengo hitzek ere:

— Entzuidazu, emakume zintzo horrek... —hasi zen.

— Niri ez esan «emakume zintzo» gero! —erantzun zion andreak.

— Esan dizut ez zaidala dirua oraindik iritsi.

— Zer diru eta zer diru ondo! —esan zuen Hall andreak.

— Begira! Uste dut patriketan...

— Patriketan zilarrezko soberano bat baino ez zenuela esan zenidan, ba, orain dela hiru egun.

— Bada, begira, apur bat gehiago aurkitu dut.

— Hara! —tabernatik.

— Nahi nuke jakin diru hori non aurkitu duzun —esan zuen Hall andreak.

Horrek ezezaguna mindu zuen, itxuraz. Lurra jo zuen oinaz.

— Zer esan nahi duzu horrekin? —esan zion.

— Ba, hori, jakin nahi nukeela non aurkitu duzun —esan zion Hall andreak Eta kontuak konpondu aurretik eta gosaria edo beste edozer gauza ekarri aurretik, azaldu beharko dizkidazu gauza bat edo bi, ulertzen ez ditudanak, eta inork ere ulertzen ez dituenak, eta guzti-guztiok ulertu nahi ditugunak. Jakin nahi dut zer egin diozun nire aulkiari hor goian, eta jakin nahi dut zergatik zegoen zure gela hutsik eta orain nola zauden zu barruan. Izan ere, etxe honetan ostatu hartzen dutenak atetik sartzen baitira. Etxeko legea baita. Eta zuk ez duzu hala egin; eta, orduan, sartzeko nola egin duzun, horixe jakin nahi dut. Eta jakin nahi dut...

Ezezagunak eskuak, eskularruez estaliak, altxa zituen, ukabilak itxita; berriro jo zuen lurra oinaz.

— Aski da! —esan zuen zakar, hain zakar ezen etxekoandrea isilarazi baitzuen Ezin duzu ulertu zer naizen edo nor naizen. Baina erakutsiko dizut, bai horixe!

Eraman zuen esku-ahurra aurpegira eta bendak kendu zituen. Aurpegiaren erdialdea hutsune ilun bihurtu zitzaion bat-batean.

— Tori! —esan zuen.

Etxekoandrearengana hurbildu eta zerbait eman zion; andreak, haren aurpegi eraldatuari adi-adi so zelarik, zer zen begiratu ere gabe hartu zuen. Baina ezezagunak emandakoa ikusi zuenean, oihu ikaragarri bat egin, askatu eskuarteetan zuen zera hura eta atzera egin zuen. Sudurra zen, ezezagunaren sudur arrosa distiratsua; lurrera erori zen.

Gero betaurrekoak kendu zituen, eta tabernan zirenek arnasari eutsi zioten. Kapelua kendu ondoren, bibotea eta buruko bendak kentzen hasi zen zakarkeriaz. Kosta egin zitzaion hasie-

ran. Tabernan, une batetik bestera begien aurrean agertuko zitzaienari antzeman zioten.

— Jainko maitea! —esan zuen norbaitek.

Ezezagunak benda guztiak kentzea lortu zuen azkenik.

Uste izan zutena baino are okerragoa izan zen hura. Hall andrea ahozabalik eta izu-izu eginda gelditu zen; begi-bistan zuenari garrasi egin eta sarrera-ate aldera joan zen korrika. Tabernako denak mugitzen hasi ziren. Prest zeuden ebatondo, okerreria edo bestelako edozein izugarrikeria ukigai ikusteko, baina... ezereza! Bendak eta peluka pasilotik tabernara joan ziren hegan; haiek saihesteko jauzi egin behar izan zuen baserritar kankailu batek. Harmailetan behera, batzuek besteekin estropezu egin zuten. Bitartean, azalpen ulertezinak ematen ari zen gizona; gorputz trinko eta bizia zen jakaren leporraino, handik gora, ordea,... ezereza, erabat ikusezina!

Herriko jendeak oihuak eta garrasiak entzun zituen. Kalean gora begiratu zutenean Coach and Horses ostatua bertan ziren kristau guztiak egoztenari zela ikusi zuten. Eta ikusi zuten nola

Hall andrea erori zen eta nola Teddy Henffreyk albo batera jauzi egin behar izan zuen haren gainera ez erortzeko. Gero Millieren orro izugarriak entzun zituzten: iskanbila hura zer zen ikustera sukaldetik pasilora irten eta bururik gabeko ezezagunarekin topo egin zuen neskak. Baina berehala isildu ziren oihuak.

Kalean zebiltzan guztiak ostaturantz korrika hasi ziren: gozozalea, koko-jaurtiketaren txosnako nagusia eta haren laguntzailea, zabuzaina, neska-mutilak, beren soineko dotoreenez jantzi-tako neskatxak, basagizon burugabeak, baserri-tar dotoreak eta buhame mantaldunak. Berrogei bat laguneko taldea bildu zen denbora gutxian. Gero eta jende gehiago zihoan Hall andrearen ostatu aurrera, balantzaka eta uluka eta galdezka eta bai oteka eta aholkuka. Denek batera hitz egiteko adostuta zeudela zirudien; eromen hark babel bat ematen zuen. Talde txiki bat Hall andreari laguntzera joan zen, zeharo alditxartuta jaso baitzuten lurretik. Bilkura handi bat zirudien. Lekuko baten ahotsa entzun zen beste guztien gainetik.

— Mamutzarra...!

- Zer egin du, orduan?
- Ez zuen, ba, neska kozkorra zaurituko?
- Eskuan labana hartuta oldartu zaiola uste dut.

— Bururikan ez, esan dizut. Eta ez naiz irudizko zentzuan ari; bene-benetan esaten dizut bururikan gabeko gizona dela.

— Bai zera! Magiako trikimailuren bat edo izango zen. Seguru.

— Bendak kendu ditu... Kendu egin ditu!

Jende-aldrak horma sendo bat osatu zuen, kide ausartena ostatutik hurbilago.

— Zutikan geratu da pixka batean. Nexkaren orroa entzun dut. Jiratu egin da. Gona astindu dela ikusi dut. Ezezaguna atzetik joan zaio. Hamar segundo ere ez ziren izango. Itzuli da ezezaguna, eskuetan labana eta ogi puska bat zekartzala, eta zutikan geratu da, begira bezala. Oraintxe izan da dena. Ate hartatik sartu da. Bururikan ez duela esaten dizuet! Lastima, zuek ere ikusi ez izana!

Taldean zurrumurru bat entzun zen, eta hizketan ari zenak hitzaldia eten behar izan zuen, etxe aldera asmo erabakiz zetorren talde txiki

bati sartzen uzteko. Aurretik Hall jauna zetorren, gorri-gorri eginda, kementsu; atzetik Bobby Jaffers, herriko polizia; eta azkenik, Wadgers zuhurra. Atxilotze-agindu bat zekarten.

Azken gertaeren berri nahasiak eman zizkien jendeak aho betean.

— Bururikan badu ala ez badu —esan zuen Jaffersek atxilo hartu behar dut eta hartuko dut.

Hall mailak igotzen hasi zen; zuzen-zuzenean egongelako atera joan zen. Atea zabalik aurkitu zuten.

— Bete ezazu, ba, zeure betebeharra —esan zion Hallek poliziari.

Jaffers gelan sartu zen; Hall eta Wadgers haren atzetik. Ilunbean ikusi zuten bururik gabeko gizirudia, beraiei begira, eskularruz estalitako esku batean kosk egindako ogi puska bat zuela, eta gazta puska bat bestean.

— Hura da! —esan zuen Hallek.

— Zer arraio da hau guztia? —esan zien gizirudiaren lepo gainetik iritsi zitzaien ahots hase-re batek.

— Morroi xelebre arraioa zara —esan zuen Jaffers jaunak Baina izan burudun ala izan buru-

gabe —jarraitu zuen poliziak «gorputz» da nire atxilotze-aginduan jartzen duena, eta betebeharrak bete egin behar direnez,...

— Ez zaitez nigana hurbildu! —atzerantz urrats bat eginez gizirudiak.

Ogia eta gazta lurrera bota zituen, baina Hall jaunak labana garaiz harrapatu ahal izan zuen mahai gainetik. Ezezagunak bere ezker eskuko eskularrua kendu eta aurpegira bota zion Jaffersi. Jaffers atxilotze-aginduaz zerbait esaten hasi zen, eta ezezagunari eskurik gabeko eskumuturretik eta eztarri ikusezinetik heldu zion. Ostiko bat eman zioten berna-hezurreen, minaren minez oihu eginarazi ziona, baina ez zuen harripakina askatu. Hallek Wadgersi bidali zion labana mahai gainetik irristaka. Wadgersek futboleko atezainen modura erasoari ekin eta aurretik egin zuen. Bitartean Jaffers eta ezezaguna elkar joka, zealdoka eta zabuka, Wadgers zegoen aldera zihoazen; haien bidean aulki bat zegoen, baina harekin estropezu egin eta alde batera bota zuten.

— Heldu hanketatik esan zien ahapeka Jaffersek.

Haren esana betetzera zihoala, ostiko bat eman zioten Hall jaunari saihetsetan, apur bate-rako ondoezik utzi zuena. Wadgers jauna, berriz, ezezagun burugabeak Jaffers irauli eta haren gainean igota zegoela ohartu zenean, labana hartu eta ate aldera joan zen erretiradan. Irte-tean Huxter jaunarekin eta Siddermortongo pos-tariarekin topo egin zuen: legeari eta ordenari laguntzera zetozen. Horretan, kutxa gainetik hiruzpalau botila erori eta halako usain garratz bat zabaldu zen gela guztian.

— Errenditu egingo naiz! —egin zien oihu ezezagunak, Jaffers lurrera botata zeukan arren.

Bafaka zutitu zen. Oso itxura bitxia zuen: ez zuen ez buru eta ez esku, ordurako kendua bai-tzuen eskuin eskuko eskularrua ere, ezkerrekoa bezala.

— Ez dut beste irtenbiderik! —esan zuen, negar-zotinka bezala.

Munduko gauzarik bitxiena zen hutsarte batetik irtendako ahots hura entzutea, baina Sussexko baserritarrak eguzkiaren azpiko kris-tau sorrenak dira. Jaffersek zutitu, eta eskubur-din pare bat atera zuen. Larritu egin zen.

— Hara! —esan zuen Jaffersek, zeregin haren zentzugabekeriaz oharturik Hau da zorigaitza! Ezin izango ditut erabili!

Ezezagunak besoa txalekotik atera, eta mirariz bezala askatu ziren botoiak, mauka hutsa haien paretik igaro ahala. Gero berna-hezurrari buruzko zerbait esan eta makurtu egin zen. Zapatak eta galtzerdiak txukuntzen ari zela zirudien.

— Arranopola! —esan zuen Huxterrek Ez da gizon bat! Arropa barne-hutsak dira, besterik ez. Begira! Lepoa eta arropak hutsik daude! Besoa sar dezaket barruan...

Eskua luzatu zuen, baina zerbaitekin topo egin eta atzeratu egin zuen harridurazko hasperen bat eginez.

— Zinez eskertuko nizuke hatzak begian sartuko ez bazenizkit —esan zuen, haserre, ahots etereoak Izan ere, hemen nago, oso-osorik: hemen ditut burua, eskuak, oinak eta gainerako guztia. Gertatzen dena da ikusezina naizela. Tamalgarria da, baina halakoxea naiz. Eta hori ez da lpingeko ezjakin ergel guztiek ni txikitu nahi izateko arrazoi izango, ezta?

Botoiak askatuta euskarri ikusezin batetik zintzilik zeuden jantziak eskuak gerrian jarrita zutitu ziren.

Gizon gehiago sartu ziren gelan; jendez gainezka zegoen ordurako.

— Ikusezina, eh? —esan zuen Huxterrek, ezezagunaren irain hitzei jaramon egin gabe Inork entzun al du inoiz halakorik?

— Harrigarria izango da agian, baina ez delitua. Zergatik erasotzen dit horrela poliziak?

— Et, et, et! Hori beste gauza bat da —esan zuen Jaffersek Badakit zaila dela ilunbe honetan zu ikustea, baina agindu bat dut eta xuxen-xuxen beteko dut, bai horixe! Ez nator ikusezintasuna zigortzera, lapurreta baizik. Etxe batean sartu eta hango dirua lapurtu dute.

— Eta?

— Ba, arrasto guztien arabera...

— Ergelkeriak eta zozokeriak dira horiek! —esan zuen Gizon Ikusezinak.

— Nahiago nuke hala balitz; baina aginduak ditut.

— Ondo da —esan zuen ezezagunak Errenditu egingo naiz. Baina eskuburdinik ez.

— Horrela egiten da beti —esan zuen Jaffersek.

— Eskuburdinik ez! —erabaki zuen ezezagunak.

— Sentitzen dut —Jaffersek, berriz.

Gizirudia bat-batean eseri, eta zertan ari zen inor ohartu zenerako, zapatilak, galtzerdiak eta galtzak mahai azpian desagertu ziren. Jauzi egin, zutitu berriro eta jaka erantzi zuen gero.

— Hemen da! Harrapatu! —esan zuen Jaffersek, zer gertatzen ari zen ohartu zenean. Txalekoa harrapatu zuen, baina alkandorak ihes egin zion, eta txalekoa hutsik utzi zuen Jaffersen eskutik zintzilik.

— Helduiozue! —oihu egin zuen Jaffersek Arropak erantzi ditu!

— Helduiozue! —esan, eta alkandora hegalaria segika joan zitzaizkion denak, hura baitzen ezezagunari gelditzen zitzaion gauza ikusgai bakarra.

Alkandoraren maukak Halli aurpegian kolpe bikaina jo eta haren esku irekiari atzera eragin zion, Toothsome sakristau zaharraren kontra. Hurrena, berriz, jantzia goratu, astindu, eta

besoak hustu zitzaizkion, norbait alkandora burutik erantzten ari balitz bezala. Jaffersek indarrez eutsi zuen baina ez zuen ezer lortu, alkandora barne-husten laguntzea izan ezik; gero ahoan kolpe bat eman zioten airetik; harrapakinarri eutsi ezinik, bertzuna hartu eta Teddy Henfrey indarrez jo zuen buruan.

— Kontuz! —esan zuten denek, beren buruak babestuz eta ezerezari kolpeka Eutsiozue! Atea itxi! Ez laga irteten! Harrapatu dut zerbait. Hemen dut!

Hango zaratak benetako babelak ematen zuen. Antza zenez, guztiak aldi berean ari ziren jipoiak hartzen. Sandy Wadgers, baliabide handiko gizona bera, sudurrean hartutako ukabilkada batek adimena are argitu ziola, atea zabaldu eta ihesi joan zen. Gainerakoak, haren atzetik zala-parta batean alde egin nahian, ataurrean gelditu ziren batzuk besteen gainean. Baina kolpeak ez ziren haatik amaitu. Philips unitarioari aurreko hortz bat hautsi zitzaion, eta Henfrey belarri batean min hartuta zegoen. Jaffersi ukabilkada bat eman zioten beheko masailhezurrean, baina lortu zuen *mêlée* hartan zerbait harrapatzea,

beraren eta Huxterren artean zegoen zerbait, elkarrengana hurbiltzea eragozten ziena. Bularralde gihartsu bat iruditu zitzaion, eta berehala, gizon borrokalari eta grinatsu haiek arrapaladan irten ziren jendez gainezka zegoen atarira.

— Harrapatu dut! —deiadar egin zuen Jaffersek ito beharrean, jende artean balantzaka, bere etsai ikusezinarekin borrokan, zainak lehertzeaz.

Gizonak eskuin-ezker baztertu ziren, eta borrokalariak etxeko ateraino iritsi eta amilka jaitsi zituzten ostatuko sarrerako dozena erdi bat maila. Jaffersek ahots itoaz oihu egin zuen, harrapakina askatu gabe. Gero belaunak makurtu, okertu goputza eta zerraldo erori zen. Harria jo zuen buruaz, eta orduan bai: orduan zabaldu zuen eskua.

Oihu sutsuak entzun ziren: «Heldu ongi!», «Ikusezina da!», eta halakoak. Gazte bat, kanpotarra nonbait —ez zen haren izena jakiterik izan borroka gertatu zen tokira hurbildu, zerbait harrapatu, atzera galdu eta, azkenik, ahozpez zegoen poliziaren gainean erori zen. Kalea gurutzatzen ari zen andre batek oihu egin zuen bide erdian, zerbaitek bultza egin ziolarik. Zakur

batek intziri egin zuen, ostiko bat eman baitzio-
ten, eta Huxterren atarira joan zen uluka. Horre-
la amaitu zen Gizon Ikusezinaren antzaldaketa.
Harrituta gelditu ziren denak, keinu bitxiak egi-
nez. Gero Izuak hartu eta herri guztian zehar
barreiatu zituen, haize zurrunbilo batek hosto
hilak barreiatzen dituen moduan.

Jaffers han gelditu zen, ordea: geldirik, zeru-
ra begira, okertuak belaunak.

8. BIDEAN

Zortzigarren atal hau arrunt laburra da, eta kontatzen du nola Gibbins, barruti hartako sasi-naturalista, muino zabalean etzanda zegoen, inguruko pare bat miliatan arimarik ez zuela, edo berak hala uste zuela, behintzat; eta nola, lozorroan, giza eztul bat entzun zuen lehenengo, doministiku bat gero eta birao gorri bat ondoren. Begiratu eta ez zuen ezer ikusi. Baina ahots bat entzun zuela ziur zegoen. Ahotsak biraoka jarraitzen zuen; baina hori bai, gizon ikasiaren biraoak ezaugarritzen dituen aberastasun eta aniztasunaz. Gero eta ozenago entzun zen ahotsa, ozentasun gorena iritsi arte; ondoren apaldu eta urruntasunean galdu zen. Adderdean aldera hartu zuela iruditu zitzaion. Gero doministiku handi bat entzun zen eta, azkenik, dena amaitu zen. Gibbinsek ez zuen goiz hartako gertaeren berri, baina ordukoa hain zen ezohikoa eta harri-garria, ezen haren lasaitasun filosofiko guztia

aztoratu baitzuen; altxatu zen berehala eta mui-
noan behera herrira jaitsi zen, ahal bezain arin.

9.

THOMAS MARVEL

Imagina ezazue Thomas Marvel nolakoa zen: aurpegi malgua eta aldakorra zuen; sudur irten biribila; aho handia, alkoholak hezetua, zabala, pulunparia; eta bizar kizkur bitxia. Oso erraz loditzeko joera zuen, eta zango eta besoen laburrak are nabarmenagoa egiten zuten joera hori. Belusezko kapelua zeukan. Jantzietan botoiak behar izaten diren lekuetan ikusten zitzaizkion lokarri eta hariak betiko mutil zahar horietakoa zela ematen zuten aditzera.

Thomas Marvel eserita zegoen, Adderdeane-rako errepideko erretenean sarturik oinak, Ipin-getik milia eta erdira, gutxi gora-behera. Orratz-lan xelebrez beteriko galtzerdiak bakarrik zituen oinetan, ez zuen oinetakorik; behatz lodiak oso zabalak ziren, eta ageri-agerian zeuzkan, zakur zelatari baten belarriak bezain tente. Patxada ederrean zegoen —guzti-guztia patxadaz egiten baitzuen berak bota pare zahar bati begira. Bota haiek ziren aspaldian izan zituen sendoenak,

baina handiegiak gelditzen zitzaizkion. Eskura zituen beste botak, berriz, oso erosoak izan arren, egun lehorretan bakarrik erabil zitzakeen, lur bustian ibiltzeko oso zoru mehea baitzuten. Thomas Marvelek gorroto zuen bota lasaiekin ibiltzea, baina hezetasuna ere gorroto zuen. Sekula ez zen pentsatzen jarri bi gauza horietatik zeri ote zion gorroto handiagoa, baina eguraldi ona zegoen eta ez zuen beste zereginik. Hala bada, jarri zituen lau oinetakoak belar gainean, grazia handiz, eta haiei begira gelditu zen. Oinetakoak belar gainean eta loratzen ari zen usobelarren artean ikusi zituenean bi pareak ere itsusi amorratuak zituela erabaki zuen. Ez zen ikaratu atzean ahots bat entzun zuenean.

— Botak dira, bederen —esan zuen ahotsak.

— Bai, bota errukarriak, orde! —esan zuen Thomas Marvelek, burua albora okertu eta botei atsekabeturik begira Hara, ezin erabakirik nago bi hauetatik zein den munduko bota pare itsusiena!

— Hum —esan zion ahotsak.

— Okerragoak ere erabili izan ditut. Oinutsik ere ibili izan naiz. Baina sekula ez dut izan hauek

bezain oinetako itsusi amorraturik, hala esan banezake. Egunetan ibili naiz eskean, bota eske, alegia, dagoeneko nazka-nazka eginda nago hauekin eta. Sendoak dira, hori bai. Baina bota hauekin dabilen ibiltariak ez du bota besterik ikusiko. Eta sinetsidazu, konderri santu guztian ez dut besterik aurkitu, eginahalak eginda ere; hauek baino ez! Begira itzazu! Eta hori, konderri honetan bota onak aurkitu ohi direlarik; hori ezin ukatu. Baina, niri tokatu behar zoritxarra! Begira, azken hamar urte edo gehiagotan konderri honetan eskuratu izan ditut botak. Zertarako, eta hamar urteren buruan honela ibiltzeko!

— Gogaikarria da, bai, konderri hau —esan zuen ahotsak Eta zerri batzuk bertako denak.

— Baietz? —esan zuen Thomas Marvelek Jesus, Jesus! Eta okerren okerrena, bota nazka-garri hauek!

Eskuineko sorbaldaren gainetik begiratu zuen solaskidearen botak ikusteko, bereak eta harenak alderatzeko... Baina, hara! Haren botek behar zuten tokian ez zegoen ez zango eta ez bota. Gero ezkerreko sorbaldaren gainetik begiratu zuen, baina han ere ez zen ez zango eta ez

bota. Horretaz jabetu zenean zeharo larritzen hasi zen.

— Non demontre zaude, baina? —esan zuen Thomas Marvelek, sorbalda gainetik begira, lauhankan. Muino hutsa baizik ez zuen ikusi; muinoa eta hango ote zuhaixka berdeak, haizetan kulunka.

— Ez naiz, ba, mozkortuta egongo? —esan zuen Marvelek Ikuskariak ditudala uste dut. Bakarrik ari ote nintzen? Zer arraio...?

— Ez zaitez larritu —esan zion ahotsak.

— Ez behintzat zure sabel-hizketa txoro horrekin —esan zion zutiturik Thomas Marvelek Non zaude? Ez larritzeko esan ez dit ba!

— Ez zaitez larritu —berriro ahotsak.

— Zeu larrituko zara oraintxe bertan, ergel hori! —esan zuen Thomas Marvelek Non zaude? Non arraio zauden ikusten utzidazu sikiera... Ez zara, ba, lurpetik ariko? —esan zuen etenaldia egin ostean Thomas Marvelek.

Ez zioten erantzun. Oinutsik eta asaldaturik zegoen Thomas Marvel, eta jaka ia erorita zuen.

— Pit —esan zuen urrutian hegabera batek.

— Ze pit eta ze pot! —esan zuen Thomas Marvelek. Ez nago txantxetarako gero!

Muinoa mortu zegoen eki-mendebalde eta ipar-hegoaldeetan; errepidea, sakonera gutxiko erretenekin eta mugarri zuriekin, lasai eta soil-soil zegoen; eta zeruan, hegabera besterik ez.

— Ai ene! Lagundu! —esan eta jaka sorbalda gainean txukun-txukun jarri zuen Thomas Marvelek Edanaren ondorenak dira hauek! Honezke-ro konturatuta behar nuen, ba!

— Ez dela edana! —esan zuen ahotsak Zaude lasai.

— Ai ene! —esan zuen Marvel jaunak, eta zurbiluneak agertu zitzaizkion aurpegiko orban gorrien artean.

— Edanaren ondorenak —esaten zuten isilka haren ezpaineak. Ingurura begiratu eta atzerantz egin zuen Lepoa egingo nuke ahots bat entzun dudala —esan zuen ahapeka.

— Noski entzun duzula!

— Hara! Hemen da berriz ere —esan zuen Marvelek, begiak itxi, atsekabezko keinua egin eta eskua kopetara eramanez.

Lepotik heldu eta indarrez astindu zuten, eta lehen baino are asaldatuago gelditu zen.

— Ez izan leloa —esan zion ahotsak.

— Txora-txora eginda egon behar dut —esan zuen Marvelek Ez diot usain onik hartzen honi. Bota madarikatu horietan pentsatzen aritu izanagatik jarri naiz horrela. Txoratuta nago! Edo bestela, ixpirituak izango dira!

— Ez bata eta ez bestea —esan zuen ahotsak Entzun!

— Esaten ez dut ba: txora-txora eginda!

— Itxaron —esan zion, ozen, ahotsak, bere onetik ez ateratzeko ahaleginak eginez.

— Zer? —esan zuen bularrean hatz batek ukitu zuelako irudipenak harriturik Thomas Marvelek.

— Zure irudimenaren lilura bat naizela uste duzu? Irudipen hutsa naizela?

— Zer bestela? —esan zuen Thomas Marvelek, eta hatz batez lepoaren atzealdea igurtzi zuen.

— Ondo da —ahotsak, lasaiago Hortaz, harrika hasiko natzaizu, nik esaten dizudana sinesten duzun arte.

— Baina, non zaude?

Ahotsak ez zion erantzun. Baina harri bat etorri zen bere kabuz bezala hegan, eta Marvelen sorbalda jo zuen ia-ia. Atzera jiratu zenean ikusi zuen nola lurretik beste harri bat altxatu zen, egin zuen kiribil korapilotsu bat airean, gelditu zen une batez eta bere oinetan erori zen azkenik, lastertasun ia ikusezinean. Txundiduraren txundiduraz, ezin izan zuen harrikada saihestu. Harriak behatz bat jo eta erretenerainoko botea egin zuen. Thomas Marvelek zango bat altxatu eta ulu ozena egin zuen. Gero lasterka hasi zen, baina oztopo ikusezin batekin estropezu egin zuen, itzulika erori eta lurrean eserita gelditu zen.

— Eta orain —esan zion ahotsak, eta hirugarren harria altxatu ondoren Marvelen buru gainean gelditu zen airean zure irudimenaren lilura bat naizela uste duzu?

Lurretik altxa zen Marvel ahal zuen moduan, beste erantzunik eman gabe, baina berriro bota zuen zerbaitek. Apur batean geldi egon zen.

— Berriro niri ihes egiten saiatzen bazara — zioen ahotsak burura botako dizut harria.

— Bai gauza xelebrea —esan zuen Thomas Marvelek; eseri, zauritutako behatza eskuaz igurtzi eta hirugarren jaurtigaiari begiratu zion Ez dut tutik ulertzen. Harriak beren kabuz lurretik altxatzen. Harriak hizketan. Jaitsi lurrera! Ezin dut gehiago eta!

Hirugarren harria lurrera erori zen.

— Erraza da oso —esan zuen ahotsak Gizon ikusezin bat naiz.

— Kontaidazu ez dakidan zerbait —esan zuen intzirika Marvelek Non izkutatu zara? Nola egiten duzu? Ez dut tutik ulertzen. Zeure esku naukazu!

— Hori da guztia —esan zuen ahotsak Ikusezina naiz. Hori da ulertu behar duzun gauza bakarra.

— Hori bistakoa da. Ez duzu zertan horrela larritu, jauna. Orain... azalduidazu hobeto. Nola izkutatu zara?

— Ikusezina naiz. Horixe da egia guztia. Eta zuk ulertzea nahi dudana zera da...

— Non arraio zaude, ordea? —eten zuen Marvelek.

— Hementxe! Zu zauden tokitik sei bat metrora.

— Tira, tira! Ez nago itsu. Airez egina zaude-la esan nahi duzu, ezta? Kontuz nirekin, gero; ez naiz zuk esaten duzun abarkadun kankailu horietakoa eta.

— Hori da: airez egina nago. Nire gorputzean zehar begiratzen ari zara orain.

— Zer? Ez duzula gorputzik? *Vox et...* Zer da, orduan? Berriketa hutsa?

— Gizon bat naiz, besterik ez, gizon trinkoa. Jan-edana behar duen gizon bat naiz. Eta jantziak ere behar ditut.... Baina ikusezina naiz. Ulertzen? Ikusezina. Erraza da. Ikusezina!

— Benetakoa zara, orduan?

— Bai, benetakoa.

— Emaidazu esku bat —esan zuen Marvelek hezur-haragizkoa bazara. Horrela ez naiz hain ezjakin izango. Jainko maitea! —jarraian Bildurtu egin nauzu horrela heldu nauzunean!

Eskumuturretik heltzen zion esku bat ukitu zuen libre geratzen zitzaizkion hatzekin, besoa arakatu zuen ikarati, bular gihartsu bati antze-

man zion, eta aurpegi bizardun bat ukitu zuen. Marvelek txunditu aurpegia zuen.

— Alajaina! —esan zuen Oilar-jokoa baino askoz hobea da hau. Aparta! Zure gorputzaren atzean untxi bat ikusten dut orain garbi-garbi; hemendik milia erdira edo dago. Mikorik ere ez duzu ikusgairik, ala...

Zehatz-mehatz aztertu zuen lehen begi kolpean hutsa iruditu zitzaion eremua.

— Ogia eta gazta jan al dituzu? galdetu zion, beso ikusezina askatu gabe.

— Zuzen zaude; izan ere, nire gorputzak ezin izan ditu oraindik txegosi.

— A! —Marvel jaunak Dena dela, liluragarria da.

— Hau guztia ez da zuk uste bezain liluragarria.

— Bai nire adimen apalerako —esan zion Thomas Marvelek Nola lortzen duzu? Nola arraio egiten duzu?

— Istorio luzea da oso. Eta gainera...

— Harri eta zur laga nauzu —esan zion Marvelek.

— Entzun ongi zer esan behar dizudan: laguntza behar dut. Horregatik etorri naiz hona. Ustekabean zurekin topo egin dut. Hemen nenbilen, noraezean, amorraturik, biluzik, zer egin ez nekiela. Edonor hiltzeko prest. Eta, orduan, zu ikusi zaitut.

— Jainko maitea! —Marvelek.

— Gibeletik hurbildu natzaizu, zalantzan gelditu naiz, aurrera jarraitu dut...

Marvelen keinua oso adierazkorra zen.

— ... baina geratu egin naiz. «Hemen,», esan diot nire buruari, «nire moduko gizon baztertu bat dago. Hauxe da nik behar nuen gizona.». Eta atzera jo eta zugana etorri naiz. Eta...

— Jainko maitea! —zioen Marvelek Seko nahasturik nago. Zera galdetu nahi dizut... nola egiten duzu? Eta zertarako behar duzu laguntza? Ikusezina!

— Arropa eta aterbea lortzen laguntzea nahi nuke, bai eta beste zenbait behar asetzen ere. Denbora asko daramat batere gabe. Zuk ez bazenu... Baina bai, egingo duzu... egin beharko duzu!

— Begira —esan zion Marvelek Txundituegia nago. Ez nazazu gehiago astindu. Eta laga alde egiten. Pixka bat lasaitu beharra dut. Eta gainera, polit horrek behatza txikitu didazula uste dut. Honek ez du ez hanka eta ez buru. Muinoak mortu; zerua garbi. Inguru honetan, hainbat miliatan, ezer ez dago, Ama Lurra besterik ez. Eta halako batean hara non entzuten den ahots bat. Ahots bat zerutikan. Eta harriak! Eta ukabil bat! Jainko maitea!

— Izan zaitez zentzudun —esan zion ahotsak zuretzat aukeratu dudana lana bete behar duzu.

Marvelek bafa egin eta begiak zabaldu zituen.

— Zu hautatu zaitut —esan zion ahotsak zeu zarelako, hor beheko ergel batzuez gainera, gizon ikusezin bat dagoela dakien gizon bakarra. Lagundu egin behar didazu. Lagundu iezadazu, eta nik gauza handiak egingo ditut zuretzat. Gizon ikusezina botere handiko gizona da.

Isildu eta doministiku handi bat egin zuen.

— Baina huts egiten badidazu, nik agindutakoa egiten ez baduzu...

Berriro isildu eta indarrez jo zuen Marvel sorbaldan. Marvelek izu-oihu bat egin zuen ikusezina ukitu zuenean.

— Ez dizut kale egingo —esan zion Marvelek; hatz ikusezin haiek ustez zeuden tokitik aldendu zen Gertatzen dena gertatzen dela, sekula ez pentsatu huts egin dizudanik. Zuri laguntzea da nik nahi dudana gauza bakarra, beraz, esaidazu zer egin behar dudana (Jainko maitea!). Eskatzen didazun guztia egiteko prest nago.

10.

MARVEL JAUNA IPINGEN

Hasierako izualdia igarota, eztabaidan murgildu zen Iping herria. Ezbaikorkeria nagusitu zen, ezbaikorkeria urduri samar bat; ez erabat garbia, baina ezbaikorkeria, azken batean. Askoz ere errazagoa da gizon ikusezin batean ez sinestea; eta hura airean desagertzen ikusi zutenak edo haren besoaren indarra ezagutu zutenak kontatzeko aski ziren bi eskuetako hatzak. Leku-haietatik, gainera, Wadgers desagertua zen —bere etxean giltzapetu baitzen eta Jaffers, berriz, konorterik gabe zegoen Coach and Horsesco egongelan. Ideia transzendetal urruneko eta bitxiek eragin gutxiago izaten dute sarritan gizon-emakumeengan ideia arrunt eta hurbilekoek baino. Iping oso alai zegoen bere ikurrinekin, eta herriko guztiek beren jantzi dotoreenak zeuzkaten jantzita. Mendekoste-igandea iristeko irrikitan igaro zuten hilabete edo gehiago. Arratsalderako, Ezkutuko gauzetan sinesten zutenak dibertitzen hasiak ziren beren denborapasa xalo-

ekin, Gizon Ikusezina ordurako joana zelako ustetan; sinesgabeentzat txantxa hutsa zen haren existentziaren ideia bera. Guztiak ere, sinesgabe zein sinestun, lagunkoi portatu ziren egun guztian.

Haysmanen belardian etxola bat zegoen; Bunting andrea eta beste zenbait emakume tea prestatzen ari ziren bertan. Kanpoan katekesiko haurrak lasterketak egiten eta jolasean zebiltzan; hurbil-hurbiletik begiratzen zituzten erreto-reak eta Cuss eta Sackbut andereñoek. Zalan-tzarik gabe, nabaritzen zen giroan halako larri-dura bat, baina herritar gehienak gai ziren irudi-menak sortuko zien edozein izu ezkutatzeko. Herriko larrean soka txirrikadun bat zegoen, eta txirrikatik zintzilik saski bat, ziztu bizian larrea-ren goialdetik behera jaisten zena; sokaren jola-sak arrakasta handia izan zuen herriko gaztetxo-en artean, zabuek eta koko-jaurtiketak bezala. Paseeran ere bazebilen jendea. Zabuen alboan zegoen lurrin-organo batek olio usain sarkorraz eta usain hura bezain sarkor zen musikaz bete-tzen zituen bazter guztiak. Klubeko kideak, goi-zean mezatan izan zirenak, oso dotore zeuden

beren ikur arrosa-berdeekin. Alaienek kolore biziko zintez apaindu zituzten beren kapelu biritak. Fletcher zaharra etxean zen, oso iritzi estua baitzuen opor egiteari buruz; haren leiho-ko jazmin artetik edo ate zabaldutik barrura begiratzuz gero (batetik zein bestetik) han ikus zitekeen gizona, aurrealdeko gelako sabaia zuritzen bi aulkiren gainean ezarritako ohol batean igota.

Laurak aldera ezezagun bat sartu zen muino aldetik herrira. Gizontxo mozkote bat zen, erabat zirpildutako kapelu luze bitxia zeramana; antza zenez, arnasestuka zetorren. Masailak txandaka puzten eta erabat husten zitzaizkion. Bere aurpegi orbandunaren keinuak haserrea adierazten zuen, eta gogoz kontra bezala zetorren, bizkor-bizkor. Elizako kantoia igaro eta Coach and Horses aldera jo zuen. Besteren artean, Fletcher zaharra oroitzen da gizon hura ikusi izanaz; agureari hain harrigarria iruditu zitzaion haren larritasun bitxia, ezen hari begira gelditu zelarik kare pixka bat erori baitzitzaion mantalaren mauka barnera.

Ezezaguna bakarrik mintzo zela zirudien, koko-jaurtiketaren txosnako nagusiak ikusi zuenaren arabera; hori bera esan zuen Huxter jaunak ere. Coach and Horses ostatuko mailadi aurrean gelditu zen eta, Huxter jaunaren arabera, barne-borroka handia izan zuen etxean sartzera erabaki aurretik. Azkenean, igo zituen mailak eta, Huxter jaunak ikusi zuenez, ezkerraldera jo eta egongelako atea zabaldu zuen. Huxter jaunak ahotsak entzun zituen gela barnetik eta tabernatik: okerreko gela batera zihoala esan zion norbaitek ezezagunari.

— Gela hori pribatua da! —esan zion Hallek.

Ezezagunak atea zakar itxi eta tabernan sartu zen.

Handik minutu gutxira berriro agertu zen esku-gainarekin ezpainak igurtziz, atseginez, edo atsegin plantak eginez, Huxter jaunaren ustez. Inguru guztira begira jardun zuen; ondoren, egongelako leihoak ematen zuen atariko hesira isilka bezala, oso era bitxian, hurbiltzen ikusi zuen Huxter jaunak. Ezezaguna, apur batean zalantzan egon ostean, bizkarra ateko zutabe baten kontra jarri, buztinezko pipa labur

bat atera eta hura betetzen hasi zen. Horretan ari zen bitartean hatzek dardar egiten zioten. Pipa piztu zuen baldar, eta, besoak gurutzaturik, erretzen hasi zen, lasaitasuna adierazi nahian; nohizbehinka atarira egiten zituen laster-begiratuak ordea, jarrera hura itxura hutsa zela salatzen zuten.

Huxterrek bere tabako-dendako erakusleihen atzetik ikusi ahal izan zuen hori guztia, eta gizonaren portaera bitxiak zelatan jarraitzera bultzatu zuen.

Ezezaguna ustekabean zutitu zen eta pipa patrikan gorde zuen. Gero atarian sartu zen. Huxter jauna, lapurreta baten lekuko zela sine-tsita, mostradore atzetik lasterka atera zen kale-ra, lapurra harrapatzera. Marvel berriro agertu zen; kapelua okertuta zuen; fardel handi bat, mahai-oihal urdin batean bildua, zeraman esku batean, eta bestean, berriz, hiru liburu, loturik (erretore jaunaren galtzetako tiranteekin lotuak, gero frogatu zenez). Huxter ikusi zuenean oihu ito bat egin, ezkerrera jo eta lasterka hasi zen.

— Lapurra, lapurra! —egin zuen oihu Huxterrek, eta haren atzetik abiatu zen.

Huxterren sentipenak bizi-biziak izan ziren, baina oso-oso laburrak. Parean ikusi zuen gizona, ziztu batean elizako kantoitik muinoko bidera zihoala. Huxterrek herriko ikurrinak eta festa ikusi zituen harantzago, eta aurpegi bat edo bi hari begiratzeko jiratu ziren. Oihu egin zuen berriro:

— Harrapa ezazue!

Baina hamar urrats ere egin ez zituela, nola jakin gabe, hanka batetik heltzen ziotela nabaritu zuen; harrezkero ez zuen gehiago lasterka egin, baina, lastertasun sinestezinean, hegan egin zuen. Bat-batean muturren aurrean ikusi zuen lurra. Mundua milioika argi izpi birakaritan zatitzen zela iruditu zitzaion, eta handik aurrerako gertaerek ez zuten haren arreta erakarri.

11.

COACH AND HORSES

OSTATUAN

Baina ostatuan jazo zenari buruzko xehetasunak ezagutzeko atzera jo beharra dago, hain zuzen ere Huxter jaunaren leihoko ikusmiran Marvel lehenengoz agertu zen unera. Egongelan zeuden une hartan Cuss eta Bunting jaunak. Goizeko gertaera harrigarrien ikerketan murgilduta zeuden, eta Gizon Ikusezinaren ondasun guztiak zehatz-mehatz aztertzen ari ziren, Hall jaunaren baimenarekin. Jaffers, bere eroralditik indarberritu antzean, etxera joana zen, zenbait adiskide errukitsu zituela lagun. Hall jaunak lurrean barreiatuta zeuden ezezagunaren arropak bildu zituen; gela txukunduta zegoen. Eskuz idatzitako hiru liburu handi aurkitu zituen Cussek berehala ezezagunak lanean jarduten zuen leiho ondoko mahaian. Liburuek «Egunkaria» zioen txartel bana zuten.

— Egunkaria! —esan zuen Cussek, eta mahai gainean ezarri zituen hiru liburuak Orain, orain jakingo dugu zer edo zer.

Erretorea zutik zegoen, eskuak mahai gainean jarrita.

— Egunkaria! —esan zuen berriro Cussek. Eseri eta liburuotako bat ireki zuen, beste biak hirugarrenaren euskarri ezarrita Hmmm! Lehen orrian ez dago izenik. Madarikatua! Izkutuko hizkuntza batean dago idatzia. Zenbakiz betea dago dena.

Erretorea makurtu eta Cussen besagainetik begira jarri zen.

Atsekabezko keinuaz pasa zituen orriak Cussek.

— Baina...! Alajaina! Izkutuko hizkuntza batean idatzita dago guztia, Bunting.

— Ez al dago batere diagramarik? —galdetu zion Buntingek Edo zerbait argituko digun irudirik?

— Zerorrek begiratu —esan zuen Cussek Atal batzuk matematikakoak dira; badira beste atal batzuk errusieraz edo idatziak —karakte-

reengatik diot eta beste batzuk, berriz, grekeraz. Grekera, zera... nik uste nuen zuk bazenekiela...

— Noski —erantzun zion Bunting jaunak. Betaurrekoak atera eta garbitu zituen, baina bat-batean zeharo atsekabetu zen; hutsaren hurrengo zen berak zekien grekera guztia Bai..., grekera izango dugu, agian, gakoa.

— Grekerazko atal bat bilatuko dizut.

— Nire ustez hiru liburuak aztertu behar genituzke lehenik —esan zuen Bunting jaunak, betaurrekoak garbitzen, artean Gainbegiratu bat lehenik, Cuss, eta, gero, badakizu, gako bila hasi.

Eztula egin, betaurrekoak jarri eta kontu handiz egokitu, berriro eztula egin, eta zain gelditu zen, ordurako saihetsezina zirudien erdeinua ekidingo zuen zerbait gertatuko zen itxaropenaz. Hala, Cussek emandako liburua hartu zuen patxadaz. Eta orduan zerbait gertatu zen: atea ireki zen bat-batean.

Asaldatu egin ziren bi gizonak; ingurura begiratu eta lasaitu ederra hartu zuten belusezko kapelu baten azpian gorri-gorri jartzen ari zen aurpegi bat ikustean.

— Garagardotegia? —galdetu eta begira-begira gelditu zitzaien aurpegi gorria.

— Beste aldean da, gizona! —esan zuen Bunting jaunak.

— Eta irtetea atea itxi, mesedez —Cuss jaunak, haserre.

— Ondo da —esan zuen apal, ez hasierako ahots erlatsaz, baimenik gabe sartu berri zenak Egia! —jarraitu zuen hasierako ahots ozenaz Aldamenera!

Eta, hala, irten eta atea itxi zuen.

— Marinela edo izango zen —Bunting jaunak Bai xelebreak marinela hauek! «Aldamenera!» esan du; itsas esapide bat da hori. Gelatik irteteara doala adierazteko edo esango zuen.

— Hala esango zuen, bai —esan zuen Cussek Nerbio guztiak dantzan dabilzkit gaur. Eta larritu egin naiz atea horrela ireki denean.

Bunting jaunak irribarre egin zuen, bera asaldatu ez balitz bezala.

— Eta orain —esan zuen hasperen eginez jarrai dezagun liburuekin.

— Itxaron —esan zuen Cussek; atea giltzatu zuen Horrela lasaia egongo gara.

Nobaitek bafa egin zuen.

— Gauza bat dago argi —esan zuen Buntingek, eta aulki bat eraman zuen Cussen albora oso gauza xelebreak gertatu direla Ipingen azken egunotan, oso-oso xelebreak, gainera. Nik, ordea, ezin dut ikusezintasunaren kontu zentzugabe hori sinetsi.

— Sinestezina da eta! —esan zion Cussek Baina kontua da, nik ikusi egin nuela mauka barne-huts hura.

— Baina... ziur al zaude? Pentsa ezazu: ispi-lu batekin, adibidez,... oso erraza dela aluzinazioak sortzea. Ez dakit inoiz prestigiadore on bat ikusiko zenuen...

— Ez dut berriro sesioan hasi nahi —esan zion Cussek Nahikoa hitz egin dugu horretaz, Bunting. Orain iker ditzagun liburuak. Begira! Hemen duzu niri grekeraz idatzia iruditu zaidan ataletako bat. Izan, bederen, grekerazko letrak dira.

Orriaren erdialdea seinalatu zion. Bunting jauna apur bat gorritu zen, eta orria hurbilagotik begiratu zuen, betaurrekoekin arazoren bat zuelako itxurak eginez. Horretan, zerbait nabaritu

zuen lepoan. Burua atzera jiratzeko ahaleginak egin zituen, baina erresistentzia gaindiezin bat aurkitu zuen. Sakadura bitxi bat sentitzen zuen, esku sendo eta pisu baten sakadura edo, kokotsa mahaiaren kontra ezarrarazi ziona.

— Geldi hor, nire gizontxoak —esan zuen ahapeka ahots batek biak garbituko zaituztet bestela!

Buntingek bere aurpegiaren albo-alboan ikusi zuen Cussena ere, eta nork bere larridura izugarriaren isla ikusi zuen bestearen keinuan.

— Damu naiz zuei indarrez eutsi beharragatik —esan zuen Ahotsak Baina hala behar du izan; halabeharra da. Noiztik ibiltzen zarete iker-tzaileen liburu pribatuetan usainka? —esan zuen. Bi kokotsek mahaia jo zuten, aldi berean, eta bien hortz-haginen karraska entzun zen Noiztik sartzen zarete zorigaiztoko gizonen gela pribatuetan? —kolpeak entzun ziren berriz Eta non gorde dituzue nire arropak?

— Entzun ongi —jarraitu zuen Ahotsak Leihok kisketaz itxita daude eta ateko giltza neuk daukat. Indar handiko gizona nauzue, eta bertzuna dut eskuan; eta ikusezina naiz, gainera.

Biak hil eta lasai-lasai ihes egiteko ahalmena dut, ez izan zalantzarik. Ulertzen duzue, ezta? Ondo da. Alde egiten uzten badizuet, ez diozue honetaz inori ezer ere esango eta nire esanak beteko dituzue, konforme?

Erretoreak eta medikuak elkarri begiratu zioten, eta medikuak keinu bat egin zuen.

— Bai, bai, konforme —esan zuen Bunting jaunak, eta gauza bera medikuak ere.

Lepoa askatu zien, eta medikua eta erretorea tente jarri ziren, gorri-gorri biak, eta burua alde batera eta bestera mugitu zuten.

— Arren, gera zaitezte zaudeten tokian —esan zien Gizon Ikusezinak Hemen dut bertzuna, begira. Gela honetan sartu naizenean —jarraitu zuen, bertzuna bisitarietako baten sudur puntara hurbilduz ez nuen uste barruan inor izango zenik. Eta bai, aldiz, nire ohar-liburuak, eta horiez gainera, nire jantziak. Non daude jantziak, baina? Ez; ez zutitu. Ikusten dut ez daudela hemen. Urtaro honetan artean epel samarrak dira egunak eta Gizon Ikusezin batek badu egunez biluzik ibiltzerik; gauak, ordea, hotzak dira.

Jantziak behar ditut, eta beste aterpe bat; bai eta hiru liburu horiek ere.

12.

GIZON IKUSEZINA BERE ONETIK ATERA ZENEKOA

Puntu honetara iritsita kontakizuna berriro eten beharra dago, laster aditzera emango den arrazoi penagarri bat dela eta. Egongelan gora-behera horiek gertatzen ari zirenean eta Huxter jauna atariko atean Marvel pipa erretzen nola ari zen begira zegoen bitartean, Hall jauna eta Teddy Henfrey, handik dozena bat metrora, lpingen jazotako gertaerez mintzo ziren nahas-mahas ilun batean murgilduta.

Horretan, egongelako atean jotako kolpe bortitz bat entzun zen lehenik, oihu ozen bat gero, eta isiltasuna ondoren.

— Zer zuan hori? —esan zuen Teddy Henfreyk.

— Zer zuan hori? —entzun zen garagardotegitik.

Hall jaunari kosta egiten zitzaion gauzez jabetzea; jabetzen zenean orde, ez zuen huts egiten.

— Oker zebilek zerbait —esan, eta taberna-ko mostradore atzetik egongelako atera joan zen.

Keinu erabakiaz ate alboan jarri ziren bera eta Teddy. Atera begira gelditu ziren.

— Okerren bat gertatuko zuan —esan zuen Hallek; Henfreyk buruarekin baietz egin zuen. Kimikako gai baten usain sarkorra somatu zuten, eta elkarrizketa bizkor apal bat aditu zuten.

— Ondo al zaudete, jaunak? —galdetu zuen atea jo ondoren Hallek.

Elkarrizketa bat-batean eten eta isilik gelditu ziren, baina berehala hasi ziren berriro. Zurru-murru txistukariak eta norbaitek «Ez, ez egin hori!» nola esaten zuen garbi-garbi entzun zen. Gero mugimendu bat, aulki bat lurrera erortzen eta borroka labur bat. Eta, azkenik, isiltasuna berriro.

— Zer arraio...? —esan zuen, *sotto voce*, Henfreyk.

— Ondo al zaudete, benetan? —galdetu zuen zakar Hallek.

Erretorearen ahotsak erantzun zien, izu-ikarazko doinu berezi batean:

— Primeran gaude. Mesedez, utz gaitzazue bakean.

— Bai gauza arraroa! —esan zuen Henfreyk.

— Bai gauza arraroa! —errepikatu zuen Hallek.

— «Utz gaitzazue bakean» esan dik —esan zuen Henfreyk.

— Bai, entzun diat —Hallek.

— Eta baten batek bafa egin dik —Henfreyk berriro.

Entzuten jarri ziren arreta handiz. Bizkor eta apal ari ziren hizketan barruan.

— Ezin dut —zioen aho betean Bunting jaunak Esan dizut, jauna, ez dut nahi.

— Zer esan dik? —galdetu zuen Henfreyk.

— Ez duela nahi esan dik —Hallek Ez zuan, ba, gurekin ariko?

— Lotsagarria da! —esan zuen Bunting jaunak gelatik.

— «Lotsagarria da!» —errepikatu zuen Henfrey jaunak argi asko entzun zioat. Nor demontre da orain hitz egiten ari dena?

— Cuss jauna izango duk, nire iritzirako —erantzun zion Hallek Ezer aditzen al duk?

Isildu egin ziren. Hots nahasi harrigarriak entzuten ziren.

— Mahai-oihala kendu dutela ematen dik — esan zuen Hallek.

Horretan Hall andrea agertu zen tabernako mostradorearen atzean. Hallek isilik egoteko eta entzutera joateko keinuak egin zizkion. Baina Hall andreari ez zitzaion ondo iruditu.

— Zer ari zara hor kuxkuxean Hall? —galdetu zion emazteak Hori al da gaur bezalako egun lanpetu batean egiteko duzun guztia?

Barruan zer gertatzen ari zen keinu eta imintzioen bidez azaltzeko ahaleginak egin zituen Hallek, baina Hall andrea oso burugogorra zen, eta are ozenago mintzatu zen. Hala, Hallek eta Henfreyk tabernara itzuli behar izan zuten, burumakur, behatz-punttetan, zer gertatzen zen azaltzeko keinuak eginez.

Andreak hasieran ez zion garrantzirik eman nahi izan gizonek entzundakoari. Henfreyk istorio guztia kontatzen zion bitartean isilik egoteko agindu zion Halli. Hura guztia zorakeria zela pentsatu nahi zuen andreak, altzariak batetik bestera mugitzen ariko zirela agian.

— «Lotsagarria da» nola esan duen entzun dut, ondo garbi entzun ere —esan zion Hallek.

— Neuk entzun dut, Hall andrea —Henfreyk, berriz.

— Ba, entzun ez bazenute ere berdin-berdin! —Hall andreak.

— Ixo! —esan zuen Teddy Henfreyk Ez al duzue leihoa entzun?

— Ze leiho? —galdetu zuen Hall andreak.

— Egongelakoa —erantzun zion Henfreyk.

Hirurak isildu eta adi-adi entzuten jarri ziren. Hall andrearen begiak aurrera begira zeuden; ostatuko sarrera-atearen marko luzanga distiratsuari, errepide zuri biziari eta ekaineko eguzkiak argitzen zuen Huxterren dendari begira zeuden, apartekorik ez zuten ikusten, ordea. Huxterreneko atea zabalduta eta, horretan, Huxter agertu zen: begiak asalduraren asalduraz dizdizka zituen eta eskuak astintzen ari zen.

— Lapurra! —egin zuen oihu Huxterrek Badijoala!

Atari aldera lasterka joan eta desagertu egin zen.

Egongelatik zurrumurru bat entzun zen eta leihoak itxi ziren.

Hall, Henfrey eta ostatuko arima guztiak arrapaladan irten ziren kalera. Baten bat beheko errepiderako kale-kantoirantz lasterka zihoala ohartu ziren; gero Huxterrek airean zilipurdi bitxi bat egin eta buru-sorbaldekin lurra nola jo zuen ikusi zuten. Kolean behera, batzuk harrituta gelditu ziren eta beste batzuk haien atzetik korrika irten ziren.

Huxterrek konortea galdu zuen. Eta haren egoera tamalgarriaz jabeturik, berari laguntzen geratu zen Henfrey, baina Hall eta ostatuko bi peoi kale-kantoiraino joan ziren lasterka, oihu ulergaitzak eginaz. Marvel elizako hormaren atzetik desagertzen ikusi zuten. Lasterka zihoan gizon hura Gizon Ikusezina zelako ideia eroa bururatu zitzaien nonbait; Gizon Ikusezina ikusgai bihurtua zelakoan haren atzetik abiatu ziren bidean behera. Baina ez zituen dozena bat metro egin Hallek, izugarrizko harridura oihua egin eta buruz behera albo batera erortzean baserritar bati heldu eta hura ere lurrera bota zuen. Futbolean ari balitz bezala bultza egin zio-

ten. Bigarren baserritarra inguratu eta begira gelditu zen, baina Hall bere kabuz erori zela pentsatuta, atzera jiratu eta iheslariaren atzetik jarraitu zuen; ez urrutira ordea, Huxter bezala hankatrabatu baitzuten hura ere. Lehenengo baserritarrari, zutik jartzeko ahaleginak egiten hasi orduko, idi bat botatzeko moduko kolpea eman zioten albo batetik.

Horretan kale-kantoian herriko zelaitik zetorren jende samalda agertu zen. Koko-jaurtiketaren txosnako nagusia zetorren aurretik, gizon sendoa bera, jertse urdin ilunaz jantzia. Lur eta zur gelditu zen ikusi zuenean bidean inor ez zegoela, lurrean hankaz gora zeuden hiru gizon haiek izan ezik. Baina zerbait gertatu zitzaion oin batean, atzerago zuen oinean, eta hura ere erori egin zen; erori aurretik denbora izan zuen bere anaia eta bazkideari hankatik heltzeko, eta han joan ziren biak muturrez aurrera. Atzetik zala-parta batean zetozen herritar guztiek ostikoz jo, zapaldu, azpian harrapatu eta madarikatu egin zituzten bi haiek.

Bitartean, Hall, Henfrey eta baserritarrak etxetik lasterka irten zirenean, Hall andrea,

urteetako esperientziatik aski ikasia, mostadore atzean gelditu zen, diru-kutxaren alboan. Halako batean egongelako atea zabaldu, Cuss jauna agertu eta, andreari begiratu ere egin gabe, mailak korrika jaitsi eta kale-kantoira abiatu zen.

— Harrapa ezazue! —deiadar egin zuen Ez utzi fardela eramaten! Ez utzi fardela eskuan daramala ihes egiten!

Baina berak ez zekien Marvelen berri. Eta Gizon Ikusezinak harixe eman zizkion, hain zuzen, liburuak eta fardela atarian. Cuss jauna haserre eta zerbait egitera erabakita zegoela antzeman zitekeen haren keinuagatik, baina barregarri jantzita zegoen: soinean ez zuen azpiko gona zuri lasai bat baino, Grezian erabiltzeko bakarrik aproposa.

— Harrapazazue! —oihu egin zuen Nire galtzak eraman ditu! Eta erretorearen arropa guztia ere bai!

— Oraintxe nator honi laguntzera! —esan zion Henfreyri, Huxter ahozpez etzanda zegoen tokitik igarotzean. Baina kale-kantoia hartu eta segizioarekin elkartzera zihoanean kolpe bat eman ziotelarik, oreka galdu eta hankaz gora

erori zen. Hegan bezala zihoan batek zapal-zapal egin zion hatza. Cussek intziri egin zuen; bi oinak parez pare jartzen saiatu zen, baina berriro jo zuten; lau-hankan gelditu zen berriro. Eta orduan ohartu zen inori segika ez baina iheska zebilkiola. Jendea atzera herrirantz zetorren ziztu batean. Berriro zutitu zen, baina egundoko belarrondokoa eman zioten. Balantzaka joan zen Coach and Horses aldera, ordurako bide erdian esertzea lortu zuen Huxter abandonatuaren gainetik jauzi eginez.

Ostatuko mailadian gora zihoala amorruzko orro bat entzun zuen atzean, oihuen gainetik nabarmendu zena, eta zaplasteko baten oihartzuna gero. Gizon Ikusezinaren ahotsa iruditu zitzaion; doinua, berriz, minaren zigorrak bere onetik ateratako gizon batena zen.

Cuss egongelara itzuli zen berriro.

— Bunting, badatorrela! —esan zuen, gelara arrapaladan sartu ondoren Argi ibili gero! Erotu egin da eta!

Bunting jauna leiho alboan zen, tximinia aurreko alfonbrarekin eta West Surrey Gazette

egunkariarekin bere biluztasuna jantzi nahi eta ezinean.

— Nor dator, baina? —esan zuen jantziak ia deseginarazi zizkion larridura batek hartuta.

— Gizon Ikusezina, bada! —esan, eta korrika leihora joan zen Cuss Hobe izango dugu hemen-dik ihes egitea! Ero baten moduan ari da borrokan! Ero baten moduan!

Medikua atarira irten zen.

— Jaungoiko maitea! —esan zuen Bunting jaunak, bi irtenbide izugarrietatik zein aukeratu ez zekiela. Ostatuko pasilotik borroka ikaragarri baten oihartzuna entzun zuen. Eta orduan hartu zuen erabakia: leihoan gora arrastaka igo, bere behin-behineko jantzia ahal zuen bezain ongi apailatu eta ihesi joan zen herrian behera, bere zango lodikoteek eraman zezaketen bezain bizkor.

Gizon Ikusezinak amorruror bat egin eta Bunting jaunak ihesaldi gogoangarri hari eman zionetik aurrera ez dago lpingeko gertaeren ondoz-ondoko kontakizuna osatzerik. Marveli arropak eta liburuak eman ondoren haren ihesaldia babestea izango zen agian Gizon Ikusezina-

ren asmoa. Baina kolpe bat eman ziotenean
pazientzia erabat ahitu bide zitzaien —lehendik
ere asko ez zuen eta, eta horregatik hasiko zen
jendea jotzen eta hankatrabatzen, jendeari min
eginez atsegin hartzearren.

Pentsa ezazue: lasterka zebilen jendez bete-
ta zegoen kalea; ateak danbatekoka ixten ziren;
jendea ezkutaleku bat lortzeko borrokan ari zen.
Pentsa ezazue: hain zen handia iskanbila, ezen
Fletcher agurearen oholak eta bi aulkiek ordu
arte izan zuten oreka ahula galdu eta honda-
mendi handia ekarri baitzuten. Pentsa ezazue:
bikote bat zabuan dilinka gelditu zen, izuak era-
bat harturik. Baina iskanbila hura berehala amai-
tu zen. Ipingeko kale nagusia, bere ikurrin eta
kriseiluekin, mortu gelditu zen, artean amorratu-
ta zegoen Gizon Ikusezinaren presentzia hutsa-
rekin, alegia, eta zorua kokoez, txosna irauliez
eta gozodenda bateko salgaiez beterik. Pertsia-
na eta kisket-hotsak entzuten ziren nonnahi, eta
gizatasun ikusgairik batere izatekotan, leihoko
beira bazterretik begira zegoen begi iheskorra
izango zen, harriduraren eraginez jasoriko
bekain azpiko hura.

Asko dibertitu zen Gizon Ikusezina Coach and Horses ostatuko leiho guztiak txikitzen. Gero, kaleko kriseilu bat bota zuen Gribble andrearen egongelako leihoen kontra. Berak moztu bide zituen herria eta Adderdean lotzen zituzten telegrafia hariak, Adderdeaneko bidean, Higginsen baserritik hurbil zeudenak. Eta ondoren, bere tasun bitxiei eskerrak, gizadiaren ikusmiratik ezkutatu zen. Ipingen ez zuten gehiago ikusi, entzun edo sentitu. Ipingeko kaleko hondame-nean desagertu zen.

Baina ondorengo bi orduetan edo, inortxo ere ez zen ausartu Ipingeko kale nagusiko hondamen hartara irtetera.

13.

MARVELEK DIMISIOA EMAN ZUENEKOA

Iluntzen ari zuenean eta lping zorigaiztoko opor egun haren hondamenditik apurka-apurka bere onera etortzen hasi zenean, gizon txiki sendo bat agertu zen Bramblehursteko bideko pagoen artean; gizon hark sedazko kapelu zirpildu bat zeukan, eta neka-neka eginda zebilen ilunbean. Hiru liburu zeramatzan, lokarri elastiko apain batzuekin loturik, eta fardel bat, mahai-oihal urdin batean bildua. Nahigabea eta nekea antzematen zitzaizkion bere aurpegi gorrian; presaren presaz zihoala zirudien. Berea ez zen beste Ahots bat zuen lagun, eta esku ikusezin batzuen ukituarekin dardaratzen zen behin eta berriro.

— Berriro niri ihes egiten saiatzen bazara — zioen Ahotsak berriro ihes egiteko imintzioa egiten baduzu...

— Jaungoiko maitea! —erregutu zuen Marvellek Besagain hori ubelduraz josita daukat!

— Zin dagizut —esan zuen Ahotsak hil egingo zaitut.

— Ez naiz zuri ihes egiten saiatu —esan zuen Marvelek; ahotsagatik, negarrez hasiko zela ematen zuen Benetan esaten dizut, ez nuen halakorik egin nahi! Kontua da ez nuela bidexka santu hura ezagutzen, besterik ez! Nola demonstre ezagutuko nuen, ba, ditxosozko bidexka malapartatu hura? Egia esateko, jipoia eman didate...

— Eta gehiago ere hartuko dituzu argi ibiltzen ez bazara! —esan zion Ahotsak.

Marvel berehala isildu zen eta bafa egin zuen; nahigabea agertu zitzaion begietan.

— Nahiko arazo badut kankailu baldar horiek nire sekretutxoaren zelatan ibiltzea, orain zuri nire liburuekin ihes egiten uzteko! Batzuentzat hobe izan da ihes egin dutenean ihes egin izana! Begira nazazu... Inork ez zekien Ikusezina nintzenik! Zer egingo dut orain?

— Eta zer egingo dut nik? —galdetu zion, *sotto voce*, Marvelek.

— Orain denek dakite. Egunkarietan agertuko da. Nire bila hasiko dira denak; denak nire zelatan!

Ahotsa birao gordinak esaten hasi zen, baina bat-batean isildu zen.

Marvelen begietako nahigabe keinua areago larritu zen, eta urratsa geldotu zitzaion.

— Jarraitu aurrera! —esan zion Ahotsak.

Marvelen aurpegia gris koloreko jarri zen gorriuneen tarteetan.

— Ez bota liburuak, ergela halakoa! —esan zuen indarrez Ahotsak, besteari aurea harturik Begira —jarraitu zuen zu erabili beharko zaitut. Balio handikoa ere ez zara, baina, tira, hala beharko du!

— Adixkide doilorra nauzu, baina —esan zuen Marvelek.

— Hala zara, bai —erantzun zion Ahotsak.

— Aizu, ez zenuke ni baino adixkide kaxkarragorik inon aurkituko —zioen Marvelek.

— Ez naiz indartsua —jarraitu zuen etsipenezko isilune baten ondoren.

— Ez naiz oso indartsua —esan zion berriro.

— Ez, eh?

— Eta bihotz ahula dut. Zure agindu horiek.... bete, bete ditut, ezta? Baina, Jesus! Bertan seko ere gera nintekeen!

— Eta?

— Ez dut zuk eskatzen dituzun gauza horiek egiteko adorerik eta indarrik.

— Neuk zirikatuko zaitut, orduan.

— Ez nuke nahi! Ez nituzke zure asmoak zapuztu nahi, hori badakizu. Baina hala gertatu-ko da, bildurturik eta samindurik nago eta.

— Hobe duzu horrelakorik ez egitea —esan zuen, arrandiaz baina patxadaz, Ahotsak.

— Nahiago nuke hilda banengo! —esan zuen Marvelek Hau ez da zuzena —esan zuen Nik ere baditut neure eskubideak!

— Jarraitu ezazu aurrera! —esan zuen Aho-tsak.

Marvelek urratsa arindu zuen. Isil-isilik aurre-ra jarraitu zuten.

— Hau gurutzea, nirea! —hasi zen Marvel.

Baina alferrik izan zen. Taktika berria erabili behar izan zuen.

— Zer aterako dut, ba, honekin? —galdetu zuen, Ahotsak irain barkaezina egin balio bezala.

— Arren! Isil zaitez! —esan zuen ustekabeen indarberriturik Ahotsak Neuk gobernatuko zaitut; zuk nire aginduak bete. Primeran egingo duzu; ergel hutsa zara, baina lortuko duzu.

— Jauna, esan dizut ez naizela horretarako gizon aproposa. Barkatuko didazu, baina hala da.

— Isiltzen ez bazara eskumuturra bihurrituko dizut berriro —esan zion Gizon Ikusezinak Orain pentsatu egin behar dut.

Horretan zuhaitz artetik bi argi hori luzaxka eta laino artean eliza bateko dorre karratua ikusi zituzten.

— Eskua sorbalda gainean jarriko dizut —esan zuen Ahotsak herri hau zeharkatzen dugun artean. Zoaz zuzen aurrera eta ez egin ergelkeriarik, zure kalterako izango da eta.

— Badakit! —esan zuen, hasperen eginez, Marvelek Badakit hori dena.

Eta, hala, sedazko kapelu zirpildua zeraman eta zorigaitzak hartua zirudien gizirudi hark herria igaro zuen bere fardelekin, eta leihoetako argietatik harantzagoko iluntasun gero eta ilunagoan desagertu zen.

14.

PORT STOWEKO GERTAERAK

Biharamuneko hamarretan Port Stowengo aldirietako ostatu txiki baten atarian zegoen Marvel; bizarra kendu gabe eta bidaiako izerdia garbitu gabe zegoen; liburuak aldean zituen eta eserita zegoen, eskuak patriketan sarturik. Urdu-ri antza zegoen, estu, deseroso; tarteka masailak puzten zituen. Aldean zituen liburuak, baina soka batez loturik oraingoan. Fardela, berriz, Bramblehurstetik harantzako pinudi batean utzi zuten, Gizon Ikusezinaren asmoak aldatu egin baitziren. Marvel banku batean eserita zegoen, eta, inork antzeman ez bazion ere, asaldaturik zegoen, sukarrak jota bezala. Eskuak patrika guztietan sartzen zituen behin eta berriro, urduritasunezko keinu xelebreak eginez.

Han eserita ordu bete edo egin zuenean, marinel adintsu bat irten zen ostatutik, egunkaria eskuetan, eta alboan eseri zitzaion.

— Egun ederra gaurkoa! —esan zuen marinelak.

Marvelek batera eta bestera begiratu zuen ikaraz bezala.

— Bai, egia —erantzun zuen.

— Urte sasoi honetarako eguraldi aproposa —esan zuen marinela, solaskidearen zaputza aintzat ez hartzera erabakita.

— Hala da —esan zuen Marvelek.

Marinela, poltsikotik hortzetako txotx bat aterata, hortz tarteak garbitzen hasi zen ondo-ondo, besteari jaramon egin gabe. Denbora aski izan zuten ordea, haren begiek Marvelen itxura zar-paila eta alboan zituen liburuak aztertzeke. Marvelengana hurbildu zenean txanpon-hotsa entzun zuen haren patrikan; harritu egin zen Marvel jaunak bezalako itxura zuen norbaiti oparotasuna adierazten zuen hots hura entzutean. Baina berehala jarri zituen bere burutazioak gogoan betetzen zion gaiaren harira.

— Liburuak? —esan zuen, txotxaren lana zarata handiz amaitzearekin bat.

Marvel larritu egin zen, eta liburuei begiratu zien.

— Hauek? Bai —esan zuen Bai, liburuak dira.

— Gauza ezohikoak datoz liburuetan —esan zuen marinela.

— Bai, alajaina —erantzun Marvelek.

— Eta haietatik kanpo ere gauza ezohikoak aurki daitezke —berriro marinela.

— Hori ere egia da —esan zuen Marvelek. Solaskideari begiratu zion lehenengo, eta inguru guztira gero.

— Gauza ezohikoak datoz, esate baterako, periodikoetan —esan zuen marinela.

— Bai, hala da.

— Periodiko honetan esaterako —jarraitu zuen marinela.

— Bai? —Marvelek.

— Istorio bat badator gaur —esan, eta begirada zorrotza bota zion marinela Marveli Gizon Ikusezin bati buruzkoa, aizu!

Marvelek ahoa okertu eta masailak igurtzi zituen; belarriak gorritzen ari zitzaizkiola konturatu zen.

— Zer ez ote duten asmatuko oraindik? —galdetu zuen apal Eta non da, Austrian, edo Ameriketara?

— Ez batean eta ez bestean —erantzun zion marinela Hemen!

— Jainko maitea! —esan zuen izuturik Marvelak.

— Baina hemen esaten dudanean —jarraitu zuen marinela ez dut esan nahi hementxe gertatu denik, noski. Hemen inguruan esan nahi dut.

Marvel lasaiago gelditu zen.

— Gizon Ikusezin bat! —esan zuen Marvelak Eta zer egin du, ba?

— Denetik! —esan zuen marinela, Marveli begirik kendu gabe Dira eta ez dira!

— Izan ere, egun hauetan ez dut periodikoki irakurri —esan zuen Marvelak.

— Ipingen hasi omen zen lehenengo —esan zuen marinela.

— Bai ote? —esan zion Marvelak.

— Hasi, han hasi omen zen. Baina nondik zetorren, hori inork ez dakiela ematen du. Hona hemen: «Gertaera Harrigarriak Ipingen». Periodiko honek pisu handiko frogak aurkitu direla esaten du. Oso pisu handiko frogak.

— Jaungoiko maitea! —Marvelak.

— Istorio ezohikoa denik behintzat ezin ukatu! Erretore bat eta mediku bat dira lekuko nagusietakoak. Ikusezina ondo asko ikusi omen zuten... alegia, ez zuten ikusi. Coach and Horses ostatuan apopilo omen zegoen. Antza denez, inork ez zion antzeman haren zorigaitzari, «zorigaitza» esaten du hemen, harik eta ostatuan iskanbila sortu zelarik, dio, buruan zeramatzan bendak kendu zituen arte. Orduan ikusi omen zuten burua ikusezina zuela. Harrapatzeko aha-
leginak egin zituzten, baina arropa kenduta, esaten du, ihes egitea lortu zuen. Ihes egin aurretik borroka lazgarri bat ere izan zen ordea, eta haren ondorioz zauri larriak izan zituen, esaten du, gure polizia jaun duin eta eraginkorra den J. A. Jaffers jaunak. A ze istorioa, ezta? Izen eta guzti dakar!

— Jaungoiko maitea! —esan zuen Marvelek bere ingurura begira urduri. Patrikan zituen txanponak ukituz, zenbat diru zuen kontatzen ari zen; ideia bitxia bururatu zitzaion Txundigarria da!

— Bai, ezta? Ezohikoa, esango nuke nik. Gizon Ikusezinen entzuterik ez nuen; baina

hamaikatxo ez ohiko gauza entzuten dira gaur egun, eta tira!

— Eta hori al da egin duen guztia? —galdetu zion Marvelek, lasai zegoen itxura egin nahian.

— Bada zerbait, ala? —esan zuen marinela.

— Ez zen bueltatuko, baina? —galdetu zuen Marvelek lhes egin eta kitto, ez?

— Kitto! —marinela Zergatik? Ez al zaizu nahikoa egin duela iruditzen?

— Nahikoa eta gehiegi! —erantzun zion Marvelek.

— Niri, behintzat, nahikoa iruditzen zait —esan zuen marinela Bai, nahikoa iruditzen zait.

— Eta ez al zuen adixkiderik edo? Ez du adixkiderik aitatzen, ez? —galdetu zuen larri Marvelek.

— Bakarra ez al zaizu aski iruditzen? —esan zion marinela Ez, jaungoikoari eskerrak, ez zuen adixkiderik.

Eta burua mantso-mantso mugitu zuen.

— Kezkatuxe nago morroi hori gure herrialdean libre-libre dabilela jakinik. Garbi dago libre dagoela, eta aztarnen arabera Port Stowerako bidea hartzerako; hemen «hartu du» esan

nahiko zuela pentsatzen dut. Konturatzen zara gu ere honetan sartuta gaudela? Oraingo hau ez da zuk esaten zenuen Ameriketako berri horietakoa! Eta pentsa ezazu zer ez duen egingo! Zer egingo zenuke zure albotik eta gaineratik igaro eta zuri erasotzea bururatuko balitzaio? Pentsa ezazu lapurreta egin nahi duela: nork eragotzikio? Edonon sar daiteke, lapurreta egin dezake, polizia-lerro bat gaindi dezake zuk eta nik itsu bati ihes egin diezaiokegun bezain erraz. Errazago oraindik! Zeren itsuek belarri ona baitute, hala esaten dute behintzat. Eta gustuko pattarra aurkitzen badu, berriz,...

— Bai, abantaila handiak ditu —esan zuen Marvelek Eta... zera...

— Zeuk esan duzu —esan zuen marinela izan, baditu.

Marvel bere ingurura begira egon zen denbora guztian, oinatz ikusezinak entzun edo mugimendu somaezinak antzeman nahian. Garrantzizko erabaki bat hartzeko trantzean zela ematen zuen. Eskua ahora eraman eta eztula egin zuen.

Bere ingurura begiratu zuen berriro, eta entzuten gelditu zen. Marinelarengana makurtu eta ahots apalez mintzatu zitzaion:

— Egia esan, nik badakizkit gauza bat edo bi Gizon Ikusezin horri buruz. Iturri pribatu batek esanak.

— Ene! —esan zuen marinela oso interesaturik Zuk?

— Bai —erantzun zion Marvelek Neuk.

— A, bai? Bada, begira, jakin nahi nuke...

— Sor eta lor geratuko zinateke —esan zion eskua aho aurrean jarrita Marvelek Ikaragarria da!

— Benetan? —galdetu zion marinela.

— Begira, kontua da... —hasi zen, gartsu baina isilka, Marvel; baina horretan erabat aldatu zitzaion bisaia.

— Ai ene! —esan eta bankutik altxatu zen; minezko keinua agertu zen haren aurpegian.

— Ai! —esan zuen.

— Zer da? —esan zuen jakin-minez marinela.

— Hagineko mina —erantzun zion Marvelek, eta belarrira eraman zuen eskua. Liburuak hartu

zitzen Alde egin beharko dudala uste dut —esan zuen.

Solaskidearengandik urruntzean itzulinguru bitxia egin zuen eserlekuaren inguruan.

— Ez al zenidan, bada, Gizon Ikusezin horrena kontatu behar? —bota zion marinela haserre.

Marvel jauna bere golkorako hitz egiten ari zela zirudien.

— Dena gezurra —esan zuen ahots batek.

— Gezurra galanta! —Marvelek, ondoren.

— Periodikoan jartzen du, ordea —esan zuen marinela.

— Gezur biribila dela! —esan zuen Marvelek Ezaguna dut zurrumurrua zabaldu zuen gizona. Ez da Gizon Ikusezinik, horratx!

— Eta zer diozu periodikoak dakarrenaz? Zer esan nahi duzu horrekin?

— Hitz bat bera ere ez da egia —esan zuen zorrotz Marvelek.

Begira-begira gelditu zitzaion marinela, egunkaria eskuan zuela. Marvelek batera eta bestera begiratu zuen.

— Zaude, zaude pixka bat —esan zuen, ozen eta mantsoago, marinela Beraz, esan nahi duzu...

— Hori da! —esan zuen Marvelek.

— Orduan, zergatik utzi didazu istorio guztia kontatzen? Zergatik egon zara isil-isilik ni bezalako gizon bat bere burua horrela barregarri uzten ari zen bitartean? Ein?

Marvel jaunak masailak puztu eta bafa egin zuen. Marinela gorri-gorri eginda zegoen haserrearen haserrez; estu-estu egin zituen ukabilak.

— Hemen jardun dut hamar minutuan isildu ere egin gabe —esan zuen eta zu, trinpaundia halakoa, bota zahar baten seme aurpegi-zimel alaena, ez zara gai izan gizalegerik txikiena ere erakusteko.

— Ez etorri niri kontu horiekin! —esan zuen Marvelek.

— Kontuak, kontuak! Badakizu zer ari naizen pentsatzen...

— Goazen —esan zuen ahots batek, eta astindu bat hartuta behaztopaka bezala abiatu zen Marvel.

— Hobe duzu, bai, alde egitea! —esan zuen marinela.

— Zeinek alde egin behar du hemen? —galdetu zuen Marvelek.

Zeharka zihoan, bizkor-bizkor, norbait bultzatzen ari balitzaio bezala. Errepidean aurrera zihoala bera bakarrik hasi zen hizketan, errietaka eta agiraka.

— Demonio malapartatu alaena! —esan zuen marinela, hankak zabal-zabal eginda eta eskuak gerrian jarrita, urrutiratzen ari zen gizurdiari begira. Nik erakutsiko dizut zuri jendea engainatzen, nik erakutsiko dizudanez! Hemen-txe esaten ez du ba, periodikoan!

Marvelek zentzugabekeriaren bat erantzun zion, baina aurrera jarraitu eta bide bazter batean ezkutatu zen. Marinela bide erdian gelditu zen harro-harro, harik eta harakinaren orgak baztertzerantz behartu zuen arte. Gero Port Stowerra itzuli zen.

— Inozo ezohikoez beteta dago mundua —esan zuen bere golkorako. Ez zidan, ba, burua nahastu nahi txoro horrek! Periodikoan dator eta!

Handik gutxira beste gertaera harrigarri baten berri izan zuen, bere ondo-ondoan jazo zen gertaera batena, gainera: diru eskukada bat (zer eta diru eskukada bat!) bere kasa mugitzen ikusi zuten St. Michael Laneko kantoiko horman zehar. Beste marinela batek izan omen zuen ikuspen bitxi hura, goiz hartan bertan. Dirua harra-patzeko jauzi egitera zihoala buruan jo omen zuten, eta berriro zutik jartzeko gai izan zenerako diru hegalariaen arrastorik ez omen zen. Gure marinela oso sineskoia zela esan zuen, baina hura gehiegitxo iruditu zitzaion. Hala ere, geroago berriro aztertu zituen gertaera haiek.

Diru hegalariaen kontua egia zen. Auzoko toki gehienetatik, Londresko eta Konderriko Banketxe Konpainia ospetsutik besteak beste, diru-kutxetatik irten eta ihesi joan ziren diru hegalaria, eguzkia zela-eta irekita zeuden denda eta ostatuetako ateetatik. Dirua eskukadaka irteten zen; poliki-poliki joaten zen horma bazterretan eta itzaletan zehar hegan, eta gizadiaren begibistatik desagertzen zen. Eta inork jakin ez bazuen ere, diru haren hegaldi misteriotsua sedazko kapelu zirpildua zeraman eta Port Sto-

weko aldirietako ostatu atarian eserita zegoen
gizon urduri baten patrikan amaitzen zen.

15.

LASTERKA ZIHOAN GIZONA

Iluntzeko lehen orduetan Kemp doktorea langelan zegoen, bere etxeko talaian, Burdock gaineko muinora ematen zuen begiralekuan. Gela txikia zen, oso goxoa. Hiru leiho zituen —ipar, mendebal eta hegoaldera zientzia liburu eta argitalpenez beteriko arasak; idazmahai handi bat; eta, iparraldeko leihoaren azpian, mikroskopia bat, beirazko euskarritxoak, doitasun-tresnak, zenbait haztegi eta erreaktiboez beteriko ontziak han-hemen sakabanatuak. Eguzki-lanpara pizturik zuen Kemp doktoreak, nahiz eta arratseko eguzkiak argitzen zuen oraindik zerua eta errezelak jasota zeuden, kanpotik inork ezin baitzuen gela ikusi eta ez baitzen beharrezkoa haiek jaistea. Kemp doktorea gizaseme gazte, garai eta argala zen; ilehoria zen, eta bibotea ia erabat zuritua zuen. Burubelarri ari zen lanean, Errege Akademiako kide izateko aukera emango zion lan batean; hori uste zuen behintzat berak.

Bere begiek, lanetik apartatu eta eguzki distiratsua begiratu zuten, malda atzean nola ari zen ezkututzen. Minutu batez edo egon zen eserita, idazluma ahoan, hodeiertzak hartu zuen urre-kolorearekin liluratuta. Urrutian gizirudi bat zegoela ohartu zen, beltz-beltza, eta muinoan behera lasterka zihoala. Gizon moztaka zen, kapelu luzea zeukan, eta hain zebilen bizkor ezen bere oinek lurra ukitu ere ez baitzuten egiten ia.

— Hara! Beste ergel horietako bat —esan zuen bere artean Kemp doktoreak Gaur goizean kale-kantoian «Gizon Ikusezin bat dator, jauna!» esanez lasterka hurbildu zaidan hura bezalakoa. Ezin dut ulertu nola jartzen den jendea horrela, XIII. mendean bageunde bezala!

Zutitu, leihora joan eta hegi itzaltsura eta handik behera lasterka zihoan giziruditxoari begira gelditu zen.

— Estu dator nonbait —jarraitu zuen Kemp doktoreak baina gehiegi ere ez du aurreratzen. Poltsikoak berunez beterik balitu ere ezin mantsoago ibili! Tira, motel!

Gizon lasterkaria Burdockeko muinoko etxe gorenak ezkutatu zuen. Segituan agertu zen une batez atzera, eta gero berriro eta berriro, hiru aldiz, hurrengo hiru etxeen artean. Maldak erabat ezkutatu zuen, azkenik.

— Inozo alaenak! —esan, orpoen gainean jiratu eta idazmahaira itzuli zen doktorea.

Baina errepidean zeudela iheslaria hurbilago-tik ikusi eta haren aurpegi izerdituan izuikarazko keinu larri hura antzeman zutenek ez zuten doktoreak bezala mesprezurik sentitu. Aurrera egin zuen gizonak; lasterka egiten zuenean ondo beteriko diru-zaku bat batera eta bestera mugitzen denean bezalako hotsa ateratzen zuen. Ez zuen ez eskuin eta ez ezker begiratzen; haren begi zabalduak muinoan behera begiratzen zuten, argiak pizten eta jendea pilatzen hasia zen tokira. Ahoa desitxuratuta eta erdi zabalik zuen, ezpainak listu likatsuz estalirik, eta arnasa erlats eta zaratatsu. Bidean harekin topo egiten zuten guztiek gelditu, kolean gora eta behera begiratu, eta, kezkaturik, haren larritasunaren arrazoiazein ote zen galdetzen zioten elkarri.

Halako batean, muino gailurreko errepidean jolasean ari zen zakur batek intziri egin zuen, eta atari batean ezkutatu zen bizkor-bizkor. Jendea zer gertatzen zen asmatu ezinik zegoen artean; baina haize zurrunbilo bat, urrats-hotsa —ttap, ttap, ttap eta arnasestua entzun zuten beren ondotik igarotzen.

Oihuka hasi ziren denak. Han-hemen barreiatu ziren. Berria ahoz aho, senez, zabaldu eta iritsi zen muinoan behera. Marvel herrirako erdibidera iritsi zenerako oihuka ari zen jendea; berria entzun orduko etxeak giltzapetzen eta ateak ondo ixten hasi ziren. Bera ere konturatu zen, eta azken ahalegin etsia egin zuen garaiz iristearren. Izua ziztu batean iritsi zen, Marveli aurea hartuta, eta bere mende hartu zuen herri guztia.

— Gizon Ikusezina datorrela! Gizon Ikusezina!

16.

JOLLY CRICKETERS TABERNAN

Jolly Cricketers taberna muino magalean dago, trenbidea hasten den tokian bertan. Tabernaria, bere beso lodi gorriak mostradore gainean jarrita, zaldiez ari zen gaixo itxurako gurdizain batekin; beste gizon bat, bizar-beltza eta grisez jantzia, gazta eta taloa janez eta Burton edanez, amerikanoz ari zen lanetik libre zegoen polizia batekin.

— Zer dira orro horiek? —esan zuen gurdizainak, elkarriketaren haria eten eta ostatu goialdeko leihoetako errezel hori zikinen atzetik muinoan zer gertatzen ari ote zen ikusteko ahalaginetan.

Norbait lasterka igaro zen.

— Sua izango da, akaso —esan zuen tabernariak.

Urratsak hurbilago entzun ziren, laster astu-nean; horretan atea zabaldu zen indarrez, eta Marvel sartu zen arrapaladan, negar-zotinka eta ileak nahastuta, kapelua galduta eta jakaren

lepoa askatuta; jiratu, dardarka, eta atea ixten saiatu zen. Atea, lokarri batek eusten ziola, erdi irekita zeukaten.

— Badatorrela! —esan zuen izuturik Badatorrela Gizon Ikusezina! Atzetik segika datorkit! Jainkoaren izenean! Lagundu! Lagundu! Lagundu!

— Itxi ateak —esan zuen poliziak Nor dator, baina? Zer da iskanbila hori?

Ate aldera joan, askatu lokarria, eta atea danbateko batez itxi zen. Amerikarrak beste atea itxi zuen.

— Utzi sartzen! —erregutu zuen Marvelek, hasperenka eta negar-zotinka, baina liburuak bota gabe Utzi sartzen! Gorde nazazue non edo han. Esan dizuet atzetik segika datorkidala! Ihes egin diot! Hilko ninduela esan dit, eta hilko nau!

— Hemen seguru zaude —esan zion bizar beltzeko gizonak Atea itxita dago. Baina, zer da hau dena?

— Utzi barrura sartzen! —esan zuen Marvelek, eta izu-oihu ozen bat atera zitzaion, haize zurrumbilo batek atea, ondo itxita omen zena,

dardarazi zuenean. Kolpe urduriak eta oihuak entzun ziren kanpoan.

— Bai? —galdetu zuen poliziak, ozen Nor dabil hor?

Marvel hormako oholen kontra jauzika hasi zen etsi-etsian, etxera sartzeko ateak zirelakoan.

— Hil egingo nau, labana edo zerbait badu. Jainkoaren izenean!

— Zatoz hemendik —esan zion tabernariak Zatoz hona —esan eta mostradoreko oholtxoak altxatu zuen.

Marvel tabernaren atzealdera joan zen bizkor-bizkor; bitartean ate joka jarraitzen zuten kanpoan.

— Ez zabaldu aterik, gero —egin zuen oihu Mesedez ez zabaldu aterik. Non izkutatuko naiz?

— Gizon Ikusezina da, beraz? —galdetu zion bizar beltzeko gizonak, esku bat bizkar atzean zuela Ikus dezagun, ba, badugu garaia eta.

Halako batean ostatuko leihoa hautsi zen, eta oihuak eta lasterketak entzun ziren kalean gora eta behera. Polizia bere eserleku gainetik begira zegoen, kanpoan ate joka nor ari ote zen

ikusteko. Gero aulkitik lurrera jaitsi zen, bekainak jasorik.

— Bera da, bai —esan zuen.

Tabernaria zutik zegoen leiho hautsiari begira, Marvelek ezkutaleku hartu zuen tabernako barruko gelako ate parean. Gero beste bi gizonengana joan zen.

Bat-batean isil-isilik gelditu zen dena.

— Makila aldean banu... —esan zuen poli-
ziak, duda-mudan aterantz eginez Atea zabaldu
eta behingoan sartuko da. Ezingo diogu galarazi.

— Atea zabaltzeko presarik ez izan —esan
zuen gaixo itxurako gurdizainak.

— Ireki kisketa —esan zuen bizar beltzeko
gizonak eta sartzen bada... —eta eskuan zeu-
kan errebolberra erakutsi zuen.

— Ezin duzu halakorik egin —esan zion poli-
ziak Hori hilketa da.

— Badakit zein konderritan nagoen —eran-
tzun zuen bizardunak Hanketara tirako diot. Ireki
kisketa.

— Iskanbila hau baretzen den arte ez dut ire-
kiko —esan zuen tabernariak, lepoa luzatuta
errezelagainetik begira.

— Tira —esan zuen bizar beltzeko gizonak, eta, errebolberra pronto, makurtu, eta kisketak ireki zituen. Tabernaria, gurdizaina eta polizia atzera jiratu ziren.

— Aurrera —esan zuen bizardunak apal, eta atzera egin zuen bere pistolarekin, ateko kiske-tei begira. Inor ez zen sartu, ordea; atea itxita gelditu zen. Handik bost minutura, beste gurdizain batek burua atetik kontu handiz sartu zuenean, nor sartuko zeuden oraindik barrukoak. Barruko gelako ate atzetik aurpegi larritu bat agertu eta informazio gehiago eman zien tabernakoei.

— Itxita al daude etxeko ate guztiak? —galdetu zuen Marvelek Inguruan dabil, etxe inguru guztian bueltaka. Deabruak berak baino gehiago daki horrek.

— Jaungoiko maitea! —esan zuen tabernari sendoak Beste ate bat bada atzean! Begira ditzagun ateak! Aitu! —eta ingurura begiratu zuen etsita. Barruko gelako atea danbateko batez itxi zen, giltza-hotsa entzun zuten Atarikoa eta gela pribatu bateko ateak gelditzen dira. Atariko atea...

Eta korrika irten zen tabernatik.

Minutu baten buruan han zen berriro, labana zorrotz bat hartuta.

— Atariko atea irekita zegoen —esan zuen, beheko ezpain lodia dardarka.

— Honezkero sartuko zen etxe barrura —esan zuen lehen gurdizainak.

— Sukaldean ez dago —esan zuen tabernariak Bi emakume ari dira han, eta gelako bazter guztietan zist-zast ibili naiz labanarekin. Emakumeek, behintzat, ez omen dute barruan dagoenik uste. Ez omen dute sentitu...

— Ondo itxi al duzu atea? —galdetu zion lehen gurdizainak.

— Aizu, badakit zertan ari naizen —esan zion tabernariak.

Bizardunak errebolberra gorde zuen. Eta gorde orduko mostradoreko ohola altxatu eta maratila jiratu zen, kisketa ireki zen zarata sorbat aterez, eta barruko gelako atea zabal-zabalik gelditu zen. Marvel entzun zuten, ehiztariek inguratutako untxi bat bezala intzirika, eta tabernakoak mostradorearen gainetik jauzi egin da, hari laguntzera joan ziren. Bizardunaren

errebolberra lanean hasi eta gela hondoko beirazko ispilua mila puskatan hautsi zen, kriskikraskaka.

Tabernaria Marvel zegoen gelan sartu zenean oso egokera bitxian aurkitu zuen, uzkur, atarira eta sukaldera ematen zuen ateari ostikoka. Honetan atea zabaldu zen. Tabernaria hara begira gelditu zen, zer egin ez zekiela. Marvel jauna arrastaka sukaldean sartu zen. Oihu bat entzun zen, ontzi-hotsa gero. Marvel hankaz gora gelditu zen lurrean, altxa nahi eta ezinean; zerbaitek sukaldeko atetik kanpora bultzatu zuen ordea, eta kisketa itxi zen azkenik.

Eta orduan polizia, azkenean tabernariari aurea hartuta, sukaldean sartu zen, eta haren atzetik bi gurdizainetako bat; Marvel astintzen ari zen esku ikusezinari eskumuturretik heldu zion poliziak, baina aurpegian jo zuten, eta atzerantz erori zen balantzaka. Gero atea ireki zen, eta Marvel ate atzean babesa hartzen ahalegindu zen amorratuta. Gurdizainak zerbaiti heldu zion.

— Harrapatu dut! —esan zuen.

Tabernariaren esku gorriek gorputz ikusezin bat atzaparkatu zuten.

— Hemen dut! —esan zuen tabernariak.

Marvel, libre ordurako, etzan lurrean eta borrokan ari zirenen hankartetik arrastaka alde egiten saiatu zen. Borrokalariak ate alboan ari ziren. Eta orduan entzun zen lehen aldiz Gizon Ikusezinaren ahotsa, poliziak behatz bat zapaldurik oihu ozen bat egin zuenean. Garrasika hasi zen, ukabilak errota-besoak bailiran astintzen. Gurdizainak intziri egin zuen eta uzkuritu egin zen, diafragmapean ostikoa hartuta. Barruko gela eta sukalde arteko atea itxi zen eta Marveli erretirada babestu zion. Sukaldean geldituak, berriz, ezerezari joka eta ezerezarekin borrokan aurkitu ziren.

— Nora joan da? —egin zuen oihu bizardunak Kanpora?

— Zatozte hemendik —esan zuen poliziak, eta atarira irten eta han gelditu zen. Harlauza zati bat txistu eginez belarri ondo-ondotik pasa zitzaion eta sukaldeko mahai gaineko ontzien kontra jo zuen.

— Nik erakutsiko diot horri —esan zuen bizar-beltzak. Eta altzairuzko upel bat pasa zen goardiaren besagainetik, eta bost tiro entzun ziren bata bestearen atzetik. Bizardunak misila etorri zen alderantz egin zuen tiro, baina horizontalean jiratuz eskua, tiroek atari estu hartako zoko guztiak jo zitzaten.

Gero isilik gelditu ziren denak.

— Bost tiro —esan zuen bizar-beltzak Horixe da onena. Lau batekoak eta komodina. Ekarri linterna bat. Zatozte, ea gorputza aurkitzen dugun.

17.

KEMP DOKTOREAREN BISITARIA

Kemp doktoreak bere ikerlanaz idazten jardun zuen tiro-hotsak entzun zituen arte. Pun, pun, pun entzun ziren, bata bestearen ondoren.

— Hara! —esan zuen adi-adi jarrita Kemp doktoreak, idazluma ahoan zuela Nor ari ote da Burdocken errebolberrarekin tiroka? Zer ote dute, oraingoan, ergel horiek?

Hegoaldeko leihora hurbildu, ireki leihoa eta soina leihotik aterata leiho argituei, kaleko gas-argiei, dendei eta gauak teilatu arteetan eratzen zituen gune ilunei begira gelditu zen.

— Muinoaren oinean jendea bildu dela dirudi —esan zuen Cricketerseneko inguruan edo.

Begira-begira jarraitu zuen. Hiri gainera begiratu zuen: itsasontzien argiei dizdiz zegien, eta kaiak, pabilioi argiztatu txiki hark, argi horiko harribitxi batek bezala argi egiten zuen urrutian. Ilgora zen, ilargia mendebaldeko muino gainean

zegoen dilindan, eta izarrak garbi-garbi ikusten ziren, tropiko aldean bezain distiratsu.

Bost minutuz edo etorkizuneko gizarte-bal-dintzei buruzko gogoeta sakonetan murgilduta, denboraren dimentsioaren baitan galduta egon ondoren, Kemp doktorea bere onera etorri zen hasperen eginez. Atzera leihoa itxi eta idazma-haira itzuli zen.

Ordu bete edo geroago ate nagusiko txirrinak jo zuen. Tiroak entzunez gero ganorarik gabe jardun zuen doktoreak, zer idazten ari zen kontu egin gabe. Entzuten jarri zen. Zerbitzariak atea nola zabaldu zuen entzun eta haren urratsak zurubian gora noiz sentituko gelditu zen; baina neskamea ez zen igo.

— Nor ote zen? —esan zuen Kemp doktoreak.

Lanean jarraitzeko ahalegina egin zuen, baina ezin izan zuen. Altxa, irten langelatik eta tranpalera jaitsi zen, lasterka; balaustradatik etxezainari deitu zion hura ezkaratzean ikusi bezain laster.

— Postaria al zen?

— Ez; jo eta korrika alde egingo zuten, jauna —erantzun zion andreak.

— Aztoraturik nabil gaur —esan zuen dokto-reak bere golkorako. Langelara itzuli, eta, orduan bai, gogo biziz ekin zion lanari; handik gutxira burubelarri ari zen lanean. Gelan entzu-ten ziren zarata bakarrak erlojuaren tik-tak hotsa eta lanparak mahaian irudikatzen zuen zirkulua-ren erdian bizkor-bizkor mugitzen zen lumaren hots apala ziren.

Ordu biak baino lehenxeago amaitu zuen Kemp doktoreak gau hartako lana. Zutitu, aha-rrausi egin eta zurubian behera jaitsi zen, ohera-tzeko asmoarekin. Jaka eta txalekoa kendu zitue-nean ordea, egarri zela ohartu zen. Kandela bat hartu eta jangelara jaitsi zen whisky eta seltz bila.

Ikerketek oso gizon begi-zorrotza bihurtu zuten Kemp doktorea, eta ezkaratzera itzuli zenean orban ilun bat ikusi zuen linoleoan, zuru-bi oineko alfonbraren ondoan. Gora zihoala lino-leoko orban hura zer ote zen galdetu zion bere buruari. Lanean ari zen, nonbait, haren subkon-tzientea. Dena dela, trasteak eskuan zituela

atzera jiratu, ezkaratzera joan, whiskya eta sifoia utzi eta orbana ukitzeko makurtu zen. Orbanak odol erdi lehortuaren tankera eta kolorea zuela ohartu zen, harridura larririk gabe, ordea.

Atzera trasteak hartu, eta, batera eta beste-ra begira, gora igo zen, odol orban hura zer ote zen asmatu ezinik. Tranpalean zerbait ikusi eta bertan gelditu zen harri eta zur: logelako maratilan ere odola zegoen.

Bere eskuak begiratu zituen, zauriren bat ote zuen. Garbi-garbi zeuzkan, ordea; gainera, orduantxe oroitu zen logelako atea irekita zegoela langelatik jaitsi zenetik eta ez zuela maratila ukitu beharrik izan. Gelan sartu zen. Aurpegian ez zitzaion larritasunik antzematen; ohi baino keinu erabakiagoa, akaso. Begirada zelatariaz den-dena aztertzen hasi zen. Ohe aldera begiratu zuen: ohe-estalkian odol orban bat ikusi zuen, eta maindirea zarrastaturik zegoen. Lehenengo aldiz gelan sartu zenean ez zen horretaz ohartu, zuzen-zuzenean apainmahaira joan baitzen. Ohe-jantziak nahasturik zeuden, norbait gainean eseri balitz bezala.

Ahots bat iruditu zitzaion, «Ala jainkoa! Kemp da eta!» esaten. Baina Kemp doktorea ez zen Ahotsetan sinesten duten horietakoa.

Maindire zimurtuak begiratu zituen. Ahots bat al zen, benetan? Berriro alde guztietara begiratu zuen, baina ez zuen ezer ikusi, ohe nahasi eta odolez orbandua besterik. Garbi-garbi entzun zuen konketaren alboan zerbait mugitzen ari zela. Gizon guztiek, baita ikasiene ere, izaten dute sineskeria bitxiren bat. Eta «Izu» deritzon sentipenak menderatu zuen doktorea. Gelako atea itxi, joan apainmahaira eta botila eta edalontzia han utzi zituen. Bera zegoen tokiaren eta konketaren artean harizko maindireaz egini-ko benda moduko bat ikusi zuen, biribilkatua eta odolez zikindua, airean dilindan.

Asaldaturik begiratu zuen benda: benda barne-hutsa zen, kiribilkatua eta lotua, baina barne-hutsa. Hura harrapatzeko aurrera egin nahi izan zuen, baina zerbaitek oztopo egin zion. Albotik mintzatu zen ahots batek hitz egin zion:

— Kemp! —esan zion Ahotsak.

— E? —esan zuen aho zabalik Kempek.

— Zaude lasai —esan zion Ahotsak Gizon Ikusezin bat naiz.

Kempek ez zion berehala erantzun; lotailuari so gelditu zen.

— Gizon Ikusezina —esan zuen.

— Gizon Ikusezin bat naiz —berriro Ahotsak.

Kempi goiz hartan bertan entzundako istorioa etorri zitzaion gogora, goizean barregarri iritzi zion istorio hura. Hasieran ez zegoen oso bel-durturik edo harriturik, ez zuen ematen. Geroago larritu zen.

— Hori dena gezur biribila zela uste nuen —esan zuen, goizean eman zituen arrazoiak gogoran Zer duzu, benda bat? —galdetu zuen.

— Bai —erantzun zion Gizon Ikusezinak.

— Ene! —esan zuen Kempek, esnatuz beza-la Tira, tira! Honek ez du zentzurik! Magiako trikimailuren bat edo izango da.

Aurreratu eta benda ukitzeko eskua luzatu zuenean hatz ikusezin batzuekin topo egin zuen.

Atzera egin eta zurbil-zurbil jarri zen.

— Lasaitu, Kemp, Jainkoarren! Laguntza behar dut. Zaude geldirik!

Eskuak besotik heldu zion. Kempek jo egin zuen.

— Kemp! —egin zuen oihu Ahotsak Kemp! Kemp lasaitu, arren! —eta heldukada are estutu zen.

Beso harengandik askatzeko grina larri batek hartu zuen Kemp. Bendatutako besoaren eskuak sorbaldatik heldu zioten Kemp, bultzakada bat eman eta ohe gainera erori zen Kemp ahoz gora. Ahoa zabaldu zuen oihu egiteko, baina maindi-rearen ertz bat sartu zitzaion hortz artean. Gizon Ikusezinak mendean harturik zeukan ia, baina Kempek besoak libre zituen eta sekulako kolpeak eta ostikoak ematen ahalegindu zen.

— Ez zaitez izan zentzugabea, entzun? —esan zion Gizon Ikusezinak, Kemp askatu gabe, nahiz eta honek kolpe bat eman zion saihetsetan Jainkoarren! Haserretu egingo nauzu azkenean. Zaude geldirik, ergel hori! —egin zuen oihu Gizon Ikusezinak Kempen belarrian.

Kempek borrokan jarraitu zuen apur batean baina, azkenik, etzanda gelditu zen.

— Oihu egiten baduzu, aurpegia txiki-txiki egingo dizut —esan zion Gizon Ikusezinak, eta maindirea ahotik atera zion.

— Gizon Ikusezin bat naiz. Eta ez da ez ergelkeria, ez eta magia kontua ere. Gizon Ikusezin bat naiz benetan. Eta zure laguntza behar dut. Ez dizut minik egin nahi, baina abarkadun ikarati bat bezala portatzen bazara zer edo zer egin beharko dut. Kemp, ez al zara nitaz oroitzen? Griffin naiz, unibertsitate-eskolan zurekin ibilia.

— Utz iezadazu altxatzen —esan zuen Kempek Ez dut alde egingo. Utz iezadazu apur batean eserita lasai egoten.

Eseri eta lepoa igurtzi zuen.

— Griffin naiz, unibertsitate-eskolakoa. Nire burua ikusezin bihurtu dut. Gizon arrunta naiz: zuk ezagutu zenuen gizon berbera, baina ikusezin bihurtua.

— Griffin? —esan zuen Kempek.

— Griffin —erantzun zion Ahotsak Zu baino ikasle gazteagoa, albinoa ia, sei oin garaia, eta zabala, aurpegi zuri-arrosa eta begi gorrixkak zituena; kimikako saria irabazi zuena.

— Nahasturik nago —esan zuen Kempek Burua biraka dabilkit. Zer zerikusi du honek guztiak Griffinekin?

— Nerau naizela Griffin!

Kemp pentsakor gelditu zen.

— Izugarria da —esan zuen Baina nola demonio bihur daiteke gizon bat ikusezin?

— Ez da demoniorik behar. Prozesu zentzuzko eta ulergarria da, guztiz.

— Izugarria da! —esan zuen Kempek Nola daiteke?

— Izugarri samarra da, bai. Baina zaurituta eta minez nago, eta leher eginda. Ala jainkoa! Kemp, kemen handiko gizona zara zu. Arren, har ezazu hau lasai. Jan-edana emaidazu, eta utzi hemen esertzen.

Bendari begira-begira zegoen Kemp, gelan zehar nola mugitzen zen. Zumezko aulki bat ohe albora arrastaka joan zela ikusi zuen. Eserlekuak karraska egin, eta hatz erdia edo beheratu zen. Kempek begiak eta lepoa igurtzi zituen berriro.

— Mamuena baino harrigarriagoa da hau —esan eta barre ergela egin zuen.

— Hobeto ari zara. Zeruari eskerrak, berreskuratu duzu zentzua!

— Edo ergeltasuna! —esan zuen Kempek, eta begiak hatz-kozkorrez igurtzi zituen.

— Emaidazu whisky apur bat. Erdi hilik nago eta!

— Ez da hainbesterako izango. Baina, non zaude? Altxatzen banaiz zure barrenetik igaroko al naiz? Tira, ondo da! Whiskya? Tori. Nola eman-go dizut, baina?

Karrask hotsa atera zuen aulkiak berriro, eta edalontziak eskutik nola ihes egiten zion sentitu zuen Kempek. Edalontzia askatu behar izan zuen, eskua zabalarazi baitzion zerbaitek. Bera zegoen tokitik hirurogei bat hatzera gelditu zen edalontzia, aulki ertzean. Kemp begira gelditu zen, harriduraren harriduraz.

— Hipnotismo kontua izan behar du. Sugestioaren bidez zu ikusezina zarela sinestرازiko zenidan.

— Hori da erokeria! —esan zuen Ahotsak.

— Honek ez du zentzurik, ordea.

— Entzuidazu...

— Gaur goizean zalantzari biderik utzi gabe frogatu dut —hasi zen Kemp ikusezintasuna, zera...

— Bost axola niri zuk zer frogatu duzun! Goseak amorratzen nago —esan zuen Ahotsak eta gauak oso hotzak dira gizon bat biluzik ibiltzeko.

— Janaria? —esan zuen Kempek.

Whiskyz beteriko edalontzia bere kabuz bezala okertu zen.

— Bai —esan zion tragoska egin ondoren Gizon Ikusezinak Eta ba al duzu etxeko batarik?

Kempek hasperen egin zuen. Jantziak gordezten zituen armairura joan eta bata gorrixka hits bat atera zuen.

— Nahikoa duzu hau? —galdetu zuen, eta batak eskuartetik ihes egin zion. Airean dilindan gelditu, hega-bira bitxi batzuk egin eta, zutik jarriarik, botoiak txukun-txukun lotu zitzaizkion batari. Gero aulkian eseri zen.

— Galtzak, galtzerdiak eta zapatilak ere hartuko nituzke —esan zuen Ikusezinak lehor Eta janaria, noski.

— Nahi duzuna. Baina hau da sekula bizi izan dudana egoera zentzugabeena!

Armairuko tiraderak ireki zituen jantziak ateratzeko; ondoren, jaki-biltegia miatzera jaitsi zen. Sahieski hotz apur bat eta ogia hartuta itzuli zen; mahaitxo bat hartu eta gonbidatuaren aurrean ezarri zituen guztiak.

— Ez dut labanarik behar —esan zuen bisitariak, eta sahieski puska bat dilindan gelditu eta hozka-hotsa entzun zen.

— Ikusezina! —esan zuen Kempek, eta aulki batean eseri zen.

— Otorduetarako nahiago izaten dut jantzita egotea —esan zuen Gizon Ikusezinak, ahoa beteta, ase ezinik Bai apeta bitxia nirea, ezta?

— Eskumuturra ondo izango duzu, ez? —galdetu zion Kempek.

— Bai, bai —erantzun zuen Gizon Ikusezinak.

— Hau da gauza bitxi eta harrigarria...

— Bai, hala da. Ezusteko atsegina izan dut benda bila hasi eta zure etxean sartu izana. Hau da ongi atera zaidan lehenengo gauza. Dena dela, hemen lo egitea neukan pentsatuta. Zeurean hartu beharko nauzu, beraz. Nazkagarria

eta higuingarria da alde guztietan nire odola ikusi beharra, ezta? Gatzatu egin da. Antza denez, ikusgai bihurtzen da gatzatuz gero. Eta orain dela hiru ordu sartu naiz zurera.

— Baina nola liteke? —hasi zen Kemp, gogaiturik Arraioa! Kontu honek ez du ez buru eta ez hanka.

— Ez. Arrazoizkoa da —esan zion Gizon Iku-sezinak Erabat arrazoizkoa.

Besoa luzatu eta whisky botila hartu zuen. Kempek bata ase-ezinari begiratu zion. Eskuineko sorbaldako zartatu batetik sartzen zen argi izpiak triangelu formako irudi bat osatzen zuen ezkerreko saihetsen azpian.

— Zer ziren tiro haiek? —galdetu zuen Kempek Zer dela eta hasi dira tiroka?

— Gizontxo ergel bat zen, nire konplize modukoa zena. Madarikatu hura! Dirua lapurtu nahi izan dit; alegia, lapurtu egin dit.

— Bera ere Ikusezina al da?

— Ez.

— Orduan?

— Ezin al dut beste zerbait jan ezer kontatzen hasi aurretik? Goseak eta minak nago. Nola nahi duzu horrela kontu-kontari aritzea?

Kemp zutik jarri zen.

— Ez al duzu zuk tiro egin? —galdetu zion.

— Ez, ez, nik ez —erantzun zion bisitariak. Lehendik ezagutzen ez nuen inozo batek egin du, airera. Beldurtu egin dira. Nire beldur dira denak. Doazela pikutara! Baina, Kemp, zerbait gehiago jan nahi nuke.

— Behera noa, jateko beste ezer badagoen begiratzera —esan zuen Kempek Baina ez dut uste askorik dagoenik.

Jan ondoren, eta bapo jan zuen, Gizon Ikusezinak zigarroa eskatu zion. Kemp-i labana aurkitzeko denborarik eman gabe kosk egin zion zigarro muturrari; biraoa egin zuen kanpoaldeko hostoa askatu zelako. Oso bitxia zen Gizon Ikusezina erretzen ikustea; haren ahoa, eztarria, faringea eta sudur-hegalak kebidre-sare bat bezala ikustea.

— Hau plazerra, erretzea! —esan zuen, eta sakon hartu zuen arnasa Hau zoriona, zurekin topo egin izana, Kemp! Lagundu egin behar

didazu. Norekin, eta zurekin topo egin behar! Arazo handi bat dut. Ero baten moduan jokatu dudala uste dut. Gorriak ikusi ditut! Baina gauza handiak lortuko ditugu elkarrekin. Dena azalduko dizut.

Whisky eta seltz gehiago hartu zuen. Kemp zutitu, Ikusezinari begiratu eta beste edalontzi bat ekarri zuen gonbidatuen gelatik.

— Hau eromena da. Neuk ere zerbait hartuko dut.

— Ez zara asko aldatu, Kemp, hamabi urte hauetan. Izan ere, hilehoriak ez zarete asko aldatzen diren horietakoak. Hotzak eta eratsuak izaten zarete, hasierako alditxarra gainditu ostean. Entzun esaten dizudana. Elkarrekin lan egingo dugu!

— Baina nola egiten da? —esan zuen Kemp. Nola iritsi zinen egoera honetara?

— Jainkoaren izenean, utz iezadazu lasai erretzen. Gero kontatuko dizut den-dena.

Baina istorioa ez zuen gau hartan kontatu. Gizon Ikusezinari mina jarri zitzaion eskumuturrean; sukarrez zegoen, nekeak erreta; eta mui-noan beherako ihesaldian eta ostatuko borrokal-

dian zuen gogo. Tarteka-tarteka Marvel jaunari buruz mintzatzen zen; gogo biziz erre zuen; haserre-ahotsa jarri zitzaion. Kemp ahal zuen informazio guztia ateratzen saiatu zen.

— Beldur zen nitaz, bistakoa zen beldurra ematen niola —esaten zuen Gizon Ikusezinak behin eta berriro lhes egin nahi zidan... Horretan saiatzen zen beti! Bai inozoa izan nintzela! Azpi-sugea halakoa! Hil egin behar nuen!

— Nondik atera zenuen dirua? —galdetu zuen zakar Kempek.

Une batean isilik gelditu zen Gizon Ikusezina.

— Hori ezin diezazuket gaur esan —erantzun zion.

Intziri egin, makurtu aurrerantz, eta esku ikusezinez heldu zuen buru ikusezina.

— Kemp —esan zion Hiru egunetan ez dut lorik egin ia: ordu beteko bi lo-kuluxka edo, besterik ez. Lo egin behar dut.

— Ondo da, neure gela utziko dizut. Hartu gela hauxe.

— Baina nola lokartuko naiz? Lo hartzen badut ihes egingo du. Tira! Zer axola?

— Zer moduz zauri hori? —galdetu zion zakar Kempek.

— Ongi: atzamarkada bat eta odola besterik ez da. Baina, ene! Hau logura!

— Eta zergatik ez zara, bada, lokartzen?

Gizon Ikusezina Kempri begira gelditu zela zirudien.

— Ez nukeelako ni harrapatu nahian dabil-tzanen esku geratu nahi —esan zuen mantso-mantso.

Kemp asaldatu egin zen.

— Ni bai inozoa! —esan eta mahaia indarrez jo zuen Gizon Ikusezinak Neuk eman dizut ideia!

18.

GIZON IKUSEZINA LO

Gizon Ikusezinak, nekeak jota eta zaurituta egonagatik, ez zituen Kempen hitzak sinetsi bere askatasuna errespetatuko zuela esan zionean. Hala, logelako bi leihoak begiratu, jaso errezelak eta leihoak zabaldu zituen, Kempek esandakoa, handik nahi zuenean ihes egin ahal izango zuela alegia, egia zen ala ez ikusteko. Kanpoan gau isila zen, gau lasaia; ilargi berria muino gainean zegoen dilindan. Gero gelako giltzak eta bi jantzigeletako ateak aztertu zituen, haiek ere ezkultaleku izan zitzakeen ala ez ikusteko. Ikusitakoa-ekin gustura gelditu zen azkenean. Sutondo aurreko alfonbran zutik gelditu zen. Kempek aharrausi bat entzun zuen.

— Barka iezadazu egin ditudan gauza guztiak gaur gauean ez kontatzea —esan zion Gizon Ikusezinak Baina leher eginda nago. Badakit oso gogorra dela. Izugarria da! Baina sinetsidazu, Kemp; gaur goizean esan dituzunak esanagatik ere, ikusezintasuna gertakari posiblea da. Aurki-

kuntza bat egin nuen. Niretzako gordetzeko asmoa nuen. Baina ezin dut. Lankide bat behar dut. Eta zuk... guk hainbeste gauza egin ditzakegu elkarrekin! Baina bihar. Orain, Kemp, lo egi-ten ez badut hil egingo naizela uste dut.

Kemp gela erdian zutik zegoen, bururik gabe-ko batari begira.

— Bakarrik geratu nahiko duzu, noski —esan zuen Sinestezina da! Horrelako asko gertatuko balira, nire ideia guztiak behera etorriko lirateke, erotu egingo nintzateke. Baina egia da! Ezer gehiago nahi al duzu?

— Gabon esatea baino ez —erantzun zuen Griffinek.

— Gabon, bada —esan eta esku ikusezin bat estutu zuen Kempek.

Zuzenean ate aldera joan zen. Horretan, bere bata hurbildu zitzaion bizkor-bizkor.

— Ulertu didazu, ez? —esan zuen bata gorriak Ez saiatu ni geldiarazten edo harrapa-tzen! Bestela...

Kempi begitartea aldatu zitzaion.

— Hitz eman dizut, oker ez banago —esan zuen.

Kempek indarrez itxi zuen atea irtetean; hura irten bezain laster sarrailako giltza jiratu egin zen. Asaldurak sorgortuta gelditu zen atera begira; urrats bizkor batzuk entzun zituen atetik armairura, eta armairuko atea ere itxi zen.

— Ametsetan ari ote naiz? Mundua erotu da, ala neu naiz ero bihurtu dena?

Barre egin eta ate itxia ukitu zuen.

— Nire logelatik egotzi naute, zergatik, eta hau bezalako zentzugabekeria ageriko batengatik! —esan zuen.

Zurubira joan, jiratu atzera burua eta ate itxia begiratu zuen berriro.

— Egia da hau guztia —esan eta hatzak lepo minberatura eramane zituen.

— Zalantzarik ez dago horretaz. Baina...

Burua mugitu zuen etsi-etsi eginda, jiratu zen eta mailak jaitsi zituen.

Egongelako argia piztu, zigarro bat hartu eta hara-hona hasi zen gelan, harridura-hotsak atereaz. Tarteka bere buruarekin eztabaida ere egingen zuen.

— Ikusezina! —esan zuen Ba al da, bada, animalia ikusezinik edo halakorik? Itsasoan bai.

Milaka, milioika! Larba guztiak, naupilus eta tornariak, izaki mikroskopiko guztiak, marmukak... Bai, itsasoan izaki ikusezin gehiago daude ikusgai baino! Ez nintzen sekula horretan pentsatzen jarri. Eta ur geldietan ere bai! Ur geldietan bizi diren izaki txiki horiek guztiak, jelatina garden eta kolorerik gabeko partikula horiek! Baina, eguratsean? Ez!

‘Ezinezkoa da.

‘Zergatik ez, baina?

‘Gizona beti izango da ikusgai, baita kristalezkoa bada ere!

Gogoeta sakonetan murgildu zen. Berriro hitz egin zuenerako hiru zigarro bihurtu ziren ikusezin, edo galdu ziren hauts zuri moduan alfonbran zehar. Hasperen egin zuen. Alde batera jiratu, irten gelatik eta bere kontsulta-gela txikian sartu zen. Gasezko lanpara piztu zuen. Gela txikia zen, hura ez baitzen Kemp doktorearen bizibidea. Eguneko egunkariak zituen bertan. Goizeko egunkaria hala moduz zabalduta zegoen, bazter batean botata. Hartu zuen, orriari buelta eman zion eta «Gertaera Harrigarriak Ipingen» zioen kontakizuna irakurtzen hasi zen: Port Stowen

marinelak Marveli zehatz-mehatz eta ardura handiz kontaturiko istorio hura bera zen. Kempek zitzu batean irakurri zuen.

— Mozorroturik! —esan zuen Kempek Disfrazaturik! Jendearen ikusmiratik ezkutatzeko. «Antza denez, inork ez zion antzeman haren zoritxarrari.» Zeren bila dabil, baina?

Egunkaria tolestu eta hara-hona begiratu zuen.

— Ah! —esan eta *St. James' Gazette* egunkaria hartu zuen, artean iritsi zen bezalaxe tolestuta zegoena.

— Orain jakingo dugu egia! —esan zuen.

Egunkaria ireki eta bi zutabe aurkitu zituen aurre-aurrean: «Sussexko Herri Bat Erotu» zuen izenburu.

— Jainkoarren! —esan zuen Kempek, aurreko arratsaldean Ipingen gertatutakoaren kontakizun sinesgaitza, hemen jadanik deskribatu dena, jakin-min larriz irakurtzen ari zela. Lehenengo orrian goizeko egunkariko artikulua bera atera zuten berriro.

Kempek berriro irakurri zuen.

— Kaleetan zehar lasterka, ezker-eskuin kolpeak joaz. Jaffers konortea galduta. Huxter jauna minaren minez, ikusitakoa kontatzeko ere ahalmenik gabe. Erretorea lotsagarri, gutxietsita. Emakumea izuak jota! Leihoak txikituta. Istorio harrigarria, asmakeria hutsa agian. Baina onegia argitaratu gabe uzteko... *cum grano*.

Egunkaria bota eta aurrera begira gelditu zen, tutik ulertu gabe.

— Bai, asmakeria hutsa izango da!

Egunkaria hartu eta istorio guztia irakurri zuen berriro.

— Baina noiz agertzen da arlotea? Zer demontregatik zebilen arlote bati segika?

Kirurgia-ohean eseri zen astun.

— Ikusezina bakarrik ez —esan zuen eroa ere bada! Hiltzailea!

Egunsentiko lehen brintzen zurbiltasuna egongelako lanpararen argiarekin eta zigarro kearekin nahastu zenean Kemp gelan hara-hona zebilen oraindik, sinegaitza zena sinesteko ahalleginetan.

Asaldatuegia zegoen lo egin ahal izateko. Zerbitzariak, erdi lotan jaitsi zirenean, han aurki-

tu zuten; lan gehiegi egin izanak gaixotu zuela uste izan zuten. Kempek agindu bitxi baina oso argiak eman zizkien: talaiko langelan bi lagunentzako gosaria prestatzeko, eta gero guztiak sotoan edo lehenengo solairuan gelditzeko. Egongelari gelditu zen bera, atzera eta aurrera, goizeko egunkaria iritsi zain. Kontatzeko asko eta esateko gutxi zuen egunkari hark: aurreko arratsekoa baieztatu eta Port Burdocken jazotako beste istorio bitxi baten kontakizun traketsa, hori besterik ez zekarren. Horrela izan zuen Kempek Jolly Cricketersen gertatuaren eta Marvel izenaren berri. «Hogeita lau orduz berarekin egotera behartu nau», aitortzen zuen Marvelek. Garrantzirik gabeko beste xehetasun batzuk ematen zituen Ipingeko gertaerei buruz, besteak beste, telegrafo-hariak mozturik aurkitu zituztela. Baina Kempek ez zuen loturarik ikusten Gizon Ikusezinen eta arlote haren artean; jakina, Marvel jaunak ez baitzituen hiru liburuak edo bere esku gelditu zen diru mordoxka aipatu ere egin. Hasierako sinesgabetasun-kutsua desagertua zen ordurako, eta kazetariak eta galdetzaileak

gertakarien atze-aurreak lotzen ari ziren burubelarri.

Kempek goitik behera irakurri zuen berria eta etxezaina kalera bidali zuen goizeko egunkari guztiak, aurkitzen zituen guztiak, eroatera. Eta haiek ere irentsi zituen.

— Ikusezina da! —esan zuen Eta gero eta apeta gehiago dituela esaten du hemen! Zer ez ote duen honek egingo! Zer ez ote duen egingo! Eta hor goian dago, haizea bezain libre. Zer arraio egin behar dut nik?

‘Adibidez, gaizki egingo al nuke...? Ez.

Bazterreko idazmahai nahaspilatu samarrera joan eta ohar bat idazten hasi zen. Erdia idatzita zuenean hura apurtu eta beste bat idazten hasi zen. Oharra osorik irakurri eta ontzat eman zuen, azkenik. Gero, gutun-azal bat hartu eta «Adye Koronela, Port Burdock» jarri zuen.

Kemp horretan ari zela Gizon Ikusezina esnatu egin zen. Aldarte txarreko esnatu zen, antza; Kempek, ordea, hotsik txikiena ere antzemateko adi-adi baitzen, haren urratsak entzun zituen goiko gelan batetik bestera, bizkor-bizkor. Gero aulki bat erori zen eta konketa mila puskatan

hautsi zen. Zurubian gora ziztu batean igo eta
atea jo zuen Kempek indarrez.

19.

GINARRIZKO PRINTZPIO ZENBAIT

— Zer da? —galdetu zuen Kempek, Gizon Ikusezinak gelan sartzen utzi zionean.

— Ezer ez —erantzun zuen.

— Ezer ez! Eta zarata hori?

— Amorraldi bat —esan zuen Gizon Ikusezinak Ahaztuta nengoen besokoaz. Minbera daukat.

— Gutxigatik amorratzen diren horietakoa zara ala?

— Bai.

Gelaren beste aldera joan eta hautsitako beira puskak jaso zituen Kempek.

— Zure gora-behera guztiak argitaratu dira —esan zuen Kempek, beira puskak hartuta Ipingen gertatutako dena, eta baita muino aldeko guztiak ere. Munduak jakin du hiritar ikusezin bat duela. Baina inork ez daki hemen zaudenik.

Birao egin zuen Gizon Ikusezinak.

— Zure sekretua agerian gelditu da. Nik sekretu uste izan nuena. Ez dakit zer asmo izango duzun, baina, nolanahi ere, zuri laguntzeko prest nago, noski.

Ohe gainean eseri zen Gizon Ikusezina.

— Gosaria zain dugu goian —esan zuen ahal bezain lasai Kempek; poz handia hartu zuen bere gonbidatu bitxia pozik altxatu zela ikustean. Kemp aurretik abiatu zen talaira igotzeko zurubi estuan gora.

— Ezer baino lehen —esan zuen Kempek xehetasun gehiago beharko nituzke zure ikusezintasun horretaz.

Leihotik urduri begiratu ondoren eseri egin zen, hizketaldi luzea egiteko prest dagoen gizon baten moduan. Bitxikeria haren egitasunari buruz zituen zalantza guztiak argitu zitzaizkion. Kemi gosaria zegoen mahaitxoaren alboan Griffin eserita zegoen tokira begiratu zuenean: bata burugabe eta eskugabe bat ezpain ikusezin batzuk garbitzen ari zen airean mirariz bezala zegoen zapi batekin.

— Erraza da, aski sinesgarria —esan zuen Griffinek, eta zapia alde batera utzita buru ikusezina esku ikusezinaren gainean ezarri zuen.

— Zuretzat agian bai, baina... —barre egin zuen Kempek.

— Egia da, bai; niri ere hasieran zoragarria iruditu zitzaidan, ez dut ukatuko. Baina orain, Jainko maitea! Dena dela, gauza handiak egingo ditugu aurrerantzean. Chesilstowen bururatu zitzaidan ideia.

— Chesilstowen?

— Hara joan nintzen Londrestik aldegin ondoren. Jakingo duzu medikuntza utzi eta fisikarekin hasi nintzela, ezta? Ez? Bada, bai; horixe egin nuen. Argiak liluratu egiten ninduen eta.

— A!

— Dentsitate optikoa! Gai hori misterioez osaturiko sare bat da, une batez soilik ikus ditzakezun soluzioen sare bat. Eta hogeita bi urte bakarrik nituenez eta gogo-bero nintzenez, esan nion neure buruari: «Hau ikertzen emango dut bizia. Merezi du eta.» Badakizu zeinen buruga-beak izaten garen hogeita bi urterekin!

— Burugabe orduan edo burugabe orain? —
esan zuen Kempek.

— Jakituriak gizonari inolako atseginik eka-
rriko balio bezala! Baina lanari ekin nion, burube-
larri ekin ere. Gai hau lantzen eta aztertzen hasi
eta handik sei bat hilabetera argi itsugarri bat
igaro zen ustekabearen sareetako batetik. Pigmen-
tuen eta errefrakzioaren printzipio orokor bat
aurkitu nuen, formula bat, lau dimentsioko adie-
razpen geometriko bat. Ezjakinek, gizon arrun-
tek, matematikari arruntek ere, ez dakite ondo
adierazpen arrunt batek zer esan nahi duen
molekulen fisikako ikasle batentzat! Liburuetan,
arroteak ezkutatu dituen liburu haietan, gauza
zoragarriak agertzen dira, mirariak! Nik aurkitu-
takoa ez zen metodo bat ordea, ideia bat baizik.
Baina ideia horren bidez metodo bat lor liteke,
eta metodo horren bidez posible litzateke mate-
riaren gainerako tasunak aldatu gabe, kolorea
izan ezik, eta hori ere kasu batzuetan bakarrik,
gai solido edo gai likido baten errefrakzio indizea
murriztea, airearen errefrakzio indizera iristerai-
no.

— Fiiiu! —esan zuen Kempek Litekeena da. Baina oraindik ulertzen ez dudana zera da... Tira. Ulertzen dut harri bitxi bat desagerraraz dezakezula horrela, baina hortik gizonak ikusezin bihurtzera...

— Horixe! —esan zuen Griffinek Baina pentsa ezazu: ikusgaitasuna gorputzetan argiak duen eraginak sortua da. Gorputz batek bereganatzen duen argiaren eta islatzen, edo errefraktatzen duen argiaren, edo horren guztiaren arabera da gorputz bat ikusgaia. Baldin eta gorputz batek ez badu argirik islatzen, errefraktatzen edo bereganatzen, gorputz hori ezingo da ikusi. Zuk kutxa gorri opako bat ikusten baduzu, adibidez, esan nahi du koloreak argi kopuru jakin bat bereganatzen duela eta gainerakoa, argiaren osagai gorria alegia, zugana islatzen. Ez badu argiaren osagairik batere bereganatzen, eta argi guztia islatzen badu, orduan, zuria eta distiratsua izango litzateke kutxa. Zilarrezkoa! Diamantezko kutxa batek gainalde arruntetan ez du argi kopuru handirik bereganatzen, ezta islatzen ere, baina han-hemeka, gainalde jakin batzuetan, argia islatzen eta errefraktatzen da; eta

horrela isla eta gardentasun distiratsua ikusiko zenuke, argizko hezurdura moduko bat. Beirazko kutxa bat ez litzateke hain distiratsua izango, ezta hain ikusgaia ere —ez diamantezko kutxa adina behintzat haren isla edo errefrakzioa apalagoa izango litzatekeelako. Konturatzen zara? Ikuspuntu batzuetatik garbi-garbi ikusiko zenuke kutxan zehar beste aldea. Beira mota batzuk, gainera, ikusgaiagoak dira besteak baino; adibidez silex beirazko kutxa bat distiratsuagoa litzateke leihoak egiteko erabiltzen denaren moduko beira arruntezko kutxa bat baino. Beira arrunt baina oso finez egindako kutxa bat, berriz, ia ikusezina litzateke argia apala balitz, ezingo lukeelako argirik bereganatu ia eta oso gutxi islatu eta errefraktatuko lukeelako. Beira zuri arruntezko xafla bat ordea, baldin eta uretan, eta are gehiago ura baino dentsitate garaia goko beste isurkari batean, sartuko bazenu, desagertu egingo litzateke ia, uretatik beirara pasatzen den argia apenas islatzen edo errefraktatzen delako, edo xaflari inolako eraginik egiten ez diolako. Ia ikusezina izango litzateke, metanoa edo hidrogenoa

airetan bezain ikusezin ia. Eta arrazoi berberagatik!

— Bai —esan zuen Kempek orain artekoak ulertzen ditut.

— Beste arrazoi bat ere emango dizut, zuk ere ezagutuko duzuna. Beirazko xafla bat txikitzen bada, Kemp, eta hauts bihurtzen, airean askoz ere ikusgaiagoa bihurtzen da; hauts opako eta zuri bihurtzen da. Isla edo errefrakzioa gertatzen den beirazko gainaldeak beira haustuan ugaritu egiten direlako gertatzen da hori. Beirazko xaflan bi gainalde bakarrik daude; hautsean, berriz, beirazko partikula bakoitzetik igarotzen den argia islatzen edo errefraktatzen da, eta partikulek oso argi gutxi bereganatzen dute. Baina beira-hauts zuria uretan sartzen bada, desager-tu egingo da. Beira-hautsak eta urak antzeko errefrakzio maila dute; hau da, argi gutxi islatzen edo errefraktatzen da batetik bestera igarotzen denean.

‘Beira ikusezin bihur dezakezu baldin eta beiraren antzeko errefrakzio maila duen likido batean murgiltzen baduzu; gauzaki garden bat ikusezin bihurtzen da haren errefrakzio maila

beretsua duen ingurune batean ezartzen bada. Eta apur bat pentsatzen baduzu, konturatuko zara beira-hautsa airean ere desagerraraz litekeela, baldin eta beirari airearen errefrakzio maila ematen bazaio; izan ere, ez litzateke islarik edo errefrakziorik gertatuko argia beiratik airera igarotzean.

— Bai, bai —esan zuen Kempek Baina gizonak ez dira beira-hautsezkoak!

— Ez —esan zuen Griffinek Hura baino are gardenagoak baizik!

— Hori da astakeria!

— Nork eta mediku batek esan behar! Erraz ahazten dira gero gauzak! Orain dela hamar urte egin zenituen fisikako ikasketak ahaztuta al dituzu dagoeneko? Pentsa ezazu zenbat gauza diren gardenak baina ez duten garden ematen. Papera, adibidez, zuntz gardenez dago egina, baina zuria eta opakoa da, beira-hautsa zuria eta opakoa den arrazoi berberagatik. Busti ezazu paper zuri bat olio, bete itzazu partikula arteko tarte guztiak olio, gainaldeetan bakarrik gerta dadin isla edo errefrakzioa, eta beira bezain gardena bihurtuko zaizu. Eta ez papera bakarrik, baita

kotoi zuntza, liho zuntza, artile zuntza, egur zuntza eta hezurak, Kemp; haragia, Kemp; ilea, Kemp; hazkazalak eta nerbioak, Kemp; alegia, gizon baten gorputzeko atal guztiak ehun garden eta koloregabeek osatuak dira, odolaren gorria edo ilearen pigmentu beltza izan ezik. Horiek aski dira gutako bakoitza besteren begietara ikusgai izateko. Baina izaki bizidun baten zuntzak, oro har, ez dira ura baino opakoagoak.

— Jaungoiko maitea! —Kempek jakina, jakina! Bart gauean bertan itsas larbetan eta marmuketan pentsatzen jardun nuen!

— Ulertu duzu, beraz! Hau guztia banekien eta buruan bueltaka nerabilen Londrestik alde egin baino urte bete lehenago, orain dela sei urte, beraz. Baina ez nion inori ezer esan. Oztopo izugarri askori egin behar izan nion aurre neure lanean. Oliver, nire irakaslea, zientzialari lotsagabe bat zen, kazetari sena zuen: ideiak lapurtzen zituen, beti zelatan ibiltzen zen! Zuk ere badakizu zientzien sistema zein den zitala! Ezer ere ez argitaratzea erabaki nuen neure ospea harekin ez erdibanatzeagatik. Baina lanean jarraitu nuen. Gero eta gutxiago falta

zitzaidan neure formula hura esperimentu, errealitate bihurtzeko. Ez nion inortxori ezer esan neure lana argitaratzean mundua harritu nahi nuelako, goizetik gauera ospetsu bihurtu nahi nuelako. Hala, pigmentuak aztertu nituen zenbait zalantza argitzeko. Eta ustekabean, ez hala erabakita, istripu baten ondorioz baizik, fisiologiako aurkikuntza bat egin nuen!

— Bai?

— Ezagutzen duzu odolaren koloregai gorria; bada, koloregai hori zuri bihur daiteke, koloregabe alegia, bere zereginak betetzeko gaitasuna galdu gabe.

Hura sinetsi ezinik, oihu egin zuen Kempek.

Gizon Ikusezina zutitu eta langela txikian mugitzen hasi zen.

— Bai, egin oihu, bai. Ondo gogoan dut gau hura! Berandu zen, gaua; egunez ikasle ergel zozo batzuek arduratu behar izaten nuen, eta egunsentia arte lanean geratzen nintzen sarritan. Halako batean ideia bat bururatu zitzaidan; liluragarri eta garbi-garbi ikusi nuen. Bakarrik nengoen; dena lasai zegoen laboratorioan, argi garaiak dizdiz, isilik. Horrelakoetan izaten nituen

une atseginenak, bakarrik nengoenean. «Anima-
lia bat, ehun bat garden bihur daiteke! Ikusezin
bihur daiteke! Pigmentuak izan ezik! Beraz, neu
ere ikusezin bihur ninteke!» esan nuen, gauza
horiek guztiak dakizkien albino bat izateak zer
esan nahi zuen oharturik. Zirraragarria zen! Nire
irazketak alde batera utzi, leiho handira joan eta
izarrei begira gelditu nintzen. «Neu ere ikusezin
bihur ninteke!» esan nuen berriro.

‘Lorpen magikoa litzateke hori. Orduan jabe-
tu nintzen, zalantzarik gabe ikusi nuen, ikusezin-
tasuna gauza handia izan zitekeela gizon baten-
tzat. Liluratuta nengoen. Misterioa, boterea,
askatasuna! Ez nion batere eragozpenik ikusten.
Pentsa ezazu! Nik, probintziako eskola batean
ikasle ergelei eskolak ematen zizkien irakasle
zarpail eta baldres jantzitako honek, horrelako
gauza handia lor nezakeen. Jakin nahi nuke ea
zuk, Kemp... Bai, seguru nago: edonork egingo
luke ikerketa horretan aurrera. Hala, hiru urtez
jardun nuen lanean, eta zailtasunik zailena gain-
ditu orduko beste zailtasun are zailago batekin
egiten nuen topo. Infinitoak ziren xehetasunak!
Eta irakaslea, berriz, probintziako eskola bateko

irakasle hura, beti galdezka. Hura zen samina!
«Noiz emango duzu argitara zure lan hori?» zen
haren galdera betierekoa. Eta ikasleak, hain argi
laburrekoak! Hiru urte ibili nintzen horrela.

‘Eta hiru urte ezkutuko lan samingarri haie-
tan murgilduta eman ondoren, lan hura burutzea
ezinezkoa zela ohartu nintzen. Ezinezkoa zen!

— Nola? —esan zuen Kempek.

— Dirua! —esan zuen Gizon Ikusezinak, eta
leihotik begira jarri zen berriro.

Atzera jiratu zen.

— Zaharrari lapurtu nion; aitari lapurtu nion.
Baina dirua ez zen harena, nonbait, eta bere
buruaz beste egin zuen.

20.

GREAT PORTLAND STREETEKO ETXEAN

Kemp une batez isilik gelditu zen, leiho albo-ko gizirudi burugabearen bizkarrari so. Zerbaitekin larritu, altxatu, Gizon Ikusezinari besotik heldu eta begiralekutik baztertu zuen.

— Nekatuta egon behar duzu —esan zion eta ni nago eserita eta zu, berriz, gelan atzera eta aurrera. Tori nire aulkia.

Griffinen eta hurbileneko leihoaren artean jarri zen.

Griffin isilik egon zen apur batean; gero bizi-bizi jarraitu zuen.

— Hura gertatu zenerako utzia nuen Chesilstonego etxetxoan —esan zuen Abendua zen. Gela bat hartu nuen Londresen, altzaririk gabeko gela handi bat, gaizki gobernaturiko ostatu handi batean, Great Portland Streetetik hurbil. Berehala bete nuen gela hura, lapurtutako diruarekin erositako tresnez. Lanean gero eta hobeto ari nintzen, gero eta arrakasta handiagoz; hurbil

ikusten nuen amaiera. Sasi artetik irten orduko trajediarik beltzenarekin topo egiten duen gizon bat bezalakoa nintzen. Aita lurperatzera joan nintzen. Ikerketan jarria nuen gogo; ez nuen hatz bat ere mugitu aitzak bere ohorea berreskuraz zezan. Oroitzen dut hileta, hilkutxa merkea, elizkizun laburra, muino aldetik zetorren haizea, ihintza; eta gogoan dut aitaren eskolako lagun zahar hura, arropa beltz zarpailez jantzitako gizon zahar makurra, haren arimaren aldeko otoitzak irakurri zituen, katarroaren eraginez negar-zotinka.

‘Oroitzen dut etxe hutsera nola itzuli nintzen, garai batean herri izandako baina arkitekto zabarrek hiriaren karikatura huts bihurtu zuten paraje hartan barrena; norabide guztietarako bideak zeuden zelai hondatu haietan, zabor-mendietara iristen zirenak denak. Neure burua irudi beltz argal bat bezala gogoratzen dut; espaloi labainkor distiratsuan aurrera nindoala, sentitu nuen ezerk ez ninduela lotzen leku hartara, hondoa jo eta diruzalekeria zikoitzak mendeen hartua zuen leku hartara.

‘Ez nuen aitagatik errukirik sentitu; bere sentiberatasun ergelaren biktima iruditzen zitzaidan. Hiletara joan nintzen, joan, garai hartako ohiturei jarraiki, baina ez nuen ezer sentitu.

‘Baina High Streeten aurrera egin ahala, nire bizitzako iraganeko pasarteak etorri zitzaizkidan gogora, hamar urte lehenago maite izan nuen emakumea ikusi nuenean. Gure begiradek topo egin zuten.

‘Zerbaitek atzera jiratu eta harekin mintzatzera bultzatu ninduen. Emakume zeharo arrunta iruditu zitzaidan.

‘Amets bat bezala izan zen aspaldiko paraje haiek berriro bisitatzea. Ez nintzen konturatzen bakarrik nengoela munduan, mundutik at nengoela, herri mortu batean bezala. Konturatzen nintzen ez nuela errukirik, baina gauzen hutsaltasun orokorrari egotzi nion horren errua. Neure gelan berriro sartzean erralitatea berreskuratu nuela iruditu zitzaidan. Hantxe ziren nire gauza kuttun eta maitatuenak. Han ziren nire tresnak eta esperimentuak, prest, zain. Arazo bat bera ere ez zitzaidan gelditzen konpontzeke, xehetasunak bakarrik nituen azterkizun.

‘Azalduko dizkizut, Kemp, goiz ala berandu, prozesu konplexu horiek guztiak. Baina orain ez da horretarako garaia. Xehetasun gehientsuenak, neronek gogoan gorde nahi izan ditudanak izan ezik, idatzita daude, klabeen idatzita, arlote horrek lapurtu zizkidan liburuetan. Harrapatu egin behar dugu. Liburu horiek berreskuratu behar ditugu. Dena dela, prozesuaren oinarrizko urratsa hau izan zen: gauzaki garden baten erre-frakzio maila beheratu eta gauzaki hori dardara etereoeko sortak igortzen zituzten bi guneren artean ezartzea. Geroago mintzatuko natzaizu dardara etereo horiez. Ez ziren Röntgen dardarak. Ez dakit beste dardar hauek sekula inork deskribatu dituen, baina nabarmen-nabarmenak dira. Bi dinamo txiki erabili nituen; gasezko motore merke batekin jarri nituen martxan. Lehenengo saioa artilezko oihal zuri txiki batekin egin nuen. Oihala izpien argitan leun eta zuri egon eta bat-batean kea bezala desagertzen ikustea; hori baino gauza liluragarriagorik!

‘Ezin nuen sinetsi ere egin zer lortu nuen. Ezarri nuen eskua espazio hutsean eta oihalaren ohiko ukitua nabaritu nuen: oihal arruntarena

bezain ukitu trinkoa. Hartu eta lurrera bota nuen. Askok zitzaidan berriro aurkitzea.

‘Saio bitxi bat egin nuen ondoren. Miao bat entzun nuen neure atzean; jiratu nintzenean kateme zuri argal bat ikusi nuen, oso zikina, leihoaren kanpoaldeko ur-ontziaren estalki gainean. Ideia bat bururatu zitzaidan. «Prest da dena zuretzat» esan nuen; joan leihora, ireki, eta samur-samur deitu nion. Marmarka etorri zen — gose baitzen pitxitxi gaixoa esne pixka bat eman nion. Janaria gela bazter bateko arasan nuen gordeta. Katemea gela guztian zehar usainka ibili zen, etxea ezagutzeko edo. Oihal ikusezinak beldurtu egin zuen, nonbait; ikustekoa zen bizkarra nola konkortu zitzaion! Oheko burukoan jarri nuen goxo-goxo. Eta gurina eman nion, pixka bat zuritzeko.

— Zure esperimenturako erabili zenuen, orduan?

— Bai, harekin egin nuen saioa. Baina katu bati droga harraraztea ez da, ez, lan erraza, Kemp! Eta saioak huts egin zuen.

— Huts egin zuela?

— Bai, bi arazo izan nituen. Atzaparrak bate-tik, eta, bestetik, katuen begiaren atzealdeko pigmentu hori, bai, nola da? Badakizu zein esaten dudan?

— *Tapetum* izenekoa.

— Bai, *tapetum* delako hori. Ez zen desagertu. Odola zuritzeko gai bat eman eta beste zenbait gauza egin ondoren, opioa eman nion eta katemea zegoen burukoa tresnan ezarri nuen. Baina, gainerako gauza guztiak suntsitu eta desagertu zirenean, ikusgai jarraitzen zuten katemearen begietako orbanak.

— Bai harrigarria!

— Ez dut ulertzen zergatik. Bendaz estali eta lotu nuen noski, bere burua babesteko modurik izan ez zezan; baina, artean erdi tontotuta zegoela, esnatu eta miao triste bat egin zuen. Horretan, atea jo zuten. Etxapeko atso zahar bat zen, bizi-ebakuntzak egiten nituela uste zuena; atso mozkorti bat, munduan kateme zuri bat besterik ez zuena. Hartu nuen kloroformo pixka bat eta katuari eman nion. Atea zabaldu nuen. «Katu baten miaoa iruditu zait,» esan zidan, «nire katuaren miaoa.» «Hemen ez da katurik,

andrea.», esan nion, moduz. Zalantzan gelditu zen; atetik gela barrura begiratu zuen. Egia esan, ez zen harritzekoa nire hitza sinetsi ez izana: zuri-zuri zeuden gelako hormak; leihoetan mihiserik ez; ohexka bat; gasezko motoreak borborka; orban distiratsuak ziburu-zaburuka; eta kloroformo usain sarkor nazkagarria airean. Baina atsoa lasaitu zen, noizbait, eta alde egin zuen.

— Zenbat denbora behar izan zenuen saioa egiteko?

— Katemearen saiorako hiruzpalau ordu. Suntsitu ziren azken atalak hezurak, kirioak eta gantza izan ziren, eta ile-punta koloredunak. Lehen esan dizudan bezala, begien atzealdea, gai iridiszente sendo hori, ez zen desagertu.

‘Esperimentua amaitu baino askoz lehenago gaua etorri zen; gelan ez zen ezer ikusten, katemearen begietako orbanak eta atzaparrak izan ezik. Gasezko motoreak itzali ondoren piztia ukitu eta laztandu nuen, artean konortetik gabe zegola. Oso nekatuta nengoen; katemea buruko ikusezinean lo utzi eta oheratu nintzen. Asko kosta zitzaidan loak hartzea. Esna egon nintzen, gaua

laino eta funtsgabeetan pentsatzen, esperimenduaren urrats guztiak behin eta berriro aztertzen, edo nire inguruan lausotzen eta desagertzen ziren gauzei buruz amets suharrak egiten; harik eta amesgaizto batean zapaltzen nuen lurra ere desagertzen ikusi nuen arte. Ordu biak aldera katemea miaoka hasi zen gela guztian zehar. Hitz egiten hasi nintzaion, lasaituko zelakoan, baina kanpora bidaltzea erabaki nuen, azkenik. Ez dakizu nolako sustoa hartu nuen argia piztu eta katemearen begi berdeen distira bakarrik ikusi nuenean! Esnea emango niokeen, baina ez nuen gehiago. Ez zen isiltzen; ate alboan eseri eta miaoka gelditu zen. Katua harrapatzen saiatu nintzen, leihora ateratzeko, baina ezin izan nuen: desagertu egin zen. Horretan, berriro hasi zen han-hemen miaoka. Azkenean leihoa zabaldu nuen, zarata handia atereaz. Eta kanpora alde egingo zuen, ez dut sekula gehiago ikusi eta.

‘Aitaren hileta eta muino goibeleko haizea etorri zitzaizkidan gogora —Jainkoak daki zergatik! horretan pentsatzen jardun nuen eguna argitu arte. Egunsentian, lo egiteko itxaropenik ez

nuenez, gelako atea itxi eta kalera irten nintzen noraeezan.

— Beraz, kateme ikusezin bat dabil hor non-bait? —esan zuen Kempek.

— Inork hil ez badu, behintzat, bai —esan zuen Gizon Ikusezinak Baliteke.

— Nola balitekeela? —esan zuen Kempek Barkatu, ez nuen zure kontakizuna eten nahi.

— Seguruenik hil egingo zuten —esan zuen Gizon Ikusezinak Handik lau egunera bizirik zegoela badakit, Great Tichfield Streeteko burdin hesi batean zebilela; izan ere, jendea ikusi nuen hesiaren inguruan, miaoak nondik zetozen igarri ezinik.

Minutu batez edo isilik egon zen. Eta gero:

— Garbi gogoratzen dut antzaldaketaren ondorengo biharamuna. Great Portland Streeten gora joan nintzela uste dut, gogoan baitut Albany Streeteko koartelak eta zalditeriako soldaduak handik irteten ikusi izana. Primrose Hillen eguzkitan eseri nintzen; ondoezik eta oso aldarte bitxiko nengoen. Urtarrileko egun eguzkitsu bat zen, aurten elurteak baino lehenago izan ditugun egun eguzkitsu eta hotz horien tan-

kerako bat. Burua nekatua nuen, baina egoera aztertzen saiatu nintzen; zer egin behar nuen jakiteko plangintza bat osatzen, alegia.

‘Zeharo harritu nintzen, neure helburua lortua nuelarik, lorpen hura zein hutsala zen konturatu nintzenean. Egia esan, gogaiturik nengoen; lau urte inguru iraun zuen lan nekagarri hark edozein sentipen izateko ahalmena kendu zidan. Soraio nengoen, eta alferrik saiatu nintzen neure hasierako aurkikuntzekin sentitu nuena berreskuratzen, azken urteetan aitaren ile zuriaren errespetua ere galarazi zidan grina hura berreskuratzen. Ezerk ez zuen niretzat interesik ordea. Baina gogo aldarte hura laster aldatuko zitzaidala uste nuen, lan gogorrak eta lo faltak eragina zelakoan; drogak hartuz edo atsedenarekin edo neure indarra berreskuratuko nuela uste nuen.

‘Gauza bat ikusten nuen garbi: azkeneraino eraman behar nuela hura guztia. Ideia horrek mendeen harturik zuen nire izate guztia. Laster amaitu behar nuen gainera, xahutua bainuen ia diru guztia. Batera eta bestera begiratu nuen, haurrak nola zebiltzan mazelean jolasean eta neskameek nola zaintzen zituzten. Gizon ikuse-

zin batek mundu honetan izan litzakeen abantailatan pentsatzen saiatu nintzen. Gero etxera itzuli, jateko zerbait eta estriknina dosi handi bat hartu eta ohe gainean etzan nintzen jantzita, ohea egin gabe. Estriknina oso toniko eraginkorra da, Kemp, indarberritzeko ematen zaio gizonari.

— Deabrua bera da —esan zuen Kempek Paleolitiko osoa botilan sartuta.

— Indartsu eta haserre esnatu nintzen. Badakizu, ezta?

— Bai, ezagutzen ditut gai horren ondorioak.

— Atea jo zuten. Etxejabea zen, mehatxuka eta galdezka. Judu poloniar zahar bat zen etxejabea, beroki grisez eta zapatila koipetsuez jantzia. Gauean katu bat zirikatzen jardun omen nuela, ziur zegoela bera. Atsoa mingaina dantzatzeko ibili bide zen. Etxejabeak den-dena jakin nahi zuen. Konderri hartako legedian bizi-ebakuntzen kontrako legea zorrotza omen zen, eta bera ere ez omen zegoen hartatik salbu. Ukatu egin nion katuarena. Gasezko motorearen dararak etxe guztian entzuten zirela esan zidan orduan. Eta egia zen, gainera. Nire albotik igaro

eta gelara sartu zen, bere betaurreko zilar ale-
manezkoekin den-dena miatuz. Izuak hartu nin-
duen; sekretua igarriko zidala uste nuen. Haren
eta neuk asmatutako kontzentrazio-tresnaren
artean jarri nintzen; horrek, ordea, areago piztu
zion jakin-mina. Ea zertan ari nintzen. Ea zerga-
tik nintzen hain bakartia eta neure baitakoa. Ea
legezkoa al zen hura. Ea ez al zen arriskutsua.
Errenta, ez nuen garestia ordaintzen. Eta bere
etxea ostatu errespetagarria izan omen zen
beti... auzoa ospe txarrekoa izan arren. Horre-
tan, neure onetik atera nintzen. Alde egiteko
eskatu nion. Berak ezetz, eta gela hartan egote-
ko zuen eskubidea aipatu zidan. Heldu nion lepo-
tik; zerbait zartatu zen, eta biraka bota nuen
bere pasiloan zehar. Atea itxi, giltzatu, eta eseri
egin nintzen, dardarka.

‘Izugarrizko iskanbila sortu zuen kanpoan,
baina ez nion jaramon egin eta alde egin zuen
azkenean.

‘Gertaera hark krisiari bide eman zion, ordea.
Ez nekien zer egingo zuen, ezta zer egiteko gai
zen ere. Beste apartamentu bat hartzen banuen
lana berandutuko zitzaidan; gainera, hogeitaz

eskasa zen nire dirua, bankuan gordea gehiena, eta ezin nion gastu horri aurre egin. Desagertu! Baina ezinezkoa zen hori; galdezka hasiko ziren, eta nire gela ikertuko zuten.

‘Nire lana onen-onenean zegoenean inork haren berri jakin edo nire lana oztopa zezakeela pentsatze hutsak sutan jartzen ninduen. Zerbait asmatu behar nuen. Hiru ohar-liburuak eta txkeen liburuxka, orain arloteak dauzkanak, hartu eta alde egin nuen. Fardelak eta gutunak gordetzen diren Great Portland Streeteko etxe batera bidali nituen guztiak hurbileneko postetxetik. Etxetik isil-isilik irteten saiatu nintzen. Itzuli nintzenean zurubia isilka igotzen aurkitu nuen etxe-jabea; atea ixten entzun ninduela uste dut. Gogotik barre egingo zenukeen nire urratsak gibelean entzunda tranpalean alde batera nola baztertu zen ikusi bazenu! Haserre begiratu zidan; nik, berriz, etxea dardarazi nuen atea ixtean eman nuen danbatekoarekin. Hankak arrastaka nire solairura igo eta, zer egin ez zekiela, berriro behera jaisten entzun nuen. Eta orduan prestakuntza lanei ekin nien.

‘Arrats eta gau hartan bukatu nuen den-
dena. Odola koloregabetzeko drogak harturik
lozorro gozoan nengoela, ate joka hasi ziren.
Gero urratsak entzun ziren hara-hona, eta ate
joka hasi ziren berriro. Atepetik zerbait sartzen
saiatu ziren; paper urdin bat zen. Haserre bizian
jaiki eta atea parez pare zabaldu nuen. «Zer da
orain?», esan nuen.

‘Etxejabea zen, maizter-bidaltzeko agindu
batekin edo. Agindua luzatu zidan, baina nire
eskuetan bitxikeriaren bat ikusi eta aurpegira
begiratu zidan.

‘Aho zabalik begira gelditu zitzaidan. Egin
zuen oihu ulertezin bat, kandela eta agiria, biak,
lurrera bota eta pasilo ilunean zehar zabuka alde
egin zen. Atea itxi, giltzatu eta ispilu aurrera joan
nintzen. Eta orduan ulertu nuen haren izua. Nire
aurpegia zuri-zuri zegoen, marmol zuria bezala-
koxea.

‘Izugarria izan zen. Nire hasierako planetan
ez nuen pairamen fisikoa kontuan hartu. Gau
gaiztoa izan zen: estuasun mingarria, zorabioak,
konorte galtzeak... Larrua garretan bezala jarri
zitzaidan. Hortzak estutu nituen. Gorputz guztia

sutan bezala neukan, baina etzanda gelditu nintzen, hilda bezala. Orduan konturatu nintzen kloroformoa eman nion arte katemeak zergatik jardun zuen marruka. Eskerrak neure gelan bakar-bakarrik bizi nintzen eta laguntzailerik ez nuen. Gau hartan intziri, negar eta hitz egin nuen. Baina eutsi egin nion. Horretan, konortea galdu nuen; gauaren erdian ahul-ahul esnatu nintzen.

‘Baina ordurako ez nuen minik. Nire burua hiltzen ari nintzela pentsatu nuen, baina berdin-berdin zitzaidan. Sekula ez dut ahaztuko egunsenti hura, orduko larritasun bitxia. Eskuak beira bezala jarri zitzaizkidan eta, egunak aurrera egin ahala, gero eta gardenago eta meharrago, gainera: azkenerako nire gela nahaspilatua ikusi ahal izan nuen eskuetan zehar begiratuta, betazalak itxi arren, haiek ere garden baitzeuden ordurako. Gorputz adarrak gardendu, hezurak eta arteriak suntsitu, desagertu, eta, ondoren, kirio zuri txikiak ezkutatu ziren. Hortzak karraskatu, eta azkeneraino eutsi nion. Azkenean azkazal hilak bakarrik gelditu ziren, zurbil eta zuri, eta hatzetan azidoren baten arrasto marroia.

‘Nekez jarri nintzen zutik. Hasieran titiko haur bat bezain ezgauza nintzen, ikusten ez nituen gorputz adarrez baliatu beharra nuen eta. Oso ahul nengoen, gose nintzen. Ahal nuen moduan aurrera egin eta ispiluan begiratu nion nire gorputz gardenari. Erretinako pigmentu itzaliak bakarrik ikusten ziren, eta lainoa bera baino lau-soago haiek. Mahaiari eutsi eta burua beiraren kontra jarri behar izan nuen.

‘Nire borondatearen indarrari esker ordea, tresnaraino arrastaka iritsi eta prozesua burutzea lortu nuen.

‘Goiza lo igaro nuen, argirik ez ikusteko maindirea begietan jarrita. Eguerdi aldera esnatu nintzen, berriro ate joka hasi zirelako. Indarberriturik nengoen ordurako. Eseri eta entzuten gelditu nintzen: zurrumurru bat. Zutitu, ahal bezain isilik neure tresnaren osagai guztiak askatu eta gelan zehar sakabanatzen hasi nintzen, haren arrastorik aurki ez zezaten. Horretan, ate joka hasi ziren berriro, eta ahots batzuk niri deika, etxejabearena lehenik, eta beste birena ondoren. Eta denbora irabaztearren erantzun egin nien. Bitartean, oiha puska eta buruko ikusezinak eskuratu,

leioha zabaldu eta leio barrenean utzi nituen biak. Leioha irekitzean, zarata handi bat entzun nuen atean; norbaitek atearen kontra jauzi egin zuen, nonbait, maratila apurtzeko. Ezin izan ziren sartu, egun batzuk lehenago iltzatu nituen kisketa berriei esker. Baina sutan jarri ninduten, lehertzeko zorian nengoen. Dardarka eta gauzak arrapaladan egiten hasi nintzen.

‘Pilatu nituen paper puska batzuk, lastoa, bildukinak egiteko papera eta abar gela erdian, eta gasaren giltza ireki nuen. Kanpotik atea jo eta jo ari ziren. Ez nituen pospoluak aurkitzen. Eskuez horma jo nuen, amorruek erreta. Gasaren giltza berriro itxi, irten leihotik ur-ontziaren estalki gainera, leioha kontu handiz itxi eta hantxe eseri nintzen. Ikusezin bihurturik seguru ikusten nuen neure burua, baina haserreak dardarka nengoen, zer gertatuko zain. Horretan, ate-tarte bat apurtu zutela ikusi nuen, eta gero kisketetako kakoak. Kanpokoak ataurrean agertu ziren: nire etxejabea eta haren bi sasiko semeak ziren, hogeita hiru-lau urteko mutil sendoak biak, eta haien atzetik beheko sorgina, hara-hona dantzatzen.

‘Hura ezustekoa hartu zutena gela hutsik ikustean! Gazteetako bat korrika leihora etorri, ireki leihoa eta kanpora begiratu zuen. Haren begi erneak eta aurpegi bizartsua nire aurpegitik oin batera gelditu ziren. Begitarte ergel hari jotzeko tentatuta egon nintzen, baina nire ukabila menderatzeko gai izan nintzen. Nire gorputzean zehar begiratu zuen hark. Eta gauza bera egin zuten besteez haren albora etorrita. Agureak ohe azpia begiratu zuen. Arasara ere begiratu zuten. Gero arazo hartaz luzaz eztabaidatu zuten, Yiddish hizkuntzaz eta auzo langileetako Cockney English ingelesez. Nik ez niela erantzun erabaki zuten, beren irudimenak engainatu zituela. Ordu arte haserrea izan zenaren tokia izugarrizko euforia batek bete zuen nire baitan, ikusirik ni leihoan eserita nengoela eta lau haiek —atsoa ere han baitzen, katu bat bezala batera eta bestera begira berriz, nire portaera ulertu ezinik zebiltzala.

‘Agurea, haren patois hizkeratik ulertu ahal izan nuenagatik, ados zegoen atsoarekin; nik bizi-ebakuntzak egiten nituela uste zuen berak ere. Semeek, berriz, kontra egin zieten, ingeles

traketsean; elektrizista kaxkar bat besterik ez nintzela, horregatik neuzkala dinamo eta bero-hodi haiek gelan. Urduri zeuden, ni iritsiko ote nintzen, baina, gero ikusi ahal izan nuenez, sarrera-atea giltzaturik zuten. Atsoak arasa eta ohe azpia aztertu zituen; gazte batek tximiniako tiroa zabaldu eta tximina miatu zuen. Pasiloan beste bizilagun bat agertu zen, saltzaile ibiltari bat, harakin batekin nirearen pareko gela hartu zuena; eta hari deitu zioten eta gauza ulergaitzak kontatu zizkioten.

‘Pentsatu nuen bero-hodiek eta gainerako tresnek agerian utz zezaketela nire sekretua, aditu batek aztertzen bazituen, eta aukera izan bezain laster gelan sartu, denak zeuden tokitik dinamo txiki bat hartu eta dinamoa eta bero-hodia apurtu nituen. Zarata hura zer izan ote zen azaltzeko ahaleginetan ari zirela, gelatik ihes egin eta isil-isilik zurubia jaitsi nuen.

‘Egongela batean sartu eta han gelditu nintzen besteak iritsi arte. Artean egoera aztertzen eta eztabaidatzen ari ziren, denak ere etsi samar, ez baitzuten halako «izugarrikeriarik» aurkitu; eta urduri samar ere bai, beldur baitzi-

ren nirekin zuten harremanagatik justiziarekin arazorik izango zutela. Pospolu kaxa bat harturik berriro isil-isilik igo, paper eta zikinkeria metari su eman, aulkiak eta ohea ere sutara bota eta, goma indiarrezko hodi baten bidez, gasari utzi nion lan hura bukatzen. Gela agurtu eta betiko aldegin nuen handik.

— Etxea erre zenuen?! —esan zuen Kempek.

— Etxea erretzea: horixe zen nire aztarnak ezkutatzeko modu bakarra! Eta ziur nago lortu nuela. Sarrera-ateko kisketak isil-isilik ireki eta kalera irten nintzen. Ikusezina nintzen, eta ikusezintasunak ematen zizkidan abantailez jabetzen hasi berri nintzen. Burua egitasmoiez gainezka nuen: inolako arazorik gabe egin nitzakeen gauza zoragarri eta harrigarri guztiak burutzeko prest nengoen.

21.

OXFORD STREETEN

— Lehenengo aldiz mailak jaisterakoan aurretik kontuan hartu ez nuen zailtasun handi bat aurkitu nuen: ez nituen nire oinak ikusten. Bi aldiz egon nintzen erortzekotan, eta ohi ez bezala, oso trakets nenbilen kisketak irekitzen. Dena dela, lurrera begiratu gabe ongi samar ibiltzea lortu nuen.

‘Nire aldartea, esan dizudan bezala, euforikoa zen. Gizon ikusgai bat bezala sentitzen nintzen; hotsik ateratzen ez duten oinak eta jantziak lituzkeen gizon ikusgai bat itsuen herrian sentituko litzatekeen moduan. Txantxetan jarduteko gogoia nuen, jendea izutzekoa, gizonai bizkarrean jotzekoa, kapeluak kentzekoa: nire abantaila bereziak agerian uzteko irrikitan, azken batean.

‘Great Portlan Streetetik irten bezain laster (nire ostatua oihal-denda handi baten alboan zegoen) hots bat entzun nuen eta zerbaitek atzetik jo ninduen indar handiz. Atzera jiratu nin-

tzenean gizon bat ikusi nuen; seltz-urezko sifoiez beteriko saski bat zeraman eta harrituta begiratu zion saskiari. Kolpeak benetan min eman zidan arren, hain barregarria iruditu zitzaidan haren harridurazko keinua, ezen barre algara bat atera zitzaidan. «Deabrua daramazu saski honetan» esan eta eskutik kendu nion. Ziztu batean alde egin zuen. Airean altxa nuen saskia.

‘Baina, horretan, gurdizain ergel bat, taberna baten kanpoaldean zegoen bat, saskia jasotzera joan eta haren hatz luzeek belarrondoan jo ninduten indar handiz. Saskia gurdizainaren gainean jaregin nuen. Nire ingurura hurbiltzen zirenen oihu eta urrats-hotsak entzun eta jendea dendetatik irten eta ibilgailuak gelditzen hasi zirenean, ergelkeria bat egin nuela ohartu nintzen; neure hutsa madarikatuz, denda bateko erakusleihoaren kontra jarri eta iskanbila hartatik ihes egiteko prestatu nintzen. Handik berehala ihes egin ezean jende samalda baten erdian ikusiko nuen nire burua, aurkitu egingo ninduten. Harategiko mutila bultza (zorionez ez zen atzera jiratu horrela bultza egin zion ezereza zer ote zen ikusteko) eta gurdizainaren lau-gurpile-

koaren atzean ezkutatu nintzen. Ez dakit nola bukatuko zen gertaera hura. Kalearen bestalde-
ra lasterka joan nintzen; jainkoari eskerrak
hutsik zegoen. Ez nekien zer norabide hartu ere;
Oxford Streeteko arratsetako jende oldean galdu
nintzen, gertaera hark agerian utziko ote nin-
duen izu-izu eginda.

‘Jendartean sartzen saiatu nintzen, baina
lodiegiak ziren niretzat; orpoak zapaltzen zizki-
daten gainera! Espaloitik erretenera jaitsi nin-
tzen, baina haren zakarrak oin-azpiak mintzen
zizkidan. Zalgurdi bateko zigorrak lepa-uztaian
jo ninduen; ordurako ubeldura franko banuela
ekarri zidan horrek gogora. Hala, gurdiaren ibil-
bidetik aldendu, mugimendu laster bat eginez
haur-orga bat saihestu eta zalgurdiaren atzean
jarri nintzen. Neure burua nola salbatu bururatu
zitzaidan orduan: zalgurdiak poliki-poliki aurrera
egin ahala, haren atzetik abiatu nintzen, nire
abenturaren tankera itsusiagatik izu-dardarka
eta aztoraturik, baina. Eta ez izu-dardarka baka-
rrik, hotzikaraz ere bai. Izan ere, urtarrileko egun
oskarbi horietako bat zen, eta larrugorri nengo-
en eta errepideko lokatz geruza mehea izozten

hasia zen. Orain akats lotsagarria iruditzen zaidala aitortu behar dut, baina hasieran ez nintzen ohartu, garden izan ala ez, eguraldiarekiko eta haren ondorioekiko sentikor izango nintzela.

‘Erabaki bat hartu nuen: zalgurdiaren inguruan itzulia egin eta barnean sartu nintzen. Horrela, dardarka, ikaratuta, hotzeriaren lehen zantzuak antzematen hasia nintzela, eta bizkar beheko ubeldurek minduta, Oxford Street igaro eta Tottenham Court Streetetik aldendu nintzen. Nire aldartea hamar minutu lehenago etxetik irteera egin nuenekoaz oso bestelakoa zen. Iku-sezintasun madarikatu hau! Buruan nerabilen ideia nagusia estuasun hartatik onik irteteko bidea aurkitzea zen.

‘Mudirenetik igaro ginenean emakume lerden batek, eskuan etiketa horiko bospasei liburu zituenak, zalgurdia gelditzeko agindu zuen. Zalgurditik kanpora jauzi egin nuen; harekin estropezu egin nuen ia, eta nire hegaldian ia-ia harrapatu ninduen tranbia batek. Galtzadan gora korrika abiatu nintzen Bloomsbury Square alde-ra; museoa iparraldetik igaro eta barruti lasaiago batera iristea zen nire asmoa. Izoztuta nengoen,

eta nire egoeraren harrigarriak hain urduri jarri ninduen, ezen negarrez hasi bainintzen lasterka nindoala. Square iparraldeko ertzean Botikarien Elkarteko bulegoetatik zakur zuri txiki bat irten eta nire atzetik korrika hasi zen, lurrari usainka.

‘Ordura arte sekula ez nuen horretaz pentsatu, baina usaimena zakurrarentzat ikusmena gizon ikusgaiarentzat bezalatsu da. Zakurrek gizon bat mugitzen ari dela usaintzen dute gizonak mugimendua ikusmenaren bidez antzematen duten bezala. Zakurra zaunka eta saltoka hasi zen, ni han nengoela antzematen zuela argi erakutsiz; hala iruditu zitzaidan niri behintzat. Besagainetik atzera begira Great Rusell Street zeharkatu eta Montague Streeten aurrera samar nengoen arte ez nintzen ohartu norantz nindoan.

‘Musika entzun nuen eta, kalean aurrera begiratu nuenean, Rusell Squaretik jende pila zetorrela konturatu nintzen; jaka gorriz jantzita zeuden denak, eta Salbazioko Gudarostearen ikurrina zekarten aurrean. Errepidean oihuka zetozenek eta espaloian haiei barre egiten zietenek osaturiko jende aldra hura sekula gaindituko nuen itxaropenik ez neukan, baina atzera egin

eta berriro etxera hurbildu nahi ez nuenez, estuasun hura gainditzeko museoko hesien pareko etxe bateko maila zuriak igotzea erabaki nuen; han gelditu nintzen segizioa desagertu zen arte. Zorionez, zakurra musika-bandaren zaratarekin isildu zen, zer egin ez zekiela gelditu eta, azkenik, atzera jiratu eta Bloomsbury Squarera itzuli zen korrika.

‘Musika-banda aurrera zihoan. Haiek ez zekiten, baina ironiaz beteriko ereserki bat abesten ari ziren: «*Noiz ikusi ahalko diogu Aurpegia?*», edo horrelako zerbait esaten zuen. Denbora amaigabea iruditu zitzaidan jende oldea espaloian nire aurretik pasatu artekoa. Dun, dun, dun, iristen zen danborren dunbots dardarkaria. Hasieran ez nintzen konturatu, baina hesian bi mutil kozkor zeuden, nire aurre-aurrean. «Begara!», esan zuen batek. «Begiratzeko, zer?», galdetu zion besteak. «Ez al duk ikusten? Oinutsik egingako oinatzak dituk. Baten bat lokatzatan ibili balitz bezala.» Behera begiratu eta konturatu nintzen mutil kozkorrak nik mailadi margotu berrian utzitako oinatz lohitsupei begira zeudela. Ingurutik pasatzen zen jendeak astindu eta bul-

tza egiten zieten, baina haien inteligentzia madarikatuak han gelditzera bultzatzen zituen nonbait. «*Dun, dun, dun, Noiz, dun, ikusi ahalko diogu, dun, Aurpegia, dun, dun.*» «Gizon bat igo duk hortik oinutsik, ala ni burutik eginda nagok.», esan zuen batek, «Eta ez duk berriro jaitsi. Eta odoletan zaukak oin bat.»

‘Ordurako jende gehiena igarota zegoen. «Begirazak hona, Ted.», esan zuen harriturik bi detektibeetan gazteenak, eta nire oinak seinالاتu zituen zuzen-zuzen. Behera begiratu eta lokatzezko geruza mehe batek nire oiningurua itxuratzzen zuela ohartu nintzen. Harri eta zur gelditu nintzen.

‘«Bai arraroa!», esan zuen helduenak. «Oso arraroa bai! Oin baten mamua ematen dik, ezta?». Duda-mudatan ibili zen; eskua luzaturik aurrerratu zen. Gizon bat gelditu zen, mutikoak zer hartu nahi zuen ikusteko, eta gero neska bat ere bai. Mutikoak ukitu egin ninduen. Orduan bururatu zitzaidan zer egin. Urrats bat eman nuen, mutikoak atzera egin zuen oihuka eta ni, bizkor-bizkor jauzi eginez, alboko etxeko atarian sartu nintzen. Baina mutil kozkor gazteena begi-

zorrotza zen inondik ere, bai nire mugimenduari antzemateko bezain begi-zorrotza behintzat, eta ni mailak jaitsi eta espaloira iritsi orduko, mutikoak bere harridura gainditu eta oinak horman gora igo zirela esaten hasi zen garrasi batean.

‘Atzera jiratu ziren guztiak eta nire oinatzak ikusi zituzten beheko mailatik espaloia bitartean. «Zer igo dela?», galdetu zuen norbaitek. «Oinak! Begira! Oinak korrika!». Kanean zebiltzan guztiak, nire hiru jarraitzaileak izan ezik, Salbazioko Gudarostearen atzetik zihoazen; enbarazu egiten ziguten, bai niri, baina baita nire jarraitzaileei ere. Harridurazko eta jakin-minezko zurrumbilo bat eratu zen. Mutiko gazteetako batekin behaztopa egin arren aurrera jarraitu nuen; handik gutxira biribilean korrika ari nintzen Russell Squaren, nire oinatzen atzetik sei-zazpi lagun nituela lur eta zur eginda. Ez nuen azalpenik emateko astirik ordea, jende pila ni harrapatu nahian ikusi nahi ez banuen behintzat.

‘Bi aldiz saiatu nintzen kale-bazterretan haie-tatik urruntzen, hiru aldiz gurutzatu nuen kalea eta itzuli nintzen nire oinatzen bidera, eta nire oinak berotu eta lehortu ahala oinatz hezeak

desagertzen hasi ziren. Azkenean, atsedenaldirik bat izan nuen eta eskuez oinak garbitu nituen. Horri eskerrak salbatu nintzen. Gertaera hartaz gogoan dudan azken irudia da dozena bat lagunek edo osatutako taldetxo bat nola ari zen aztertzen, zeharo harriturik, pixkanaka lehortzen ari zen oinatz bat, Tavistock Squaren putzu bat zapaldu nuelako utzi bide nuena. Oinatz bakar eta zentzugabe bat zen hura beraientzat, Robinson Crusoe egindako aurkikuntza bakartu bezain ulertezina.

‘Apu bat berotu nintzen lasterraldi harekin eta kementsuago abiatu nintzen paraje haietako kale bakartien labirintoan zehar. Bizkarra mailatuta eta minbera neukan, min nuen eztarrian ere, gurdizainak heldu zidan tokian, eta lepoko larruazala haren azkazalek urraturik. Oinetan ere min handia nuen; gainera zauri txiki bat neukan oin batean, herrenka ibilarazten ninduen. Horretan,itsu bat gerturatzen ari zitzaidala ikusi nuen; herrenka ihes egin nuen, haren sen zorrotzaren beldur. Behin edo bitan estropezu egin nuen nahi gabe eta harriturik utzi nuen jendea, haien belarriak biraoez ondo berotu nituelarik.

Zerbaitek aurpegian jo ninduen, isilik eta poliki etorri zen zerbaitek: milaka elur maluta txiki erortzen hasi ziren Squaren. Hotzeria neukan, eta eginahalak eginda ere ezin nion eutsi noiz-behinka doministiku egin beharrari. Eta bidean aurkitzen nituen zakur guztiak muturra gora jaso eta usainka hasten zitzaizkidan eta izutu egiten ninduten.

‘Aurrerago mutil batzuk agertu ziren, bat aurretik eta beste zenbait atzean, lasterka eta oihuka. Sute bat izan omen zen. Ni ostatu egondako etxe aldera zihoazen; kale batean behera begiratu eta ke beltz piloa ikusi nuen teilatu eta telefono harien gainetik. Nire ostatua sutan zegoen; eta han nituen arropak, tresnak, nire ondasun guztiak, Great Portland Streeteko postetxera iritsiko ziren txeke-liburuxka eta hiru ohar-liburuak izan ezik. Sutan den-dena!

‘Neure ontzi guztiak erre nituen, ongi erre ere! Etxea sutan zegoen.

Gizon Ikusezinak etenaldi bat egin, eta pentsakor gelditu zen. Kempek leihotik begiratu zuen urduri.

— Bai? Jarraitu —esan zion.

22.

DENDAZ DENDA

— Horra, beraz, urtaril hartan, elur-erauntzia hastear zela —eta elurra nire gainean gatzatzen bazen salatu egingo ninduen, noski! nola hasi nuen neronek prestaturiko bizi berri hura: nekeak lehertuta, hotzak akabatzen, minaren minez, zeharo etsita eta nire ikusezintasunaren abantailei antzeman gabe. Ez nuen aterperik, ez baliabiderik, eta mundu guztian ez nuen konfiantzazko inor. Neure sekretua inori kontatzen banion neure burua salatuko nuen, ikuskizun eta izaki xeblebre gisa hartuko ninduten. Dena dela, kalean ikusten nuen lehenengo pertsona gelditu eta hari den-dena kontatzeko tentatuta egon nintzen. Baina oso garbi ikusten nuen neure azalpenek izua eta nire kontrako ankerkeria ekarriko zuketela. Kale gorrian ezin nuen planik egin. Nire behar nagusiak elurretik babestea, janzteia eta apur bat berotzea ziren; hori egin ostean osatu ahal izango nituen planak. Baina niretzat ere, Gizon Ikusezinentzat ere, kiske-

taz, giltzaz eta hesiz itxirik zeuden Londresko etxe guztiak.

‘Gauza bakarra ikusten nuen garbi: elur-erauntsiaren eta gauaren hotza eta miseria.

‘Horretan, ideia bikain bat bururatu zitzaidan. Gower Streetetik Tottenham Court Streetera abiatu eta Omniumsko atarian agertu nintzen. Denetarik eros daitekeen denda handi hori — badakizu—; haragia, jakiak, etxeko arropak, altzariak, jantziak, margo-lanak eta denetarik eros daiteke han. Denda multzo izugarria denda bakar batean. Hango ateak zabalik aurkituko nituela uste nuen, baina itxita zeuden. Ate handi haren aurrean nengoela zalgurdi bat gelditu zen, eta gizon uniformedun batek, badakizu, kape-luan *Omnium* jartzen duen uniformeaz jantziriko horietako batek, atea zabaltu zuen. Barrura sartzea lortu nuen, eta dendan aurrera eginez zintak, eskularruak, galtzerdiak eta horrelakoak salgai zeuden saltokitik beste gune zabalago batera iritsi nintzen: askaria-eta eramateko saskiak eta zumitzezko altzariak saltzen ziren tokira.

‘Han ez nuen neure burua seguru ikusten, ordea; hara-hona zebilen jendea, eta batetik

bestera ibili nintzen urduri, beste solairu batera igo eta ohe pila zegoen saltoki izugarri handi batera iritsi nintzen arte. Ohe gainera igo eta atsedeen-leku bat hartu nuen tolesturiko lastairameta handi baten gainean. Leku argitsua eta epela zen hura, eta hantxe gelditzea erabaki nuen denda itxi arte, inguruan zebiltzan bizpahiru saltzaile eta erosleei begirik kendu gabe, noski. Itxi ondoren, pentsatu nuen, lapurtu ahal izango nituen jatena eta jantziak, eta agian lo egiterik ere izango nuen ohe haietako batean. Plan polita iruditu zitzaidan. Nire asmoa zen jantziak eskuraturik gizirudi baten antzera itxuroso mozorrotzea, dirua eskuratzea, eta, neure liburuak eta fardelak jaso eta nonbait ostatu harturik, planak osatzen hastea, ikusezintasunak gainerako gizonen aldean ematen zizkidan abantaila guztiez (abantailak izango zirela uste bainuen artean) baliatzeko.

‘Berehala iritsi zen denda ixteko ordua; lastairan etzan nintzenetik ordu bete ere ez zen izango. Leihoetako pertsianak jaisten zituztela eta bezeroak ate aldera zihoazela konturatu nintzen. Gero gizon gazte zoli batzuk agertu ziren

eta nahaspilaturik zeuden salgai guztiak bizkor-bizkor txukundu zituzten. Ingurunea hustu bezain laster neure ezkutalekutik irten eta kontu handiz ibili nintzen hara-hona artean jendea geratzen zen dendako parteetan. Harrituta gelditu nintzen gizon-emakume gazte haiek egun guztian zehar salgai izan zituzten gauzak zein azkar biltzen zituzten ikusita. Kutzak, ehun zintzilikariak, puntalak, gozoki-kutzak janarien saltokian, batzuk eta besteak desagertu, tolestu eta gordailu txukunetan sartu zituzten; jaso edo gorde ezin zitekeezkeenak, berriz, zaku antzeko ohial lodietan bildu zituzten. Azkenean aukiak mostradore gainean goikoz behera ezarri eta lurra libre utzi zuten. Lana amaitu orduko ate aldera abiatzen ziren langileak, saltzaile bati sekula ikusi diodan keinu alaienez. Ondoren gaztetxo batzuk agertu ziren, zerrautsa boteaz eta eskuetan palak eta eskuilak zekartzatela. Adi-adi ibili behar izan nuen inork han nengoela antze-man ez zezan, eta, hala ere, oin-zola zerrautsez beterik gelditu zitzaidan. Apur batean saltoki mortu eta ilunetan zehar ibili nintzen, eta erratzak lanean ari zirela entzun nuen. Azkenean,

denda itxi eta ordu betera edo, dendako atearak ixten ari zirela entzun zen. Isiltasuna nagusitu zen ondoren, eta bakar-bakarrik gelditu nintzen denda, galeria eta erakusgela handi eta bihurgu-
netsuetan. Oso lasai zegoen dena; gogoan dut Tottenham Court Streetera ematen zuen sarrera batetik hurbil igaro nintzenean espaloiko oinez-
koen bota-hotsa entzun nuela.

‘Lehenengo bisitaldia galtzerdi eta eskula-
rruen saltokira egin nuen. Ilun-ilun zegoen, eta pospolu bila ibili nintzen ero baten moduan; azkenean, aurkitu nuen pospolu kaxa bat diru-
kutxaren mahaiko tiraderan. Kandela bat ere behar nuen. Bildukin ugari hautsi eta kutxa eta tiradera pila bat miatu behar izan nuen, baina aurkitu nuen behar nuena: «Artilezko azpiko gal-
tzak eta elastikoak» zioen kutxa bat. Jantzi nituen galtzerdiak, aski egokiak, eta jantzi-salto-
kira joan, eta galtzak, jaka, berokia eta kapelu malgu bat, elizgizonek erabiltzen duten horieta-
koa, hegala beherantz okertua duena, hartu nituen. Gizon sentitzen hasia nintzen berriro. Horretan, janaria etorri zitzaidan gogora.

‘Goiko solairura igo nintzen, jangela moduko gune bat baitzegoen han, eta haragi hotza aurkitu nuen bertan. Kafea ere bazen kafe-ontzian, eta gasa piztu eta berotu egin nuen. Ez nuen gaizki egin. Gero, dendan zehar manta bila nenbilela —ohe-estalki pila batekin konformatu behar izan nuen azkenik janari-saltokira iritsi nintzen. Txokolate eta fruta azukreztatu mordoa zegoen han, niri komeni zitzaidana baino gehiago, eta Bourgogneko ardo zuri pixka bat ere bai. Handik hurbil jostailuen saltokia zegoen. Ideia bikaina otu zitzaidan. Gezurrezko sudur batzuk aurkitu nituen —kartoizko horietakoak, badakizu eta betaurreko ilun batzuk eskuratzea pentsatu nuen. Omniums hartan ez zengoen optika-saltokirik, ordea. Sudurrarekin ere zailtasunak izan nituen; pintatzeko asmoa nuen. Eta saltoki hartan nenbilela ileorde, maskara eta horrelakoetan pentsatzen hasi nintzen. Azkenean lotara etzan nintzen ohe-estalki pila baten gainean, aski epel eta eroso.

‘Lokartu aurreko pentsamenduak izan ziren antzaldaketa gertatu zenetik izan nituen atseginenak. Gorputzaldi oneko nengoen, eta ongizate

hori nire adimenean ere islatzen zen. Pentsatu nuen goizean inork ikusi gabe irten ahal izango nintzela dendatik, jantziak soinean eta aurpegia han harturiko lepoko batekin estalirik. Dendan aurkitutako diruarekin erosiko nituen betaurrekoak eta, mozorroa osatzeko. Baina amets nahasietan murgildu nintzen, azken egunetan bizi izan nituen gertaera liluragarrien nahaspilan. Etxejabe txiki itsusia ikusi nuen geletan oihuka; haren semeak ikusi nituen liluraturik, eta ikusi nuen atso zimela ere, aurpegia okertuta kate-mearen bila. Oihala desagertzen ikusi nueneko sentipen bitxia bizi izan nuen berriro; muino hai-zetsura itzuli nintzen, eta elizgizon zaharraren zurrumurrura —«Hauts zara eta hauts bihurtuko zara» eta aitaren hilobiko zuloa ikusi nuen.

‘«Baita zu ere.», esan zuen ahots batek, eta zerbaitek hilobira bota ninduen. Indar egin nuen, oihu egin nuen, han zirenei laguntza eskatu nien, baina harriak bezala gelditu ziren denak, hileta elizkizuna entzuten; elizgizon zaharrak isildu gabe eta doministikuka jardun zuen ospakizun guztian. Konturatu nintzen ikusezina eta entzunezina nintzela, naturaz gaindiko indarrek

mendean hartua nindutela. Alfer-alferrik jardun nuen borrokan, bota ninduten hilobira, hilkutxak karraska egin zuen, eta lurra mordoka erortzen zitzaidala sentitu nuen. Inork ez zidan lagundu, inor ez zen nitaz errukitu. Adoretsu jarraitu nuen borrokan, eta, horretan, esnatu egin nintzen.

‘Londresko egunsentiko argi lausoa ikusten zen, eta leihoetako errezelen zirrikituetatik sartzen zen argi gris hotz batek argitu zuen denda. Eseri eta pentsatzen jardun nuen zer arraio ote zen gela handi hura, mostradore haiekin, ehun-bildukin pila haiekin, ohe-estalki eta buruko haiekin, burdinazko zutabe haiekin. Ideiak argitu zitzaizkidanean, ahots batzuk entzun nituen hizketan.

‘Dendaren beste aldetik bi gizon zetozela ikusi nuen, ordurako errezelak jasota zeuden saltokiren bateko argi distiratsuaz inguraturik. Zutitu egin nintzen, handik ihes egiteko moduren bat aurkitu nahian, baina nire mugimenduaren hotsak nire zelatan jarri zituen. Gizirudi bat bizkor mugitzen zela ikusiko zutela pentsatzen dut. «Zer da hori?», esan zuen batek, eta «Geldi hor!» oihu egin zuen besteak. Izkina batean

ezkutatu nintzen. Burua makurtu behar izan nuen, hamabost urteko gazte kankailu batekin topo egin bainuen —pentsa ezazu, nik, aurpegi-rik gabeko gizirudi batek! Mutikoak oihu egin zuen; alde batera bultzatu, bizkor-bizkor aurreratu, hartu beste zeharbide bat eta mostradore baten atzean etzan nintzen luze-luze, zorioneko goi-argiren bati jarraiki. Oin mordoa ikusi nuen nire albotik igarotzen, eta oihuak entzun nituen, «Denok ateetara!» esanez, zer gertatzen zen elkarri galdezka, eta ni harrapatzeko aholkuak elkarri emanez.

‘Lurrean etzanda nengoen, izututa eta etsi-etsi eginda. Eta harrigarria badirudi ere, une hartan ez zitzaidan arropa kentzerik bururatu, nahiz eta horixe nukeen egokiena. Jantzita ihes egiteko asmo erabakia nuela pentsatzen dut, ideia horrek itsutu ninduela. Mostradore azpitik oihu bat entzun nuen: «Hortxe da!».

‘Kolpetik zutitu, mostradore gainetik aulki bat hartu eta oihu hura egin zuen ergelaren burura bota nuen hegan. Jiratu eta beste batekin topo egin nuen izkinan, baina nire bidetik bulunbaka kendu eta mailak igotzen hasi nintzen. Berak

oreka berreskuratu zuen ordea, eta «Heup!» esanda zurubian gora orpoz orpo jazarri ninduen. Zurubi-buruan kolore biziko ontzi horietako pila bat ikusi nuen, nola dira?

— Zeramikazko ontzi artistikoak edo —bota zuen Kempek.

— Hori da! Zeramikazko ontziak. Bada, azken mailan jiratu, hartu ontzi bat eta inozo haren buruan txikitu nuen nigana hurbildu zenean. Han joan zen ontzi pila guztia arrapaladan. Oihuak eta hara-honako urratsak entzun nituen. Jangela moduko gelara abiatu nintzen lasterka; han zuriz jantzitako gizon bat aurkitu nuen, sukaldaria edo izango zena, eta hura ere atzetik segika hasi zitzaidan. Etsi-etsi eginda aurrera jarraitu eta lanparen eta burdina zizelatuzko salgaien artean agertu nintzen berriro. Hango mostradore atzean ezkutatu nintzen, nire sukaldariaren zain, eta jarraitzaileen buru zeto-rrenez, indar handiz jo nuen lanpara batekin. Lurrera erori zen. Bitartean, mostradore atzean belauniko jarri, eta ahal bezain bizkor erantzten hasi nintzen. Berokia, jaka, galtzak eta zapatak erraz kendu nituen, baina artilezko elastikoa

larruazala bezala gelditzen da gorputzari itsatsita. Gizon gehiago zetozeala entzun nuen. Nire sukaldaria lurrean geldi-geldirik zegoen mostreadoreaz bestaldean, konorterik gabe edo izuak erabat mututurik. Ihes egiteko beste saio bat egin behar nuen, egur pila baten azpian gordetako untxi batek bezala.

‘«Zatoz hemendik, polizia jauna!», esan zuen oihuka norbaitek. Ohe-biltegira iritsi nintzen atzera; harantzago armairu-labirinto bat ikusi nuen. Armairu artera lasterka joan, ezkutatu eta elastikoa erantztea lortu nuen, ahalegin infinituak egin ostean. Berririo libre ikusi nuen neure burua, baina arnasestuka eta izututa nengoen. Izkinatik polizia eta hiru saltzaile agertu eta korrika hurbildu ziren elastikoa eta azpiko galtzak zeuden tokira eta prakak hartu zituzten. «Lapurtutako guztia uzten ari da, nonbait!», esan zuen gizon gazte batek. «Hemen nonbait ibiliko da!».

‘Ez ninduten aurkitu ordea.

‘Nire zelatan nola zebiltzan begira jardun nuen, arropak utzi behar zorigaiztoko hura madarikatzen nuen bitartean. Gero jangela modukogelan sartu nintzen berriro; han aurkitu-

tako esne apur bat edan eta sutondoan eseri nintzen neure egoera aztertzeraz.

‘Horretan, bi saltzaile iritsi eta gertaerari buruz hizketan hasi ziren zeharo aztoraturik, ergelak bailiran —izan, horixe baitziren Nire triskantzen ipuina, zeharo puztua, eta nire ezkutalekuari buruzko beste zozokeria batzuk entzun behar izan nituen. Berririo planak prestatzen jarri nintzen. Nire arazo larriena gauzak handik nola atera izango zen, ordurako nire gora-behera guztien jakinaren gainean zeudela kontuan hartuta batez ere. Biltegira jaitsi nintzen, eta fardel bat egin eta nora edo hara bidal zezaten ohar bat uzteko aukerarik ba ote nuen ikustera, baina ezin izan nuen asmatu dendakoek aginduak baieztatzeke zein sistema erabiltzen zuten. Hamaikak aldera, elurra jausi ahala urtzen zela ikusirik, eta aurreko egunekoa baino eguraldi atsegina eta epelagoa zetorrenez, denda hartan ezer gutxi lortuko nuela erabaki eta alde egin nuen handik, porrot egin izanagatik amorratzen eta planik batere zehaztu gabe.

23.

DRURY LANE INGURUAN

— Honezkero jabetzen hasia izango zara —
esan zuen Gizon Ikusezinak nire egoeraren
gogaikarriaz. Ez nuen aterperik, ez babesik ere,
jantziz gero abantaila guztiak galdu eta izaki
bitxi eta izugarri bihurtuko bainintzen. Baraurik
nengoen, ikusgai bihurtuko bainintzen zerbait
jaten banuen, hau da, nire gorputzak jaki hori
txegosi arte.

— Hortaz konturatu gabe nengoen! —esan
zuen Kempek.

— Baita ni ere! Eta elurrak ere zenbait arris-
ku erakutsi zizkidan. Elurra ari zuenean ez nuen
kalean ibiltzerik, elur malutek nire gorputz gai-
nean gelditu eta salatu egingo ninduketelako.
Euriak ere itzal urtsu bihurtuko ninduke, gizirudi
distiratsu baten gisara erakutsiko ninduke, bur-
buila baten antzera. Eta lainotan ere... Burbuila
lauso bat izango nintzateke lainotan; irudi bat,
gizaki baten antzeko izpi lausoa. Gainera, kanpo-
ra, Londresko kaleetara alegia, irten nintzenean

orkatila inguruak zikindu zitzaizkidan, larruazalean lohia eta hautsa pilatu baitzitzaizkidan. Ez nekien bide horretatik zenbat denboraren buruan bihur nintekeen ikusgai. Baina ziur nengoen ez nuela denbora asko beharko. Ez Londresko kaleetan, behinik-behin!

‘Great Portland Street inguruko arrabaletara joan eta ni bizi izan nintzen kalearen muturrera iritsi nintzen. Baina ez nintzen etxe aldera joan, jende samalda handia ikusi bainuen kale erdian, neronek erretako etxearen hondakin ketsuen aurrean. Premia nagusia jantziak eskuratzea nuen. Aurpegiarena nola konpondu ez nekien. Horretan pentsatzen ari nintzela, maskara eta txantxetako sudur mordoa ikusi nuen denda nahas-mahas txiki horietako batean, egunkariak, gozokiak, jostailuak, bulegoko gauzak, Gabonetako pailazokeria zaharkituak eta horrelakoak saltzen dituzten horietako batean. Nire arazoa konpondua zela pentsatu nuen. Argialdi batean hurrengo urratsak zehaztu nituen. Atzera egin nuen, zertan ari nintzen jakitun, eta Strand Streeten iparraldera joan nintzen, inorekin topo ez egitearren hainbat itzulinguru eginez. Gogora

etorri zitzaidan antzerkirako arropa egiten zuten jostun batzuek han inguruan ezarri zituztela beren dendak, zehazki non ez banekien ere.

‘Hotz egiten zuen, haize zorrotza zebilen iparraldera ematen zuten kaleetan. Bizkor nindoan, inork ez harrapatzeko. Kalea gurutzatzen nuen bakoitzean arriskuan jartzen nintzen, arreta handiz begiratu behar nituen oinezko guztien nondik-norakoak. Bedford Streeten gizon bat ustekabean jiratu zen, aurea hartzera nindoakion unean bertan; nirekin estropezu egin eta errepi-dera bota ninduen, handik pasatzen ari zen zalgurdi baten gupil azpira ia. Gizonak atake bat edo izan zuela pentsatu zuen gurdizainak. Gertaera horrek erabat kokilduta utzi ninduenez, Covent Gardeneko azokara jo nuen eta bioletak saltzen ziren postu baten alboan eseri nintzen, apur bat lasaitzearren; izan ere, dardara eta arnasestu batean nengoen. Berriro hotzeria harrapatu nuela ohartu nintzen ordea, eta azokatik alde egin behar izan nuen, inork nire doministikuak entzun ez zitzan.

‘Aurkitu nuen, noizbait, behar nuena: dendaxka zikin eta hondatu bat zen, Drury Lanetik

hurbileko kalekka batean. Lentejuelekiko jantzi distiratsu, bitxi faltsu, ileorde, dantzarako oinetako, domino eta antzerki argazkiez betea zegoen. Modaz pasatako denda makur ilun bat zen, eta lau solairuko etxe bat zuen gainean, goibela eta iluna hura ere. Leihotik barrena begiratu eta inor ez zegoela ikusita, sartu egin nintzen. Atea irekitzean kanpai batek txilin egin zuen. Irekita utzi nuen, eta mozerroak zeuden bazterrera joan nintzen, ispilu handi baten atzera. Minutu batean edo ez zen inor agertu. Denbora horren buruan gela batetik igarotzen ziren urrats astunak entzun nituen, eta gizon bat agertu zen dendan.

‘Ondo nekien zer egin behar nuen: etxebizitzan sartu, goian ezkutatu, aukerarik onenaren zain egon, eta, dena lasai gelditzen zenean, ileordea, maskara, betaurrekoak eta mozerroa eskuratu, eta mundura jalgi, gizirudi agian barrengarri baina betiere sinesgarri bihurturik. Eta, bide batez, han aurkitzen nuen diru guztia lapurtu, noski.

‘Dendan sartu zen gizona txikia, argala eta konkorduna zen; bekain iletsuak, beso luzeak eta hanka zabal laburrak zituen. Jatordua egiten

harrapatu nuen, nonbait. Denda guztian zehar begiratu zuen jakin-minez. Denda hutsik ikusirik, hasierako keinua harridurazko keinu bihurtu zen gero, eta amorruzkoa azkenik. «Mutil kozkor nazkante hauek!» esan zuen. Aterantz joan eta kalera jaitsi zen. Handik gutxira itzuli zen dendarra, atea ostiko batez itxi, haserre, eta dendatik etxe barrura sartu zen marmarka.

‘Haren atzetik abiatu nintzen, baina nire mugimenduaren hotsak bertan geldiarazi zuen. Gauza bera egin nuen nik ere, haren entzumen bikainarekin harriturik. Baina muturren aurrean itxi zidan etxeko atea.

‘Zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Horretan, haren pausoak entzun nituen berriro, dendara zetozeala; atea ireki zen berriro. Denda guztia arakatu zuen, lehenengo begiratuan lasai gelditu ez balitz bezala. Erakusmahaiaren atzealdea miatu zuen, marmarka, eta manikien artean begiratu bat egin zuen. Zalantzan gelditu zen. Etxeko atea irekita utzi zuen, eta barruko gelara sartzea lortu nuen horrela.

‘Gela aski txikia zen, altzari gutxi zituen, eta bazter batean maskara pila bat zegoen. Mahai

gainean gosaria zeukan, ordurako berandutua; gogaikarria izan zen niretzat, Kemp, kafe haren usainean gelditu beharra dendaria gelara itzuli eta gosaria bukatzen zuen denbora guztian. Oso manera txarrak zituen gizonak gainera. Gelan hiru ate zeuden; bat bigarren solairura zihoan eta beste bat behera, baina itxita zeuden denak. Ezingo nintzen gelatik irten bera han zegoen bitartean, mugitu ere ezin nintzen ia mugitu, zentzu guztiak erne-erne baitzituen. Haize bolada bat igarotzen zen nire bizkar atzetik. Bi aldiz lortu nuen, asko kostata halere, doministikuak itotzea.

‘Nire sentipenak nahasiak eta berriak ziren, baina gizonak jatordua amaitu baino askoz lehenagorako zeharo nekatuta eta haserre nengoen. Amaitu zuen, noizbait, eta teontzia zegoen latorrizko erretilu beltzean ezarri zituen bere ontzi errukarriak, eta ziapez zikinduriko mahai-oihaleko ogi apur guztiak bildu ostean, traste guztiak eramane zituen. Karga hark ez zion atea ixteko aukerarik eman, beti hala egin ohi bazuen ere; inoiz ikusi gabe nengoen ateak ixteko halako grina zuen gizonik. Hala, haren atzetik joan nin-

tzen, sotoan zegoen sukaldegarbitoki zikin bate-
raino. Atsegin han-
dia hartu nuen
harrikoa egiten hasi
zenean, eta, han
egotearekin ezer
gutxi lortuko nuela
ikusirik eta lurreko
harlauzetan oinak
hozten hasi zitzaiz-
kidanez, gora igo
eta haren eserle-
kuan eseri nintzen,
sutondoan. Sua
itzaltzen ari zen,
eta zer egiten nuen
ia konturatu gabe,
ikatz pixka bat
gehiago bota nuen
sutara. Hori egitean
ateratako hotsa
entzun zuen eta
berehala igo zen;
adi-adi begira geldi-

tu zen. Gela miatzen hasi eta ni ukitzeko zorian egon zen. Baina miaketa horrekin ere ez zirudien lasai zegoenik gizona. Ate aurrean berriro gelditu zen, eta alde egin aurretik azken begiratu egin zion gelari.

‘Luzaz itxaron nuen egongela hartan; azkenean, itzuli zen dendaria eta bigarren solairura ematen zuen atea zabaldu zuen. Haren atzetik abiatu nintzen.

‘Zurubian ustekabea gelditu zen; harekin behaztopa egiteko zorian egon nintzen. Eskuinaldetik atzera begiratu zuen, nire aurpegian zehar, eta adi-adi jarri zen. «Lepoa egingo nuke...», esan zuen. Esku luze iletsuarekin tira egin zion beheko ezpainari. Bere begiek zurubian gora eta behera begiratu zuten. Gero, erre-muskada bat egin eta gorantz jarraitu zuen.

‘Eskua ate bateko maratilan zuenean berriro gelditu zen; lehenagoko haserre eta harridura keinu berbera zuen orduan ere. Haren atzean egiten nituen mugimenduen hots apala antzematen hasia zen, nonbait. Gizon hark entzumen arrunt zorrotza zuela iruditu zitzaidan. Horretan, sutan jarri zen. «Norbait aurkitzen badut etxe honetan...» oihu egin zuen biraoka, eta bukatu gabe utzi zuen mehatxua. Eskua patrikan sartu eta bila zebilena aurkitu zuen; nire albotik igarota zurubira itzuli zen, arrapaladan, zarata handia eginez eta oldarkor. Ez nion jarraitu. Zurubi buruan eseri nintzen, hura itzuli zain.

‘Handik apur batera bazetorrela antzeman nuen, marmar batean orduan ere. Gelako atea zabaldu eta ni sartu aurretik, muturren aurrean itxi zidan berriro.

‘Etxea miatzea erabaki nuen. Denbora dexente eman nuen horretan, ahal bezain isilik ibili behar nuen eta. Oso etxe zaharra zen, oso hondatuta zegoen; hain hezea zen non ganbarako hormetako papera askatzen hasia baitzen; eta arratoiez josita zegoen. Ate gehienetako maratilek kirrinka egiten zuten, eta ez nintzen

ausartu haiek irekitzera. Arakatu nituen gela batzuetan ez zegoen batere altzaririk. Beste batzuk, berriz, antzerkiko trastez beterik zeuden; itxuragatik, bigarren eskuko trasteak ematen zuten. Gizona zegoen gelaren aldamenean arropa mordoa aurkitu nuen. Haiek aztertzen hasi nintzen, eta nire grinak gizonak erakutsia zuen entzumen zorrotza ahaztarazi zidan berriro. Halako batean, urratsak entzun nituen, ni nengoen gelara isilka hurbiltzen; garaiz begiratu nuen, eta antigoaleko errebolber bat hartuta arropa-meta nahasi hura aztertzen ari zela ohartu nintzen. Geldi-geldirik egon nintzen, berak, ahozabalik eta mesfidantzaz, gelako zoko guztiak ikertzen zituen bitartean. «Atsoa izango zen.», esan zuen mantso-mantso. «Atso madarikatu hori!».

‘Atea poliki-poliki itxi eta giltza jiratu zuela entzun nuen. Urrundu egin ziren urratsak. Berehala ohartu nintzen giltzapeturik nengoela. Zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Atetik leihora eta leihotik atera joan nintzen. Txundituta nengoen. Sutan. Beste ezer egin aurretik jantziak aztertzea erabaki nuen, baina lehenengo saioan arasa

batetik arropa pila bat bota nuen. Hala, berriro itzuli zen gizona, sekula baino haserreago gainera. Eta ordukoan ukitu egin ninduen; jauzi bat eginez ikaratuta atzeratu eta gela erdian gelditu zen zur eta lur.

‘Berehala lasaitu zen apur bat. «Arratoiak!», esan zuen bere artean, hatzak ezpainenetan zituela. Bistakoa zen izutu samar zegoela. Isil-isilik irten nintzen gelatik, baina ohol batek karraska egin zuen. Eta piztia zakar hura etxearen alde batetik bestera abiatu zen, errebolberra eskuan hartuta; ibilbidean aurkitu zituen ate guztiak itxi eta giltzak patrikan gorde zituen. Amorratzen jarri nintzen zer egin nahi zuen ohartu nintze-nean. Ezin nuen neure ezinegona menderatu eta aukera onenaren zain gelditu. Ordurako bane-kien bakarrik zegoela etxean eta, besterik gabe, buruan jo nuen.

— Buruan jo zenuela? —esan zuen Kempek.

— Bai, zurubian behera zihoala, jo eta konorterik gabe utzi nuen. Atzetik jo nuen, pasiloan aurkitu nuen aulki batekin. Bota zaharrez beteriko zaku bat bezala jauzi zen zurubian behera.

— Baina! Aizu... Non dira gizatasunaren oinarritzko legeak...

— Jende arruntarentzat oso ongi daude horiek. Baina kontua zen, Kemp, mozorroturik eta inork ikusi gabe irten behar nuela etxe hartatik. Eta ez zitzaidan hori lortzeko beste biderik bururatu. Gero Luis XIV.a estiloko zapi bat aho inguruan lotu nion eta maindire batean bildu nuen.

— Maindire batean bildu zenuela?

— Zaku moduko bat egin nuen maindirearekin. Ideia ona izan zen inozo hura izututa eta isilik mantentzeko; oso zaila zuen handik irtetea. Gainera sokaz lotu nuen. Kemp adiskidea, ez da bidezkoa inor hil banu bezala begiratzea horregatik! Beste erremediorik ez nuen. Berak errebolber bat zeukan. Ikusi izan banindu nire deskribapena zalbalduko zuen.

— Baina, halere —esan zuen Kempek Ingalaterran, gaur egun... Gainera gizon hura bere etxean zegoen, eta zu, tira..., zu lapurretan ari zinen.

— Lapurretan! Bai zera! Eta hurrena, lapurra naizela esango didazu! Benetan, ez nuen uste

hain antigoalekoa zinenik. Ez al duzu ikusten zein zen nire egoera?

— Baita harena ere! —erantzun zion Kempek.

Gizon Ikusezina zutik jarri zen.

— Zer esan nahi duzu?

Kempen keinua zorroztu egin zen. Hitz egitera zihoan, baina bere burua menderatzea lortu zuen.

— Azken batean, hori egitea beste irtenbiderik ez zenuen izango, noski —esan zuen, jarrera aldaturik Ataka larri batean zinen. Baina, hare...

— Noski ataka larrian nengoela, ataka zorigaiztoko batean! Eta gizon hark neure onetik atera ninduen gainera: etxe guztian nire atzetik, bere errebolberrarekin jolasean, ateak irekitzen eta ixten. Gogaikarria zen! Ez didazu hura egin izana gaitzetsiko, ezta? Ez didazu gaitzetsiko, ez?

— Nik inoiz ez diot inori ezer gaitzesten —esan zuen Kempek Hori zaharkituta gelditu da. Zer egin zenuen ondoren?

— Goseak nengoen. Ogi xerra bat eta gazta zaharmindu pixka bat aurkitu nituen goian, neukan gosea asetzeko aski baino gehiago. Brandyur apur bat edan, neure behin-behineko fardelaren gainetik igaro —bera lasai-lasai etzanda zegoen eta arropa aurkitu nuen gelara joan nintzen. Gelatik kalea ikusten zen, zikinak horituta-ko bi mihise farfildunen atzetik. Egun argia zegoen; ni nengoen etxe hondatu hartako itzal ilunekin kontraste handia egiten zuen. Egun distiratsua zen benetan. Trafiko handia zebilen: fruitazaleen gurdiak, zalgurdi bat, kaxaz beteriko lau-gurpileko bat, arrain saltzailearen gurdia. Neure atzeko altzari ilunen aldera jiratu nintzen, begien aurrean koloretako izpiak dantzan zebilz-kidala. Asaldura desagertu ahala, beldurra nagusitu zitzaidan berriro nire egoeraren zoritxar-aren aurrean. Gelan bentzol usaina zegoen; bentzola jantziak garbitzeko edo erabiliko zuela pentsatu nuen.

‘Etxearen azterketa sistematikoa egiten hasi nintzen. Konkordunak aspalditik bakarrik bizi behar zuela pentsatu nuen. Agure xelebrea zen oso. Baliagarri izan zitezkeen gauza guztiak jan-

tzien gelan bildu eta haien artetik egokienak hautatu nituen. Poltsa bat aurkitu nuen, oso erabilgarria, bai eta zenbait hauts, masail-apaingarri eta esparadrapoa ere.

‘Aurpegia eta agerian nituen atal guztiak margotzea edo hautsez estaltzea pentsatu nuen, ikusgai bihurtzeko. Baina eragozpen bat zegoen: berriro desagertu ahal izateko trementina, beste zenbait gai eta denbora dextente beharko nuen. Azkenean, hartu nituen maskara bat, aurkitu nuen txukunena —zabar samarra hala ere, baina ez edozeinen aurpegia baino zabarragoa betaurreko ilun batzuk, bibote zuri bat, eta ileorde bat. Ez nuen azpiko jantzirik aurkitu, baina erosi ahal izango nuen geroago; hasteko, kotoi leunezko jantzi luze txanodun bat eta katxemirazko lepoko zuri batzuk hartu nituen. Ez nuen galtzerdirik ere topatu, baina konkordunaren botak lasai antzean neuzkan eta haiekin aski nuen. Dendako mahai batean hiru soberano eta zilarrezko hogeita hamar bat txelin aurkitu nituen, eta denda atzeko gelan giltzaz itxita zegoen arasa bat apurtu, eta urrezko zortzi libra hartu nituen.

Mundu zabalera irteteko pronto nengoen berriro, ongi horniturik.

‘Zalantza bat nuen. Nire itxura benetan sinesgarria ote zen? Logeletako apainmahaiko ispilu txiki horietako baten aurrean jarri nintzen, eta alde guztietatik begiratu nuen neure gorputza, zerbait ahaztu ote zitzaidan edo ikusteko; ongi zegoen dena. Antzerki emanaldi bateko pertsonaia ematen nuen —muntaia merke batekoa baina gorpuzkerari zegokionez ez nuen aitzakiarik. Beraz, adorez beterik, ispilutxoa dendara eramanez, dendako errezelak jaitsi eta dendako ispilu handiaren laguntzarekin goitik behe-ra miatu nuen neure burua.

‘Minutu batzuk behar izan nituen neure buruarekiko konfiantza osoa berreskuratzeko. Gero dendako ateko kisketa ireki eta kalera irten nintzen, eta han utzi nuen gizarajoa, nahi zue-nean maindiretik aska zedin. Handik bost minutura dendatik dozena bat etxadira edo nengoen. Eta antza zenez inor ez zen nire itxuragatik kezkatu. Gainditua nuen neure azken arazoa!

Isildu egin zen.

— Eta konkordunaz ez zinen gehiago arduratu? —galdetu zion Kempek.

— Ez —erantzun zion Gizon Ikusezinak Eta ez dut haren berririk gehiago izan. Lortuko zuen loturak askatzea edo maindiretik ostikoka irte-tea, nik uste. Korapiloak lasaiak ziren.

Berriro isildu, leihora joan eta leihotik begiratu zuen.

— Zer gertatu zitzaizun Strandera irten zine-nean?

— Ene! Etsipena berriro! Arazo guztiak gain-dituta nituela uste nuen, banuela edozer egiteko aukera, neure sekretua agerian uztea izan ezik. Hala uste nuen. Neure ekintzek eta ekintzen ondorioek ez zidatela kalterik egingo. Aski nuela arropak erantzi eta desagertzea. Inork ezingo ninduela harrapatu. Dirua har nezakeela dirua aurkitzen nuen edozein tokitan. Hori sinetsita, neure burua saritzeko jatordu oparo bat egitea erabaki nuen, eta gero hotel on batera joan eta ondasun gehiago eskuratzea. Izugarri seguru sentitzen nintzen. Ez da batere goxoa orduan zein inozoa izan nintzen oroitzea! Sartu jatetxe batean, eta zer jango nuen erabakitzen ari nin-

tzenean konturatu nintzen ezingo nuela ezer jan baldin eta nire aurpegi ikusezina agerian uzten ez banuen. Eskatu jakiak, zerbitzariari hamar minuturen buruan itzuliko nintzela esan eta kanpora irten nintzen zeharo atsekabeturik. Ez dakit horrelako ustekaberik hartuko zenuen inoiz jate-narekin...

— Ez, hain gogorrik inoiz ez —esan zuen Kempek Baina ulertzen dut nola sentituko zinen.

— Jendearekin dinbi-danba hasteko gogoan nuen. Azkenean, jatordu oparo bat egiteko grina menderatu ezinik, beste jatetxe batera joan eta jangela pribatu bat eskatu nuen. «Aurpegia erabat desitxuratua daukat.», esan nien. «Zeharo desitxuratua.» Jakin-minez begiratu zidaten, baina hori ez zen haien kontua, eta azkenik lortu nuen jatordua egitea. Zerbitzua ez zen oso ona, baina jatekoa bai. Bukatu nuenean, zigarro bat erretzen gelditu nintzen, handik aurrerako planak prestatzen. Kanpoan elur-erauntsia zen.

‘Zenbat eta gehiago pentsatu, Kemp, are garbiago ikusten nuen zein zentzugabe eta errukarria zen Gizon Ikusezina-ren bizitza, batez ere klima hotz ziztrineko hiri jendetsu batean. Nire

esperimentu ero hura egin aurretik milaka abantailekin amets egin nuen. Baina arratsalde hartan dena zen eragozpen. Gizonek nahi izaten dituzten gauzetan pentsatu nuen. Ikusezintasunak horiek guztiak eskuratzeko bidea emango zidan, zalantzarik gabe. Baina haiek lortu ondoren haietaz gozatzeak ezinezko gauza zirudien. Handinahia! Zertarako balio du nonbaiteko kuttuna izateak, nonbait horretara joaterik ez baduzu? Zertarako balio emakume baten maitea izateak, emakume horren izenak nahitaez Dalila izan behar badu? Ez dut politika atsegin, ez ospearen azpijokoak, ez filantropia, ez eta kirola ere. Zer egin nezakeen? Horretarako bihurtu ote nintzen, bada, mozorro misterioitsu, gizon baten karikatura bendaz betea!

Isildu egin zen; leihotik begira zegoela esandaiteke haren egokeragatik.

— Nolatan joan zinen Ipingera, baina? —galdetu zion Kempek, solaskideari hitz eginarazteko irrikitan.

— Lanera. Artean banuen itxaropena. Ideia txo bat nuen! Eta oraindik ere badut. Baina askoz ere biribilagoa dagoeneko. Itzultzeko bide

bat. Nire lorpena lehenera bihurtzeko bidea. Nahi dudanean. Eta *nire lorpena* esaten dudanean, ikusezintasuna esan nahi dut. Eta horixe da, hain zuzen, orain azaldu nahi dizudana.

— Zuzenean joan al zinen hara?

— Bai. Hiru ohar-liburuak eta txeekeen liburuxka, ekipaia eta azpiko jantzi berriak bakarrik hartu behar izan nituen. Neure ideia landu ahal izateko kimikako hainbat tresna eta gai eskatu (liburuak eskuratu bezain laster erakutsiko dizkizut formula guztiak) eta lanari ekin nion. Aurrea! Gogoan dut elur-erauntsia, zein gogaikarri eta nekagarria zen nire kartoizko sudurra elurra-
ren hezetasunetik gorde behar hura...

— Eta azkenean —esan zuen Kempek here-negun, aurkitu zintuztenean, bada, hori, egunkariak dioenez...

— Bai. Hori. Polizia madarikatu hura hil al nuen?

— Ez —esan zion Kempek Osatuko dela diote.

— Zorioneko dago, orduan. Oso haserre nengoen. Ergel alaenak! Zergatik ez zidaten alde

egiten utzi? Eta beste dendari baba-lore hura berriz?

— Ez omen da inor hilko —esan zuen Kempek.

— Ez dakit, bada, nire arlote hori ere salbatuko den —esan zuen algara higuigarri bat eginenez Gizon Ikusezinak. Eta jarraitu zuen Kemp, ez dakizu ongi zer den amorrúa! Urteetan lanean jardun, plangintzak eta egitasmoak antolatu, zertarako, eta astapotro ezjakin eta egoskor bat etorri eta guztia hondatzeko! Inoiz sortu diren izaki inozoenak niri bidean oztopo egiteko sortuak dira inondik ere! Horrela jarraitzen badut erotu egingo naiz. Neure bidetik baztertu beharko ditut nola edo hala. Izan ere, behin eta berriro okertu dizkirate gauzak.

— Gogaikarria da benetan —esan zuen Kempek lehor.

24.

LANAK HUTS EGIN

— Baina —esan zuen Kempek, leihotik begiratu bat egin zera zer egin behar dugu orain?

Eta bere gonbidatuaren albora joan zen, errepidean gora etxerantz zetozen hiru gizonak ikusi ez zitzaizkion edo; hiru haiek patxada-patxadan zetozen gainera, Kempen iritzirako.

— Zer egin nahi zenuen Port Burdockera iritsitakoan? Planen bat al zenuen?

— Kanpora alde egiteko asmoa nuen. Baina zurekin topo egin dudalarik, plana aldatu dut. Zuzenena hegoaldera joatea izango zela pentsatu nuen, hango eguraldia epela delako eta han posible delako ikusezintasuna. Honezkero zabaldu delako nire sekretua hemen, eta jende guztia gizon moztaratu maskaradun baten bila ibiliko delako. Hemendik abiatzen dira Frantziarako itsasontziak; horietako batean itsasoratu eta bidaiak ekar ditzakeen arrisku guztiak neure gain hartzeko asmoa nuen. Handik Espainiara edo Aljeriara joan nintekeen, trenez. Ez dut uste

zaila gertatuko litzaidakenik. Lurralde haietan urte guztian izan daiteke gizon bat ikusezin, ez da hotzez hilko. Eta gauzak egin ditzake. Neure dirua eta ekipaia eramateko erabili nahi nuen arlote hura, bizitzen jartzen nintzen tokira liburuak eta gauzak nola bidali erabaki arte.

— Jakina.

— Baina, hara non, gizatxar horrek lapurreta egiten didan! Liburuak ezkutatu zizkidan, Kemp! Nire liburuak ezkutatu zituen! Harrapatzen badut...!

— Hobe duzu liburuak lehenbailehen hari kentzea.

— Non dago bera, ordea? Zuk ba al dakizu?

— Hiriko polizia-bulegoetan dago, giltzapean, berak hala eskatuta, etxe hartako ziegarik seguruenean.

— Urde zikina! —esan zuen Gizon Ikusezinak.

— Horrek apur bat atzeratuko ditu zure planak.

— Liburu horiek eskuratu beharra dugu; behar-beharrezkoak ditugu.

— Noski —esan zuen Kempek, urduri samar, gonbidatuak kanpoko urratsak entzungo zituen beldur Jakina. Liburu horiek eskuratu behar ditugu. Baina ez da lan nekeza izango, zuretzat zeinen garrantzitsuak diren ez badaki behintzat.

— Ez, ez daki —esan zuen Gizon Ikusezinak, eta pentsakor gelditu zen.

Kemp hizketan jarraitzeko beste zerbait asmatzen saiatu zen, baina Gizon Ikusezinak ez zuen erregu handirik behar izan berriketan jarraitzeko.

— Zure etxean sartu izanari esker, Kemp —esan zuen nire plan guztiak aldatu dira. Gizon argia zara eta. Nahiz eta hau dena gertatu, nahiz eta berria zabaldu, nahiz eta nire liburuak galdu eta horrenbeste sufritu dudan, oraindik ere badugu aukera, aukera ugari...

‘Inori esan al diozu hemen naizenik? —galde-tu zion halako batean.

Duda-mudatan gelditu zen Kemp.

— Ez al nizun hitz eman? —erantzun zion.

— Inori ez? —berriro Griffinek.

— Inori ere ez.

— Ah! Orain...

Eta Gizon Ikusezina altxatu eta eskuak gerrian jarrita gelan hara eta hona hasi zen.

— Huts egin nuen, Kemp, eta huts galanta, gainera: bakar-bakarrik egin nahi izan nuen hau guztia. Indarra, denbora eta aukera asko alferrik galdu ditut hau dena nik bakarrik egin nahi izanagatik. Bakarrik! Ikustekoa da gizon batek bakarrik zer gutxi egin dezakeen! Zerbait lapurtu, norbaiti eraso, eta kitto!

‘Nik nahi dudana zera da, Kemp: babesle bat; laguntzaile bat; ezkutaleku egoki bat; lo egiteko, jateko eta atsedeen hartzeko toki bat, inori susmorik sortuko ez diona. Konplize bat behar dut. Konplize batekin, janari eta atsedeenlekuarekin, milaka gauza lor daitezke.

‘Orain arte galduta ibili naiz. Orain ikusezintasunak zer esan nahi duen eta zer esan nahi ez duen aztertu behar dugu. Ez du abantaila handirik eskaintzen espioitzarako-eta, ikusezin batek ere hotsa ateratzen duelako; etxeetan lapurreta egiteko-eta ez da languntza handia, alderantziz baizik. Gainera behin harrapatuz gero, oso erraza dute ni espetxeratzea. Baina hori bai, harrapatzen zaila naiz. Ikusezintasun hau, beraz, bi

gauzatarako bakarrik da baliagarria: baliagarria da nonbaitetik ihes egiteko, eta baliagarria da norabait hurbiltzeko. Bereziki baliagarria da, beraz, hiltzeko. Edozein gizonengana, izan armatu edo armagabe, joan, tokia ongi hautatu eta nahierara jo. Eta nahierara itzuri. Nahierara ihes egin.

Kempek eskua bibotera eraman zuen. Behean mugimenduren bat entzun ote zuen?

— Eta horixe da guk egin behar duguna, Kemp: jendea hil.

— Eta horixe da guk egin behar duguna: jendea hil —errepikatu zuen Kempek Zure plana entzuten ari naiz, Griffin, baina, begira, ez nago ados. Zergatik hil?

— Ez dut esaten hilketa zentzugabeak egin behar ditugunik, behar bezalako hilketak baizik. Begira: badakite badela Gizon Ikusezin bat. Eta, orain, Gizon Ikusezinak Izuaren Erreinua eratu behar du. Bai, izugarria da, zalantzarik gabe. Baina benetan ari natzaizu. Izuaren Erreinua. Zure Burdock honen gisako zenbait hiri hartu, izutu eta menderatu behar ditu. Aginduak eman behar ditu. Milaka bide ditu hori egiteko, baina

aski du atepeetatik paper bat sartzea. Bere agindua hausten dutenak hil behar ditu, bai eta horien alde agertzen diren guztiak ere.

— Hum! —esan zuen Kempek, Griffini jaramon handirik egin gabe, etxeko sarrera-atea ireki eta itxi zela entzuteak asaldatu egin baitzuen.

— Griffin —esan zuen, haren arreta erakartzearren zure konplizea oso egoera zailean egongo litzatekela iruditzen zait.

— Inork ez luke jakingo bera nire konplizea denik, ordea —esan zuen sutsu Gizon Ikusezinak.

Eta gero:

— Ixo! Zer gertatzen da hor behean?

— Ezer ere ez —esan zuen Kempek; ozen eta azkar hitz egiten hasi zen berehala Ez nago horrekin ados, Griffin —esan zuen Uler nazazu, ez nago horrekin ados. Zergatik asmatu gizadia menderatzeko plan bat? Nola lortuko duzu, orduan, zoriontasuna? Ez zaitez izan otso bakar-ti oldarkorra. Eman argitara zure lanen emaitzak; izan fedea munduan; izan fedea zure aberrian, behintzat; izan fedea zeure buruan. Zer ez

zenukeen lortuko milioika adiskideren laguntza-
rekin!

Gizon Ikusezinak isilarazi egin zuen, besoak
luze-luze eginda.

— Urratsak entzuten dira zurubian —esan
zuen ahapeka.

— Bai zera! —Kempek.

— Noan begiratzera —esan zuen Gizon Iku-
sezinak, ate aldera aurreratu eta besoa luzatu-
rik.

Ondorengo gertaerak oso bizkorrak izan
ziren. Kemp zalantzan gelditu zen apur batean,
eta gero aurreratu egin zen besteari oztopo egi-
teko. Gizon Ikusezina harrituta zegoen, geldi-gel-
dirik.

— Traidore alaena! —esan zuen Ahotsak, eta
bat-batean bata ireki zen, eta Ikusezina eseri eta
eranzten hasi zen. Kempek hiru urrats bizkor
egin zituen ate aldera; Gizon Ikusezina, oinak
ordurako desagertuak zituena, zutitu eta oihuka
hasi zen. Kempek atea ireki zuen.

Atea ireki zenean urrats bizkorrak eta aho-
tsak entzun ziren, zurubitik.

Mugimendu laster batekin Kempek Gizon lku-sezinari atzerantz bultza egin zion, kanpora jauzi egin eta atea itxi zuen. Giltza kanpoan utzita zuen, apropos jarrita. Horrela langelan giltzape-turik geldituko zen Griffin, bakarrik, harrapatuta. Xehetasun txiki bategatik izan ez balitz: Kempek giltza sarrailan ongi sartu gabe utzi zuen goi-zean, presaren presaz, eta atea indarrez ixtean giltza alfonbrara erori zen hotsik atera gabe.

Kemp zurbil-zurbil gelditu zen. Ateko marati-lari bi eskuez eusten saiatu zen. Tiraka jardun zuen. Atea sei bat hatz ireki zen. Baina atzera berriro ixtea lortu zuen. Bigarreanean, ordea, oin bat ateratzeko adina ireki zen; bata atearen zirri-kitutik irten zen. Hatz ikusezin batzuek eztarritik heldu zioten Kempti, eta maratila askatu behar izan zuen bere burua defenditzeko. Zerbaitek atzera bultzatu, hankatrabatu eta tranpaleko bazter batera bota zuen. Bata barne-hutsa gai-nera joan zitzaion hegan.

Zurubiaren erdialdera iritsita zegoen Adye koronela, Kempen eskutitza hartu zuena, Bur-dockeko poliziburua. Izaturik begiratu zuen Kem-pen agerraldia eta haren atzetik hegan zihoan

jantzi bitxia, jantzi barne-hutsa, airean bere kasa mugitzen zela. Kemp behaztopaka ikusi zuen, bere hankekin borrokan. Hurrena korrika zihoala ikusi zuen, baina idi bat bezala erori zen berriro.

Horretan, jo egin zuten Adye. Ezerezak, ordea! Zirudienez, pisu astun bat erori zitzaion gainera, eta zurubian behera bota zuen hankaz gora, eztarritik heltzen eta belaun bat hankartean ezartzen ziola. Oin ikusezin batek bizkarra zapaldu zion eta mamu-urrats batzuk entzun ziren zurubian behera; ezkaratzean zeuden bi polizia-ofizialek oihu egin eta korrika alde egin zutela entzun zuen gero, eta etxeko sarrera-atea indar handiz itxi zen.

Adye itzulika erori eta eserita gelditu zen, batera eta bestera begira. Kemp zurubian behera jaisten ikusi zuen, hautsez beterik, ilea nahasturik, aurpegiaren alde bat zaplasteko baten ondorioz zuri-zuri, ezpaina odoletan, eta eskuetan bata arrosa bat eta beste azpiko jantzi batzuk zituela.

— Jainko maitea! —oihu egin zuen Kempek Amaitu da jolasa! Ihes egin du!

25.

GIZON IKUSEZINAREN EHIZAN

Kemp ez zen gertaera bizkor haiek Adye koronelari azaltzeko gauza. Tranpalean zeuden, Kemp tarrapataka hizketan, Griffinen arropa zarpailak eskuan zituela artean. Baina Adye berehala hasi zen egoeraren nondik-norakoak ulertzen.

— Erotuta dago —esan zuen Kempek Ez da gizaki bat. Berekoikeriaren irudi berbera da. Bere onura bakarrik hartzen du kontuan, bere segurtasuna. Gaur goizean berekoikeriarik ankerrenaren ipuina entzun behar izan dut. Gizon asko zauritu omen ditu. Eta hil ere egingo ditu, ez badiogu nolabait galarazten. Izua zabaldu nahi du. Ezerk ezingo du gelditu. Sutan alde egin du hemendik!

— Harrapatu egin behar dugu —esan zuen Adyek Nahitaez!

— Nola ordea? —esan eta hainbat ideia bururatu zitzaizkion berehala Kempki Oraintxe hasi behar duzue. Zure esanetara dituzun gizon guztiak bildu. Barruti honetatik irtetea eragotzi

behar diozu. Hemendik alde egitea lortuz gero, lasai asko ibiliko da landetan, jendea hiltzen, kalte larriak egiten. Izuaren Erreinua du amets! Izuaren Erreinua, pentsa! Tren guztiak, errepi-deak eta itsasontziak miatu behar dituzu. Guda-rosteak ere parte hartu beharko du. Laguntza eskatu behar duzu telegrafoz. Beretzat balio handikoak bide diren ohar-liburu batzuk eskuratu artean bakarrik geldituko da hemen. Aurrerago azalduko dizut hobeto! Gizon bat baduzu polizia-bulegoetan: Marvel...

— Bai, badakit —esan zuen Adyek Badakit. Liburu horiek, bai.

— Eta ez diozu utzi behar jaten edo lo egiten; herrialde guztiak gau eta egun egin behar dio aurre. Jakiak giltzapean gorde beharko dira, jaki guztiak; jan bila hasi beharko du. Etxe guztiak babestu beharko dira haren erasoetatik. Gau hotzak eta euriteak bidaliko ahal dizkigu Jainkoak! Herri guztiak haren ehizan hasi behar du, eta ehizari eutsi egin behar dio, gainera. Berriro diotsut, Adye: oso arriskutsua da, izurria da. Ikara ematen du harrapatu eta giltzaperatu ezean egingo dituen gauzetan pentsatze hutsak.

— Zer gehiago egin dezakegu? —galdetu zuen Adyek Behera jaitsi eta den-dena antolatzaren hasiko naiz. Baina zergatik ez zara nirekin etortzen? Bai, zatoz zeu ere. Zatoz, eta gerra kontseilu moduko bat osatuko dugu; laguntza eskatuko diegu Hoppsi eta tren konpainiako arduradunei. Arranopola! Hil ala biziko kontua da hau! Goazen, kontatuko didazu bidean. Zer gehiago egin dezakegu? Idatz ezazu bururatzen zaizun guztia.

Hala, zurubian behera abiatu zen Adye, Kempen aurretik. Sarrera-atea irekita aurkitu zuten, eta polizia-ofizialak, berriz, kolean, ezerezari begira.

— Ihes egin digu, jauna —esan zuen batek.

— Bulego nagusietara joan behar dugu lehenbailehen —esan zuen Adyek Ea, zuetako bat! Jaitsi zalgurdi baten bila eta itzuli gure bila. Bizkor! Zer gehiago, Kemp?

— Zakurrak —esan zuen Kempek Har itzazu zakurrak ere. Ikusi, ez dute deabru hori ikusiko, baina bai usaitu. Hartu zakurrak!

— Ongi —esan zuen Adyek Jende arruntak ez daki hori, baina Halsteadeko espetxe ofizialek

ezagutzen
dute gizon
bat ehiza-
zakurrak
dituena.
Zakurrak.
Zer gehia-
go?

— Gogoan izan jaten duen guztia ikusi egi-
ten zaiola —esan zuen Kempek jan ondoren, eta
gorputzak txegosketa amaitu bitartean, jakiak
ikusgai dira haren gorputz barnean. Beraz, jan
ondoren ezkutuan ibili beharko du. Ez etsi bilake-
ta lanetan; miatu sasi guztiak, zoko isil guztiak.
Eta ongi gorde armak edo arma gisa erabil ditzakeen
baliabide guztiak. Berak ezin ditu armak
eta horrelakoak aldean luzaz eraman. Ongi
gorde behar dira harrapatu eta gizonak eraso-
tzeko erabil ditzakeen gauza guztiak.

— Ongi, ongi —esan zuen Adyek Harrapatu-
ko dugula uste dut!

— Eta errepideetan... —esan zuen Kempek,
eta pentsatzen jarri zen.

— Zer? —galdetu zion Adyek.

— Beira-hautsa —esan zuen Kempek Neurri krudela da, badakit. Baina pentsa zenbat kalte egin dezakeen bestela!

Adyek hasperen sakona egin zuen, aireak hotsa atera zuen haren hortz arteetatik sartzean.

— Hori ez da joko garbia. Ez dakit. Tira, dena dela, pronto izango dut beira-hautsa ere. Urruti-txo joaten denean edo erabiltzeko.

— Gizon horrek jadanik ez du gizatasunik, sinetsidazu —zioen Kempek Ziur nago ihesaldia-ren urduritasuna gainditu bezain pronto Izuaren Erreinua sortu nahiko duela; zurekin hitz egiten ari naizela bezain ziur nago horretaz. Gure auke-ra bakarra Ikusezinari aurea hartzea da. Bere odola eroriko zaio burutik behera.

26.

WICKSTEED JAUNAREN HILKETA

Antza denez, Gizon Ikusezina haserreak itsututa irten zen Kempen etxetik. Kempen etxeko hesitik hurbil jolasean ari zen haurtxo bat harrapatu eta alde batera bota zuen, halako indarrez non orkatila hautsi baitzion. Hurrengo orduetan gizakien zentzuek ez zioten antzeman Gizon Iku-sezinari. Inork ez daki nora joan zen, ez eta zer egin zuen ere. Baina pentsatzekoa da ekaineko goiz hartan, bere zoritxarragatik amorratuta eta atsekabetuta, muinoan gora korrika joan zela, Port Burdockeko atzealdeko zabaldiraino; eta han, Hintondean inguruko sasiren batean, babesa hartu zuela, neka-neka eginda eta izerdi patsetan, bere espeziea menderatzera eramango zuen planaren hari-mutur guztiak lotzen saiatzeko. Han ezkutatu zela pentsatzea da bidezkoena, handik baitatoz hari buruzko hurrengo berriak, arratsaldeko ordu biak aldeko berri tragikoak hain zuzen.

Zein aldarteko zegoen eta nolako planak asmatu ote zituen jakin nahiko luke batek. Zalantzarik gabe, oso atsekabetuta zegoen Kempek traizio egin ziola eta; bestalde, eta doktoreak traizio egiteko pisu handiko arrazoiak zituela ulertzeko gai bagara ere, ustekabe horrek Gizon Ikusezinari sortu zion amorrua zenbaterainokoa izango zen pentsa dezakegu, eta, neurri batean, ulertu ere uler dezakegu. Seguruenik Oxford Streeteko bizikizunek sortu zioten atsekabe berbera sentituko zuen orduan ere, itsu-itsuan sinetsita baitzegoen Kempek mundua izutzeko amets gaiztoa egia bihurtzen lagunduko ziola. Dena dela, eguerdi aldera gizadiaren begibistatik desagertu eta ez da lekuko bizirik aurkitu ordu bi eta erdiak arte zertan aritu zen esan lezakeenik. Ezer ere egin gabe igaro zuen denbora hura oso onuragarria izango zen agian gizadiarentzat, baina oso kaltegarria izan zen Ikusezinarentzat.

Ordu horretan, gutxi gora-behera, gizonaldra bat lanean ari zen landetan zehar sakabatatuta. Goizean leienda hutsa zen izua. Arratsalderako, ordea, Kempen iragarpen lehorrari esker

batez ere, etsaia zen; ehizatu, harrapatu eta garaitu beharreko etsaia. Eta laster baino lasterrago antolatu zen hartarako landetako lurralde guztia. Ordu biak aldera trena hartuta ihes egiterik ere izango zuen, baina ordu biak ezkerro ezinezkoa bihurtu zen hori. Izan ere, trenetako bidaiari guztiak, Southampton, Manchester, Brighton eta Horsham hiriek osatzen duten paralelogramo handiko trenbideetan bidaia egiten zuten guztiak beren departamentuak giltzaz itxita joan ziren, eta salgai gehienek garraioa bertan behera utzi zuten. Port Burdock inguruko hogeit hamar milioi eremuan su-armez eta makilez armatutako gizonak jarri zituzten, hiruzpalau laguneko taldeetan, zakurrekin errepideak eta larreak miatzen.

Herrialdeko bide guztietan zehar zalditeriako poliziak zebiltzan; basetxe guztietan gelditu eta armarik gabe etxetik ez irteteko agintzen zieten bertakoei. Lehen hezkuntzako eskola guztiak hiruretan ixten hasi ziren, eta haurrak ziztu batean joan ziren etxera, taldeka, zeharo izuterik. Arratsaldeko laurak edo bostetarako ia barruti guztira zabaldu zuten Kempen iragarpe-

na, Adyek sinatuta. Iragarpen horretan ematen ziren aditzera, labur baina argi, borrokaren ezau-garri guztiak; Gizon Ikusezinari jatena edo atse-dena hartzen ez uzteko beharra, etengabe zela-tatzeko eta haren mugimendu guztiak arretaz jarraitzeko beharra. Hain bizkorra eta erabakia izan zen agintarien lana, hain azkar zabaldu zen izaki bitxi haren existentziaren uste sendoa, ezen iluntzerako ehundaka milia koadro erabat harturik eta hesiturik baitzituzten. Eta iluntzera-ko, era berean, halako izuikara bat zabaldu zen landa asaldatu haietan zehar; Wicksteed jauna-ren hilketaren kontakizuna konderriaren luze-zabal guztira zabaldu zen; ahoz aho zabaldu zen, bizkor eta zehatz-mehatz.

Gure ustez, Gizon Ikusezina Hintondeango sasietan ezkutatu bazen, eta uste hori zuzena bada, arma bat eskatzen zuen planen bat asma-turik arratsaldeko lehen orduetan irten zela ere pentsa dezakegu. Ez dakigu zein zen plana, baina zalantza izpirik ez dago, nire ustez, Wicks-teedekin topo egin zuenean eskuan zeramala burdin haga.

Jakin, ez dakigu zer gertatu zen harekin topo egin zuenean. Baina badakigu hartxintzar-harrobi baten ertzean izan zela, Burdock jaunaren etxetik berrehun metrora eskas. Izugarrizko borroka izan zen, aurkitu diren aztarnen arabera: lur zapaldua, Wicksteed jaunari botatako harri pila, haren makulu txikitua. Zergatik eraso zion ulertzea zaila da ordea, eroaldi odoltsu baten ondorioz izan ez bazen. Eromenaren teoria ezin da baztertu. Wicksteed berrogeita bost-sei urteko gizona zen, Burdock jaunaren etxezaina zen, eta, antza denez, oso gizon arrunta; munduan halako etsai izugarririk izan zezakeen azken pertsona ematen zuen. Dirudienez, burdin hesi apurtu batetik hartutako haga erabili zuen Gizon Ikusezinak hari erasotzeko. Gizon bakezale giza-jo hura bazkaltzera lasai-lasai zihoala geldiarazi bide zuen Gizon Ikusezinak, eraso egin, haren defentsa ahulari gaina hartu, besoa hautsi, lurre-ra bota eta lingirda odoltsu moduko bat eginda utzi zion burua.

Jakina, biktimarekin topo egin aurretik hartuko zuen haga hesitik; eskuan eramango zuen, erasorako gertu. Aurrekoez gainera badira beste

bi xehetasun, gertaera hau apur bat argi dezake-
tenak. Bata da hartxintxar-harrobia ez dagoela
Wicksteed jaunaren etxera zuzen doan bidean,
bidetik berrehun bat metrora baizik. Eta bestea,
berriz, neskatxa batek egindako aitorpena: arra-
tsaldean eskolarakoan «trosta» bitxian larrean
harrobi aldera zihoan gizon bat ikusi zuela, hil
zuten gizona hain zuzen. Neskatzak haren ibil-
modeaz egin zuen imitazioaren arabera esan
liteke lurretik errestan zebilen zerbaiti makuluaz
joka zihoakiola. Neskatzak izan zen Wicksteed
bizirik ikusi zuen azkena; heriotzaren altzora
joan zen neskaren begi-bistatik desagertu ondo-
ren. Bi gizonen arteko borroka ezin izan zuen
ikusi ordea, pagadi bat eta lurreko sakonunea
zirela eta.

Horrek guztiak, idazle honen uste apalean,
hilketa arrazoigabearen teoria baztertzen du.
Griffinek arma gisa erabiltzeko hartu zuen burdin
haga, baina ez inor hiltzeko asmoa zuelako.
Orduan Wicksteed agertu eta burdin haga airean
astintzen ikusi bide zuen. Gizon Ikusezina izan
zitekeenik pentsatu ere gabe, Port Burdock han-
dik hamar miliara baitzegoen, hagaren atzetik

joan bide zen. Seguruenik ez zuen Gizon Ikusezinaren entzuterik ere izango. Pentsatzekoa da, beraz, Gizon Ikusezinak ahal bezain isilik alde egiteko asmoa izango zuela, auzategi hartako inor bera han zebilela ohartu gabe. Baina Wicksteed, harriturik eta jakin-minak erreta, haga mugikorrari segika hasiko zitzaion, eta, azkenean, eraso egingo zion Gizon Ikusezinak.

Zalantzarik gabe beste egoera batean Gizon Ikusezinak aise ihes egingo zion bere jarraitzaile adintsuari, baina Wicksteeden gorpua nola aurkitu zuten ikusita, badirudi, bere zoritxarrerako, osinez beteriko bazter baten eta harrobi ertza-
ren arteko gun e bateraino joan zela bere harra-
pakinaren atzetik. Gizon Ikusezinaren izaera haserrekorra ezagutzen dutenak hortik aurrera zer gertatu zen konturatuta egongo dira honez-
kero.

Hipotesi hutsa da, ordea. Azterna fidagarri bakarrak, haurren istorioak ez baitira oso fidagarriak izaten, Wicksteeden gorpua eta asunen artean aurkitutako burdin haga odoldua dira. Griffinek haga han utzi izanak adierazten digu une hartako asaldurarekin ahaztu egin zitzaiola

burin-haga zertarako hartu zuen, zerbaitetarako hartu bazuen behintzat. Benetan berekoia eta krudela zen, hori ezin da ukatu; baina bere biktima, bere lehen biktima, bere oinetan odoletan ikusirik baliteke aspaldiko arrenkura bat ernatu izana haren baitan, edozein zela ere buruan zerabilen asmoa.

Wicksteed jaunaren hilketaren ondoren lur behereetaraino joan zela ematen du. Bada istorio bat esaten duena bi gizonek ahots bat entzun zutela zelai batean arratsean, Fern Bottomdik hurbil. Intzirika eta barrez ari omen zen ahotsa, negar-zotinka eta aieneka, eta oihu egiten omen zuen noizbehinka. Gero eta ozenago entzuten omen zen. Hirusta-larre baten erdian sortu omen zen, eta muino aldean hil.

Arratsalde hartan jakingo zuen Gizon Ikusezinak Kempek nola erabili zituen bere aitorpenak. Giltzaz itxirik eta hesiturik aurkituko zituen etxe guztiak; hara-hona ibiliko zen tren geltokietan eta zelatan taberna eta ostatu inguruetan; eta zalantzarik gabe, bere kontra antolaturiko ekinaldiaren nondik-norakoez jabetuko zen iragarpenak irakurrita. Arratsak aurrera egin ahala hiru

edo lau gizonez osaturiko taldeez bete ziren zelaia; zakur zaunkak entzuten ziren bazter guztietan. Gizon-ehiztari horiek agindu zehatzak zituzten inork Gizon Ikusezinarekin topo egingo balu elkarri laguntzeko. Guztiei ihes egin zien, ordea. Uler dezakegu zenbateraino zegoen atsekabeturik, batez ere berak eman zuelako bere kontra hain anker ekiteko behar zuten informazio guztia. Oso nekatuta amaitu zuen eguna; hogeita lau ordu inguru igaro zituen ehiza-harripakin bat bailitzan ezkutuka, Wicksteedekin topo egin zuen tartean izan ezik. Gauean, jan eta lo egin zuen, nonbait, zeren goizean indarrean, sasoian, haserre eta gaizto zen berriro; munduaren kontrako bere azken erasoaldirako prest.

27.

KEMPEN ETXEKO SETIOA

Kempek gutun misteriotso bat irakurri zuen, orri koipetsu batean arkatzez idatzirik iritsi zitzaiona.

«Izugarri kementsu eta bizi jokatu duzu — zioen gutunak baina horrekin zer irabazi nahi duzun asmatu ezinik naukazu. Nire kontra jarri zara. Egun guztian zehar ni ehizatu nahian jardun duzu; gaueko atsedena ere lapurtu nahi izan didazu. Baina jan dut, eta lo ere egin ahal izan dut, zure ahalegin guztiengatik ere. Orain hasi da jolasa. Hasi besterik ez da egin. Izuari hasiera ematea baizik, beste zereginik ez da gelditzen. Izuaren lehenengo eguna iragartzen du gutun honek. Port Burdock ez da Erreginarene esanetara egongo gehiago, esaiozu hori polizia-koronelari, eta gainerako guztiei; nire mende dago dagoeneko, Izuaren mende! Gaurkoa da aro berriaren, Gizon Ikusezinaren aroaren, lehen urteko lehen eguna. Eta ni Gizon Ikusezin I.a naiz. Agintaldiaren hasiera oso erraza izango da.

Lehenengo egunean exekuzio bat izango da, gainerakoentzat ereduzko izan dadin: Kemp izeneko gizon baten exekuzioa. Herio etorriko da gaur. Giltzapean gordeko da, ezkutatu egingo da, goardiak izango ditu inguruan, eta armadura jantziko du, nahi badu. Baina Herio nagusituko zaio, Herio Ikusezina! Har ditzala, bai, hari aurre egiteko neurriak; horrela are gehiago liluratuko dut neure jendea. Heriotza postakutxatik aterako da, eguerdian; postariak sartuko du han gutuna. Orain hasi da jolasa. Badator Herio. Eta ez iezaiozue lagundu gero, herritar maiteok, baldin eta zuek ere Herioren esku erori nahi ez baduzue. Gaur bertan hilko da Kemp.»

Bi aldiz irakurri zuen gutuna.

— Hau ez da txantxetan ari gero! —esan zuen Haren ahotsa da! Eta benetan ari da.

Orri tolestuaren atzealdea begiratu zuen. Hintondeango posta zerbitzuko zigilua ikusi zuen, eta ohiko mezua: *ordain bitez 2 penike*.

Bazkaria amaitu gabe —ordubateko postarekin iritsi zen gutuna poliki-poliki zutitu eta langelara joan zen. Etxezainari deitu zion; etxe guztia miatzeko, leihoetako kisketak begiratzeko

eta pertsiana guztiak ixteko eskatu zion. Logelakoak berak itxi zituen; giltzaturik zuen tiradera batetik errebolber txiki bat hartu, arreta handiz begiratu eta jakako poltsikoan sartu zuen. Ohar labur batzuk idatzi zituen —Adye koronelari bat eta neskameari eman zizkion, etxetik nola irten behar zuen azaltzeko hainbat xehetasunekin batera.

— Ez dago inongo arriskurik —esan zuen Kempek, baina bere gogoan «zuretzat» erantsi zion esaldiari.

Eta bere gogoetetan murgildu zen. Gero bazkari erdi hoztua utzita zeukan gelara itzuli zen.

Jaten hasi zen. Tarteka bere gogoetetan murgiltzen zen. Azkenean mahaia jo zuen indarrez.

— Harrapatu egin behar dugu! —esan zuen Eta neu izango naiz amua. Amua irentsiko du!

Langelara igo eta ate guztiak kontu handiz itxi zituen.

— Jolas bat da —esan zuen jolas inozo bat, baina nire esku ditut irabazteko aukera guztiak, Griffin jauna, nahiz eta zu ikusezina izan. Griffin *contra mundum*, mendeku batekin!

Leihotik muino berora begira gelditu zen.

— Egunoro jan beharko du. Ez nuke haren larruan egon nahi. Baina egia ote da bart lo egitea lortu zuela? Aterperik gabe izango zen, izatekotan, inorekin behaztopa ez egitearren. Nahia-go nuke eguraldi hotz hezea bagenu, epeltasun hau baino. Orain bertan nire zelatan ibiliko da agian.

Leihoa ixtera joan zen. Leihoaren kanpoaldeko adreiluen kontra jo zuen zerbaitek, indar handirik gabe, eta atzera egin zuen Kempek, ikararuta.

— Urduritzen hasia naiz —esan zuen, baina bost minutu igaro aurretik leihoan zen berriro Txolarre bat izango zen.

Sarrera-ateko txirrina entzun zuen; ziztu batean jaitsi zen. Ateko giltza jiratu eta kisketa ireki zuen; katea arretaz begiratu eta ezarri, eta kontuz ireki zuen atea, bera agerian gelditu gabe. Ahots ezagun bat kanpotik deika ari zen. Adye zen.

— Zure zerbitzariari eraso dio, Kemp —esan zuen atearen beste aldetik.

— Zer? —oihu egin zuen Kempek.

— Niretzako zekarren oharra kendu dio. Hemen inguruan dabil. Utz nazazu sartzen.

Kempek katea askatu eta Adye barrura sartu zen, atea bera pasatzeko lain bakarrik irekita. Ezkaratzean gelditu zen; izugarrizko lasaitua hartu zuen Kempek atea itxi zuenean.

— Eskutik kendu dio oharra. Ikara-ikara egin da utzi du. Behean da gajoa, polizia-bulegoetan. Bere onetik aterata dago. Bestea, berriz, hemen hurbil dabil. Zer nahi zenuen?

Kempek birao egin zuen.

— Bai inozoa ni! —esan zuen Kempek Nola ez naiz konturatu, baina! Hintondeanera ordu bete ere ez dago oinez. Jakina!

— Zer? —galdetu zion Adyek.

— Begira! —esan eta langelarako bidea hartu zuen Kempek. Adyeri eman zion Gizon Iku-sezinak bidalitako gutuna. Adyek irakurri eta txistu egin zuen indar handiz.

— Eta zuk? —esan zuen Adyek.

— Amarrua egin nahi nion —esan zuen Kempek eta proposamena nire neskamearekin bidali dizut. Zertarako, eta berak irakurtzeko!

Kempek egindako hutsaz ohartu zen Adye.

— Eta orain ihes egingo digu —esan zuen.

— Ez dut uste —Kempek.

Beira apurtuen hotsa entzun zen goian. Adyek Kempen poltsikotik erdi irtenda zegoen errebolber txikiaren zilar-distira ikusi zuen.

— Leiho bat, goian! —esan eta gora abiatu zen Kemp.

Zurubian zeudela beste hots bat entzun zuten. Langelara iritsi zirenean hiru leihoetatik bi hautsita zeudela ohartu ziren, gelaren erdian beira apurtu pila zegoen eta harri handi bat ikusi zuten idazmahaian. Atean gelditu ziren bi gizonak, txikizioari begira. Biraoka hasi zen berriro Kemp. Hirugarren leihoa hautsi zen, tiro batek jo balu bezala; pitzatuta gelditu zen hasieran eta milaka triangelu txikitan hautsita gela barnera erori zen azkenik.

— Zer arraio gertatzen ari da? —galdetu zuen Adyek.

— Hasiera besterik ez da hau —erantzun zion Kempek.

— Ezingo da horman gora igo, ezta?

— Katu batek ere ezingo luke —esan zuen Kempek.

— Ez al dago pertsianarik?

— Hemen ez. Beheko geletan bai, baina hemen... Hara!

Eta beste hots bat eta egur karraskak entzun zituzten behean.

— Madarikatu hori! —esan zuen Kempek Logela batean, hori da... logela batean izan da. Etxe guztia txikituko du. Baina inozo bat besterik ez da. Zeren pertsianak igota daude, beira pus-kak kanpora eroriko dira eta ebakiak egingo zaizkio oinetan.

Beste leiho batek ere haustera zihoala iragarri zuen hotsaren bidez. Bi gizonak harri eta zur zeuden zurubian.

— Badakit! —esan zuen Adyek Emaidazu makila bat edo zerbait; bulegoetara jaitsi eta zakurrak ekarriko ditut. Horiek atzemango dute! Hamar minututan akabo!

Beste leiho batek aurrekoen bide bera hartu zuen.

— Ba al duzu errebolberrik? —galdetu zion Adyek.

Kempek eskua poltsikoan sartu zuen eta duda-mudatan gelditu zen.

— Ez, ez dut; soberan ez, behintzat.

— Itzuliko dizut —esan zion Adyek zu seguru zaude hemen.

Kempek arma eman zion, egia esan izanaz damututa.

— Banoa ate aldera —esan zuen Adyek.

Ezkaratzean zalantzan zebiltzala, lehenengo solairuko logela bateko leihoa pitzatu eta hautsi zela entzun zuten. Kemp ate aldera joan eta ateko kisketak irekitzen hasi zen ahal bezain isilik. Ohi baino zurbilago zuen aurpegia.

— Bizkor-bizkor irten beharko duzu —esan zion Kempek.

Adye ateko mailadira irten zenean berriro itxi ziren ateko kisketak. Zer egin ez zekiela zegoen. Erosoago sentitzeko bizkarra atearen kontra jarri zuen. Mailadia jaisten hasi zen, tente-tente eta ondo zutik. Lorategitik igaro eta hesiko atera joan zen. Haizeak belarra kulunkatzen zuela irudititu zitzaion. Horretan, zerbait mugitu zen haren ondoan.

— Geldi hor! —esan zuen Ahots batek. Adye harri bat bailitzan gelditu zen; errebolberra estutu zuen.

— Bai? —esan zuen Adyek, zurbil eta muker, nerbio guztiak airean.

— Mesede handia egingo zenidake etxera itzuliko bazina —esan zuen Ahotsak, Adye bezain muker eta zurrun.

— Barkatu —esan zuen Adyek zakar, ezpainak mihiaz bustitzen zituen bitartean. Ahotsak ezkerraldetik hitz egiten ziola iruditu zitzaion. Errebolberrarekin saiotxo bat egin beharko al zuen?

— Nora zoaz? —galdetu zion Ahotsak. Bizkor mugitu ziren biak, eta eguzki izpi bat islatu zen Adyeren poltsiko irekian.

Ideia hura bertan behera utzi eta pentsatzen jarri zen Adye.

— Nora joaten naizen ala ez naizen —esan zuen mantso-mantso nire kontua da.

Hitzak artean ezpainetan zituela beso batek lepotik heldu, belaun batek bizkarretik bultzatu eta atzerantz erori zen. Trinkili-trankala zutik jarri eta airera tiro egin zuen. Ahoan kolpe bat eman eta errebolberra kendu zioten eskutik. Gorputzadar labainkor bat harrapatzeko ahale-

gina egin zuen, eta zutitzen saiatu zen, baina atzerantz erori zen berriro.

— Arraioa! —esan zuen Adyek.

Ahotsa barrez hasi zen.

— Hil egingo zintuzket, baina bala bat alferrik ez galtzearren... —esan zuen Ahotsak.

Errebolberra airean dilindan ikusi zuen Adyek, lurretik sei oinera edo, berari apuntatzen ziola.

— Eta? —galdetu eta eseri egin zen Adye.

— Zuti zaitez —agindu zion Ahotsak.

Zutitu egin zen.

— Adi! —esan zuen Ahotsak, eta irmo jarraitu zuen Azpi-jokorik ez! Gogoan izan nik zure aurpegia ikusten dudala, baina zuk ezin duzula nirea ikusi. Etxera itzuli behar duzu.

— Ez dit sartzen utziko —esan zion Adyek.

— Hori zoritxarra! —esan zuen Gizon Ikusezinak Zure kontra ez nuen, bada, ezer.

Adyek ezpainak busti zituen berriro. Errebolberraren kanoi gainetik begiratu zuen: itsasoa, urdin-urdin eta eguerdiko eguzkitan ilun, zelai berdeak, muino-kaxko argia eta herri jendetsua ikusi zituen urrutian, eta bizitza zein gozoa den

ohartu zen. Zeru-lurren artean lurretik sei oinera dilindan zegoen metalezko gauzatxo hari begiratu zion atzera.

— Zer egin dezaket nik, ordea? —esan zuen etsita.

— Eta zer egin dezaket nik? —galdetu zion Gizon Ikusezinak Languntza eske zindoazen. Baina etxera itzuli beharko duzu.

— Saiatuko naiz. Baina hitz ematen didazu sartzen uzten badit ez duzula atea hautsiko?

— Zure kontra ez nuen ezer —Ahotsak.

Adye etxetik irten zenean korrika igo zen Kemp. Langelako beira pusken artean belaunikatuta leiho-barrenaren ertz batetik zelatan zegoe-la Adye Gizon Ikusezinarekin hizketan ari zela konturatu zen.

— Zergatik ez dio, baina, tiro egiten? —zioen Kempek hasperen batean eta ahapeka.

Errebolberra apur bat mugitu zen, eta eguzkiaren islak begiak itsutu zizkion Kemp. Begiak eskuaz babestu zituen, zer demontrek itsutu zuen ikusi ahal izateko.

— Noski! —esan zuen Adyek errebolberra eman dio.

— Atea ez duzula hautsiko hitz eman behar didazu —ari zen Adye bitartean Ez zaitez zure abantailaz baliatu, emaiozu aukera bat.

— Zu itzul zaitez etxera. Eta gogoan izan ez dizudala ezeren hitz eman.

Adyek erabakia hartuta zuela zirudien. Etxera itzuli zen, mantso-mantso, eskuak atzean jarrita. Kemp begira gelditu zitzaion. Errebolbera desagertu, berriro dizdiz egin, atzera desagertu eta, zorrotzago zelatatu ondoren, Adyeren atzetik zihoan gauzaki ilun hura zela errebolbera ikusi zen. Gauzak oso laster gertatu ziren. Adyek atzerantz jauzi egin, bere orpoen gainean jiratu eta gauzaki txiki hari oldartu zitzaion. Ez zuen harrapatzerik lortu, ordea; eskuak jaso eta ahozpeztan erori zen, airean ke urdinxka bat utziaz. Kempek ez zuen tiro-hotsik entzun. Uzkurtu, albo baten gainean etzan eta zerraldo gelditu zen Adye.

Adyeren egoera baldarrari begira gelditu zen Kemp apur batean. Arratsalde sargori eta lasaia zen; munduan den-dena geldirik zegoela zirudien, etxearen eta lorategiko atearen arteko zuhaixketan bata besteari atzetik hegaka

zebiltzan bi tximeleta hori izan ezik. Adye belarretan zetzan, atetik hurbil. Muinoan beheko errepide bazterretako *villa* guztietako pertsianak jaitsita zeuden, baina gizirudi zuri bat ikusten zen mintegi berde txiki batean: lo zegoen agure bat ematen zuen. Kempek etxe inguruak aztertu zituen errebolberraren bila, baina arrastorik ez! Adyeri begiratu zion berriro. Hasia zen jolasa, zalantzarik gabe.

Sarrera-atean txirrina eta hatz-kozkorren kolpeak entzun ziren, azkenerako zalaparta bihurtu zirenak. Baina Kempek emandako aginduei jarraiki, nor bere gelan giltzapetu ziren zerbitzari guztiak. Handik apur batera isil-isilik gelditu zen dena. Kemp eserita zegoen, adi-adi; gero kontu handiz hiru leihoetatik begiratu zuen. Zurubira hurbildu eta entzuten gelditu zen urduri. Logelako bertzuna arma gisa hartuta lehenengo solairuko leihoetako barne-kisketak berriro aztertzeraz jaitsi zen. Zuzen eta isilik zegoen dena. Langelara itzuli zen. Adye ez zen mugitu: zerraldo zegoen hartxintzarrezko bidexkan, erori zen toki berberean. Errepideko villen artetik etxezaina eta bi polizia agertu ziren.

Hilda bezala zegoen dena, isil-isilik. Hiru haiek poliki-poliki zetoze la zirudien. Etsaia zertan ari ote zen galdetu zion Kempek bere buruari.

Horretan, asaldatu egin zen. Beste karraska bat entzun zen behean. Zalantzan gelditu zen hasieran, baina jaitsi egin zen. Kolpe astunak eta egur karraskak entzun ziren etxe guztian. Gero karraska bat eta pertsianetako burdinazko kisketen kankatekoak. Giltza jiratu eta sukaldeko atea ireki zuen. Hori egin zuen unean bertan sukalde barnera erori ziren pertsianak, ordurako pitzatuak eta zartatuak. Ahozabalik gelditu zen. Leihoaren egurrezko egitura ez zen hautsi, zehar-haga bat zuela eskerrak, baina egurrean kristalezko hortz txiki batzuk besterik ez ziren gelditu. Aizkora batek pertsianak hautsi zituen; leihoari eta hura babesten zuen burdin hagari joka hasi zen ondoren. Bat-batean alde batera joan eta desagertu egin zen. Kempek errebolbera ikusi zuen kanpoan, bidexkan; hegan bezala zebilen arma txikia. Kempek jauzi egin zuen atzerantz. Errebolberrak berandu egin zuen tiro, baina atea erabat itxi aurretik ate-ahotik ezpal

bat askatu eta buruan jo zuen Kemp. Danbateko batez itxi eta giltzatu zuen atea; ateaz bestalde-tik Griffinen ahotsa entzun zuen, oihuka eta algaraka. Aizkora lanean hasi zen berriro, dena zartatzen eta apurtzen.

Kemp pasiloan gelditu zen. Pentsatzen saiatu zen. Gizon Ikusezina sukaldera sartzera zihoan, atea ezingo zion haren erasoari eutsi, eta orduan...

Sarrera-ateko txirrinak jo zuen. Poliziak izan-go ziren. Korrika ezkaratzera joan, askatu katea eta kisketak ireki zituen. Katea artean erabat askatu gabe zuela hitz egiten hasteko agindu zion neskameari. Katea askatu orduko arrapala-dan sartu ziren hirurak; Kempek danbateko batez itxi zuen atea berriro.

— Gizon Ikusezina! —esan zuen Kempek Errebolber bat dauka, eta bi bala. Adye hil du! Tiro eman dio behintzat. Ez al duzue belarretan ikusi? Hor dago zerraldo!

— Nor, baina? —galdetu zion polizia batek.

— Adye! —Kempek.

— Ez, atzeko aldetik etorri gara —esan zuen neskak.

— Zer da txikizio hau guztia? —galdetu zion lehengo polizia berak.

— Sukaldean dago, edo egongo da aurki! Aizkora bat aurkitu du...

Gizon Ikusezinak sukaldeko atean jotzen zituen kolpe izugarrien oihartzuna entzun zen etxe guztian. Neskak sukaldera begiratu zuen, dardara batean, eta jangelara joan zen. Hitz etekin azalpenak ematen saiatu zen Kemp. Horretan, sukaldeko ateak nola eman zuen entzun zuten.

— Hemendik! —esan zuen Kempek lanari ekinez; jangelako atetik bultzaka sartu zituen bi poliziak.

— Bertzuna! —esan zuen Kempek tximiniara ziztu batean joanda.

Eskuan zeraman bertzuna polizia bati eman zion, eta jangelako tximiniakoa, berriz, besteari. Berak atzerantz jauzi egin zuen.

— Eeup! —esan zuen polizia batek, makurtuta; aizkora harrapatu zuen bertzunaz. Pistolak azken aurreko bala jaurti eta balio handiko Sidney Cooper bat urratu zuen. Bigarren poliziak, liztor bat harrapatzeko egiten den imintzio bera

eginda, errebolberra jo zuen bere bertzunaz, eta punpaka erori zen arma txikia.

Borroka hasi bezain laster oihu batean hasi zen neskamea tximiniaren ondoan; pertsianak irekitzera joan zen lasterka, txikitutako leiho batetik ihes egiteko asmoz edo.

Aizkorak pasiloan atzera egin zuen, eta zorutik bi oinera edo jaitsi zen. Gizon Ikusezinaren arnasa entzuten zen.

— Zuek biak kendu hortik —esan zuen Kemp da nik harrapatu nahi dudana eta!

— Guk zu nahi, ordea —esan zuen lehenengo poliziak, aurrera egin eta bertzuna Ahotsa zetorren aldera astinduz. Gizon Ikusezina atzertu egin bide zen; euritakoen ontziarekin estropezu egin zuen. Huts egindako kolpearen ondorioz zabuka zebilen polizia, eta Gizon Ikusezinak aizkorarekin erantzun zion: papera bezala zimurtu zen poliziaren kaskoa, eta kolpeak sukaldeko mailadiraino itzulika bidali zuen gizona. Bigarren poliziak, ordea, aizkoraren atzealdean astindu zuen bertzuna eta biguna zen zerbait jo zuen bete-betean. Minezko intziri bat entzun zen eta lurrera erori zen aizkora. Ezereza jo zuen berriro

poliziak, baina ez zuen ezer aurkitu. Gero aizko-
ra zapaldu eta beste kolpe bat eman zuen. Geldi-
geldirik geratu zen, bertzunari tinko eusten ziola,
mugimendu txikiena ere antzemateko.

Jangelako leihoa ireki eta barruan urrats biz-
kor batzuk zebiltzala entzun zuen. Lankidea,
bitartean, ahozgora jarri eta eseri egin zen,
begia eta belarria odoletan.

— Non da? —galdetu zuen lurrekoak.

— Ez dakit. Baina zauritu egin dut. Ezkara-
tzean ibiliko da. Zure gainetik pasa ez bada,
behintzat. Kemp doktorea! Jauna!

Isiltasuna.

— Kemp doktorea! —deitu zion berriro.

Lankideak zutitzeko ahalegina egin eta, lortu
ere, lortu zuen, azkenik. Sukaldeko mailadian
oinutsak entzun ziren.

— Hemen dabilela! —oihu egin zuen lehe-
nengo poliziak, eta bertzuna astindu zuen tarra-
patan; beso txiki bat hautsi zion gas-lanpara
bati.

Mailadian behera Gizon Ikusezinaren atzetik
abiatzera zihoan. Baina hobeto pentsatu eta jan-
gelan sartu zen.

— Kemp doktorea... —hasi, baina bat-batean isildu zen Kemp doktorea heroi bat da —esan zuen, lankideak sorbalda gainetik begiratzen ziola.

Jangelako leihoa zabal-zabalik zegoen; ez zen etxezainaren ez Kempen arrastorik.

Bigarren poliziak Kemp-i buruz zuen iritzia eman zuen, oso hitz zorrotz eta adierazkorrez.

28.

EHIZTARI EHIZATUA

Heelas jauna, inguruko villetako nagusietan Kempen hurbileneko auzokidea, bere mintegian lo zegoen Kempen etxeko setioa hasi zenean. Gizon Ikusezinari buruzko «zozokeria horietan» sinesteari uko egiten zion gutxiengo zabal hori osatzen zutenetako bat zen Heelas. Haren emazteak, ordea, gero sarritan gogoratu zion bezala, sinesten zuen gauza haietan. Gizona lorategian ibili zen ezer gertatuko ez balitz bezala, eta arratsaldean bere lo kuluxka egin zuen, urteetako ohiturari jarraiki. Lo zegoenez, ez zuen leihoen txikizioa entzun, baina zerbait gertatu zelako sentipen bitxia zuen esnatzean. Kempenera begiratu zuen, begiak igurtzi zituen eta berriro begiratu zuen. Oinak lurrean jarri eta entzuten gelditu zen. Begiz jota zegoela esan zuen, baina hori esan ondoren ere ikusgaia zen ikuskizun harrigarri hura. Eraso bortitz bat jasan eta aspal-diko asteetan itxita egondako etxe bat ematen zuen. Leiho guztiak apurtuta eta, talaiko langela-

koak izan ezik, barneko pertsianez babestuta zeuden.

— Lehenxeago —eta erlojuari begiratu zion orain dela hogeit bat minutu edo, etxea ongi zegoela egingo nuke, bada!

Zalaparta handia eta beira apurtuen hotsa entzun zuen urrutian. Horretan, ahozabalik eserita zegoelarik, are gauza harrigarriagoa gertatu zen. Jangelako pertsianak indarrez ireki ziren, eta etxezaina ikusi zuen, kaleko soinekoa eta kapelua jantzita, leihatila bat igotzeko lehia bizian. Gero gizon bat agertu zen zerbitzariaren alboan, hari laguntzera: Kemp doktorea zen! Leihoa ireki zen, azkenik, eta kanpora jauzi egin zuen etxezainak; ziztu batean zuhaixketara joan eta haien artean desagertu zen. Heelasek zutitu eta birao egin zuen gertaera bitxi haiek guztiak ikusita. Kemp leiho-barrenean zutik ikusi zuen; gero leihotik jauzi egin eta lurrera iritsi orduko sasiko bide-zidor batetik korrika zihoala ikusi zuen, inork ikus ez zezan edo, makurtuta. Labur-
nu zuhaixka baten atzean desagertu zen, eta belardiarekin muga egiten zuen hesi bat igo-tzean agertu zen berriro Heelasen ikusmiran.

Hesia segundo batean igo eta maldan behera abiatu zen ahal bezain laster, Heelas zegoen tokirantz.

— Jainko maitea! —deiadar egin zuen Heelasek, gogo argitu zitzaiola Gizon Ikusezin anker hori izango da! Egia zen, hortaz!

Horrelako gauzak bururatzen zitzaizkionean zerbait egin beharra sortzen zitzaion Heelas jaunari, eta sukaldaria, etxeko leiho gorenetik begiratu zuenean, harrituta gelditu zen nagusia etxera ziztu batean sartzen ikusi zuenean, orduko bederatzi bat miliako lastertasunean edo.

— Eskerrak bera ez zegoen kezkatuta! —esan zuen sukaldariak.

— Mary, zatoz hona oraintxe bertan!

Ate danbadak, kanpai-hotsak eta Heelasen ahotsa, zezen bat bezala marruka, entzun ziren.

— Itxi ateak, itxi leihoak, itxi dena! Gizon Ikusezina dator eta!

Oihuak, aginduak eta korrikaldiak nagusitu ziren etxe guztian. Galeriara ematen zuten leiho frantses handiak ixtera joan zen bera; eta horretara zihoala, Kempen buru-sorbaldak eta belaun bat agertu ziren lorategiko hesi gainean. Gero

frantses-porruen artetik pasa zen Kemp, eta tenis zelaian zehar korrika joan zen etxerantz.

— Ezin zara sartu —esan zion Heelasek, kisetak itxita Zu harrapatu nahian badabil, sentitzen dut, baina ezin zara sartu!

Kempen izu aurpegia beiraren ondo-ondoan ikusi zen, beiran joka lehenik eta galeriako leiha-terria frantses guztia indarrez astintzen gero. Bere eginahalak alferrekoak zirela ikusita, galian zehar korrika egin, barandaren albo batetik salto egin eta alboko atea jo zuen. Albo-sarreratik berriro etxearen aurrealdera joan eta muinoko errepidera irten zen. Heelas leihotik begira zegoen, ikaraturik; ez zen ia ohartu ere egin Kempek alde egin zuela, baina bai oin ikusezin batzuk haren frantses-porruak zapaltzen ari zirela. Heelas bigarren solairura igo zen arrapaladan, eta handik aurrera gertatu zena bere ikusmiratik at gelditu zen. Zurubiko leiho paretik igarotzean albo-sarrerako atea itxi zela entzun zuen.

Muinoko errepidetik irten eta, senak hala aginduta, maldan behera jarraitu zuen Kempek; lau egun lehenago talaiko langelatik begi zorro-

tzez ikertu zuen ibilbide luze hura bete behar izan zuen. Nahiko ongi zihoan entrenatu gabeko lasterkaria izateko, eta aurpegia zurbil-zurbil eta bustita zuen arren, hotz iraun zuen amaiera arte. Urrats handiak ematen zituen, eta zoruan gora-beheraren bat, harri pila bat edo dizdiz zegion kristal apurtu bat ikusten zuenean oztopoaren gainetik igarotzen zen bere bidea aldatu gabe, atzetik segika zihoazkion oinuts ikusezinek ere bide bera hartuko zutela pentsatuta.

Orduan jakin zuen zein zabal eta mortua zen muinoko errepidea, eta zein urrun zegoen muinoaren oinetan urrutira ikusten zen hiriaren sarrera. Sekula ikusi zuen garraiabide geldo eta mingarriena iruditutako zitzaion lasterka egitea. Villa goibel guztiak, arratsaldeko eguzkitan lozorroan, itxita eta hesiturik zeudela zirudien; bai, itxita eta hesiturik egongo ziren, zalantzarik gabe, horretarako agindua emana baitzuen berak. Dena dela, horrelako ustekabe bat gertatzen zenerako zerbait prestatzea ere burura zitzaiekeen! Begien aurrean zuen hiria; itsasoa ikusmiratik desagertu zitzaion hiriaren atzean; eta behealdean jendea ikusten zuen hara-hona.

Tranbia bat heldu berri zen muinoaren oinetara. Harantzago polizia-bulegoak zeuden. Urratsak al ziren aldean entzun zituen hotsak? Bizkor!

Behealdean jendea begira zegoen, bat edo bi korrika; berari berriz, eztarrian behera arnasa ikusten zitzaion ia. Tranbia hurbilago ikusten zuen, eta Jolly Cricketers tabernan zarata handiz ixten ari ziren atea. Tranbiaren atzean hagak eta hartxintzar pilak zeuden, estoldetako lanak zirela eta. Trenean sartu, ate guztiak itxi eta bertan ezkutatzea pentsatu zuen, baina polizia-bulegoetara joatea erabaki zuen azkenik. Jolly Cricketers tabernako ate paretik igaroa zen; zuloz beteriko kale-mutur batean zegoen, gizonez inguraturik. Tranbiako gidaria eta haren laguntzailea tranbia tiratzen zuten zaldien loturak askatuta begira-begira gelditu zitzaizkion, hark zekarren presa larriarekin zeharo txundituta. Aurrerago langileen aurpegi harrituak ikusi zituen hartxintzar pilen gainetik.

Urratsa apur bat mantsotu zuen, baina bere jarraitzailearen urrats bizkorrak entzunda lastertu egin zuen berriro.

— Gizon Ikusezina! —esan zien langileei, eta bere jarraitzailea zegoen tokia seinalatu zuen ezkutuka bezala. Halako inspirazio une batean langileak zulaketak egiten ari ziren tokiaren gainetik jauzi egin zuen; langile taldea gelditu zen horrela Kempen eta bere jarraitzailearen artean. Polizia-bulegoetara joateko asmoa alde batera utzi eta albo-kale txiki bat hartu zuen, barazkizale baten gurdia bultzatu, segundo hamarren batean gozodendako ate aurrean zer egin ez zekiela geratu, eta Hill Street kale nagusira ematen zuen kale-mutur batera jo zuen. Bizpahiru haur zebiltzan han jolasean, eta oihuka eta korrika hasi ziren ikusi zutenean. Ateak eta leihoak ireki ziren berehala; amak agertu ziren, aztoraturik, beren bihotzikara agerian utziaz. Hill Streeten agertu zen berriro, tranbiaren bidea amaitzen zen tokitik hirurehun bat metrora. Jendealdra baten oihuak eta zalaparta entzun zituen.

Kalean zehar muino aldera begiratu zuen. Hamabi metro eskasera langile erraldoi bat korrika zihoan, biraoak esanez eta pikotx bat airean astinduz; haren alboan, apur bat atzera-go, tranbia gidaria zihoan, ukabilak estututa.

Kalean gorago beste batzuk ere atera ziren hauen atzetik, keinuka eta oihuka guztiak. Beherago, herrigunean, gizonak eta emakumeak korrika zebiltzan, eta gizon bat ikusi zuen denda batetik makulua eskuan hartuta irteten.

— Sakabanatu denak! Denak sakabanatu! —
egin zuen oihu norbaitek.

Ehizaren arauak aldatuta zeudela ohartu zen Kemp orduan. Gelditu eta ingurura begiratu zuen arnasestuka.

— Hemen inguruan dabil! —oihu egin zuen Osa dezagun giza-kate bat...

— Aha! —esan zuen ahots batek.

Belarrondoko handi bat eman zioten Kemp, eta balantzaka gelditu zen, etsai ikusezinari bizkar ez emateko ahaleginetan. Nekez iraun zuen zutik, baina ezereza jo zuen, arrakastarik gabe halere. Masail-hezurraren azpian jo zuten berriro, eta tripaz gora erori zen lurrera. Belaun batek diafragma zapaldu eta esku pare iaio batek ezta-rritik heldu zion, baina esku bat bestea baino ahulagoa zela ohartu zen; eskumutur haiei gogor heldu eta erasotzaileari aiene bat atera zion; langilearen pikotxa haren gorputz gainera erori zen

biraka; gorputz bat jo eta hots lehor bat ateratu zuen gorputzak. Kempek tanta heze bat sentitu zuen aurpegian. Gero eztarritik heltzen zioten eskuen estukada lasaitu zen, eta dardaraldi batekin erasotzailearen atzaparretatik askatu, sorbalda bigun bati heldu eta gorputz hura hantzez gora irauli zuen Kempek. Lurraren kontra ondo estutu zituen ukalondo ikusezinak.

— Harrapatu dut! —garrasi batean Kempek Lagundu! Lagundu ongi heltzen! Honenak egin du! Heldu oinetatik!

Denbora gutxian zalaparta handia sortu zen borroka gertatu zen lekuan; une horretan errepi-detik kanpotar bat iritsi balitz rugby partidu gogor bat jokatzen ari zirela pentsatuko zukeen hura ikusita. Kempen garrasiaren ondoren ez zen beste oihurik entzun; kolpeak eta urratsak bakarrik, eta arnasestu bat.

Ahalegin izugarria eginez, bere bi arerioetatik askatu eta belauniko jartzea lortu zuen Gizon Ikusezinak. Kempek gogor eutsi zion aurre-aurretik, ehiza zakur batek orein bati eusten dion moduan; dozena bat eskuk heldu, estutu eta tiraegin zioten Ikusezinari. Eta tranbia-gida-

riak lepo-sorbaldeatik heldu eta lurrera bota zuen atzera.

Gizon taldea haren gainera makurtu eta osti-koka eraso zioten hurrena. Basakeria puntu bat bazen, nire ustez, han. Horretan oihu garratz bat entzun zen:

— Erruki zaitezte! Erruki zaitezte!

Ahotsa isildu egin zen, itolarriak jo balu bezala entzun zen.

— Atzera, astakirtenak! —egin zuen oihu Kempen ahots apalak; elkarri atzera eragin zioten gainerakoek Zaurituta dago, esan dizuet! Atzera!

Haren inguruan tokia egiteko borroka labur baten ondoren, doktoareari begiratu zioten zirku-luan jarrita zeudenen aurpegi odolzaleek; belau-niko zegoen, lurretik berrogeita hamar bat hatzera, beso ikusezinak lurraren kontra estu-estu helduta. Haren atzean goardia bat zegoen, orkatila ikusezinei eusten ziena.

— Ez laga aldegiten! —esan zuen langile handiak, pikotx odoleztatua eskuan zuela Gezurretan ari da!

— Ez da gezurretan ari —esan zuen dokto-
reak, kontu handiz belaun bat altxatuz eta neuk
eutsiko diot.

Aurpegia atzamarkadez betea zuen Kempek,
gorritzen ari zitzaion; eta ezin zuen hitz egin ia,
ezpaina odoletan baitzuen. Antza denez, esku
bat mugitu eta aurpegi ikusezina igurtzi zuen
doktoreak.

— Ahoa busti-busti eginda du —esan zuen
Jainko maitea!

Zutitu eta belauniko jarri zen zera ikusezina-
ren alboan. Jendea aurrera eta atzera mugitzen
eta elkarri bultzaka hasi zen; hara zihoan jende
gehiagoren urratsak entzun ziren, eta jende-
aldea gehiago estutuko zen horrela. Etxeetatik
irteten ari ziren denak. Jolly Cricketersko ateak
ere parez pare ireki zituzten. Baina ez zen hitzik
entzuten.

Ezereza ukitzen ari zen Kemp; haren eskuak
airea igurtzitzen zuela ematen zuen.

— Ez du arnasarik hartzen —esan zuen Ez
dizkiot bihotz taupadak entzuten. Gorputzaren
albo bat... Ene!

Langile handiaren besapetik begira zegoen atso batek oihu egin zuen ozen:

— Begira hor! —esan eta zerbait seinalatu zuen bere hatz zimurtuaz.

Hatzak seinalatzen zuen tokian, esku erori eta garden baten arrasto lausoa ikusi zuten guztiek; beirazkoa bezalakoa zen, baina agerian zituen zainak eta arteriak eta hezurrak eta nerbioak. Jendearen begiratuarekin gero eta opakoagoa bihurtu zen eskua.

— Hara! —oihu egin zuen goardiak Oinak ere agertzen hasi zaizkio!

Eta, astiro-astiro, aurrera jarraitu zuen antzaldaketa bitxiak, esku eta oinetatik hasita gorputzadar eta oinarrizko organo guztietara. Pixkanaka-pixkanaka pozoia barreiatzen ari balitz bezala zen. Nerbio zuri txikiak agertu ziren lehenengo, gorputzadarren irudi lauso bat itxuratuz; hezur hauskorrak eta arteria korapilatuak hurrena; eta haragia eta larruazala ondoren, lanbro artean bezala hasieran, baina gero eta trinko eta opakoago. Handik gutxira bular ubeldua eta sorbaldak ikusi ahal izan zizkioten, baita

bere aurpegi zartatu eta mailatuaren arrasto lausoa ere.

Azkenik, jende-aldrak Kemp doktoreari zutik jartzeko adina toki egin zionean, hogeita hamar bat urteko gizon gazte baten gorputz ubeldu eta makatua ikusi zuten, biluzik eta lurrian errukarri etzanda. Ile eta bizar zuria zituen —ez zaharra zelako, albinoa zelako baizik eta granate harrien antzekoak begiak. Eskuak estuturik zeuzkan, begiak zabal-zabal, eta haserre eta laztura keina aurpegian.

— Estaliozue aurpegia! —esan zuen gizon batek Jaungoikoaren izenean, estali aurpegi hori!

Eta atzeratzera behartu zituzten jendartean bultzaka sartutako hiru haur.

Jolly Cricketerstik maindire bat eraman eta maindireaz estali ostean, etxe hartantxe sartu zuten gizona.

AZKEN HITZA

Horrela amaitu zen Gizon Ikusezinaren esperimentu bitxi eta gaiztoa. Baina irakurleak hari buruz zerbait gehiago jakin nahi balu, joan bedi Port Stowetik hurbileko ostatu txiki batera eta mintza bedi hango nagusiarekin. Ostatuaren ikurra ohol soil bat da, kapelu baten eta bota batzuen irudia zizelkaturik duena; eta haren izena, berriz, istorio honek izenburu duen berbera. Nagusia gizon lodikote bat da, sudur biribil irtena du, ile zakarra, eta tarteka gorriuneak irte-ten zaizkio aurpegian. Irakurleak oparo edan, eta hark ere xehetasun oparoez azalduko dio pasadizo hauen ondoren zer gertatu zitzaion eta epaileak nola saiatu ziren haren altxorra lapurtzen.

— Diru hura norena zen ezin zutela frogatu konturatu zirenean, zer, eta altxor madarikatu hura aurkitu nuela aitorrarazi nahi izan zidaten! —esaten du Altxor bilatzailea ematen al dut, ba? Eta gero, gizon batek gaueko ginea bat ordain-

duko zidala agindu zidan Empire Music Hallen istorio hura nire hitzez kontatzeagatik bakarrik.

Halako batean oroitzapenen etorria eten nahiko balio, galde beza ez ote ziren ohar-liburu batzuk agertzen istorio hartan. Baietz, izan zirela, esaten du berak, eta berak dituela uste duela mundu guztiak! Baina, bai zera! Ezetz, ez dituela berak.

— Gizon Ikusezinak hartu eta izkutatu zituen nik Port Stowera ihes egin nuenean. Kemp doktore horrek esan zien nik ditudala denei.

Ondoren bere gogoetetan murgiltzen da, zeharka begiratzen du, edalontziekin jolasean hasten da, urduri, eta, ahal bezain laster, alde egiten du tabernatik.

Mutilzaharra da, beti hala nahi izan baitu, eta haren etxean ez dago emakumeen arrastorik ere. Kanpoko jantzietan botoiak erabiltzen ditu, behar den bezala, baina azpiko jantzietan, tiranteetan adibidez, lokarriak ditu. Ostatua zuzentzen ez da oso saiatua, baina txukun darama. Oso poliki mugitzen da, eta pentsalari handia da. Herrikoek gizon jakintsu eta eskuzabal samar-

tzat dute, eta Hego Ingalaterrako bideez Cobbe-
ttek berak baino gehiago dakiela esaten dute.

Igande goizetan, igande goizero, urteko igan-
de goiz guztietan, munduaren ikusmiratik at
dagoenean, eta gauero, hamarretatik aurrera,
ostatuko barruko gelan sartzen da edalontzi bat
hartuta —ginebra ur tanta batzuekin edalontzia
mahai gainean utzi ondoren atea itxi eta erreze-
lak aztertzen ditu, eta mahai azpian begiratzen
du. Bakar-bakarrik dagoela ziur denean, ireki-
tzen du arasa, arasan dagoen kutxa bat eta
kutxa horretako tiraderatxo bat, ateratzen ditu
larru marroizko azala duten hiru liburuki eta
arrandiaz jartzen ditu mahaiaren erdian. Liburu-
azalak zaharkiturik daude eta algen tankerako
kolore berdea hartu dute; izan ere, garai batean
erreten batean egon baitziren ezkutaturik, eta
orri batzuk marguldu ere egin zituen hango ur
zikinak. Besaulki batean esertzen da ostatuko
nagusia, pizten du buztinezko pipa luze bat eta
liburuei begira gelditzen da pozik. Gero, liburuki
bat hartu, ireki eta hura aztertzen hasten da,
orriak atzera-aurrera pasatuz.

Ondoren, bekainak zimurtu eta ezpainak mugitzen ditu, atsekabeturik.

— Ixa, biko bat ixaren alboan, baina goialdean gurutze bat eta, haren atzetik, auskalozer bat. Ene Jaungoikoa! Bai jakintsua gizona!

Handik denbora puska batera atsedeen hartu eta atzerantz etzaten da; pipak gelan utzitako ketan zehar begiratzen duenean gainerakoen begietara ikusezina den zerbaiti begiratzen diola dirudi.

— Sekretuz josita daude —esaten du Sekretu handiez josita. Ai! Horiek aurkitzen ditudan egunean! Ez dut, ez, hark egin zuena egingo; zera egingo dut... zera...

Eta pipari heltzen dio.

Ametsetan murgiltzen da gero, bere bizitzako amets liluragarri betierekoan. Eta Kemp etengabe bila aritu den arren eta Adyek galdeketa zorrotzak egin dituen arren, inork ere ez daki, ostatuko nagusiak besterik, non diren liburu horiek, ikusezintasunaren sekretua eta beste dozena bat sekretu bitxi gordetzen dituzten liburuak. Eta hura hil artean behintzat, beste inork ere ez du haien berri izango.